

Zu hemen zaude. goiena

LEHEN IGAROALDIAREN OSTEAN, BIHAR BIGARRENA

Harrera beroa egin diote Korrikari Antzuolak, Bergarak eta Elgetak; Leintz bailara eta Oñati zeharkatuko ditu zapatu goizaldean / 2

Elgetako Herri Eskolako gurasoak, ikasleak eta irakasleak Elgetan korrika, eguazten goizean. KORRIKA

**Txirindularitzan
igoera garrantzitsuak
asteburuan:
zapatuan, Uzarraga;
domekan, Gorla / 32**



ERRAMU-ZAPATUA 2024 / 20

SINADURAK

	ANDREA GONZALEZ / 8		AINHOA PARDINA / 25
	ISABEL MEDINA / 11		ESTEBAN IRUSTA MALLEA / 29
	MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA / 17		ANDER ETXEBERRIA / 40



Idoia Asurmendi musikariari elkarrizketa

Bakarrizketak: loraldia bizi izaten ari dira



**MondraTEA Eguna
egingo dute bihar
Arrasaten, lehen
aldiz, autismoa
gizarteratzeko / 10**

**Bergaran hasi
eta bukatuko da
Euskal Herriko
Bakarrizketa
Lehiaketa**

'Algaraka' du izena, lehenengo aldiz egingo da, maiatzean jokatu da eta lau saio izango ditu / 34



Antolatzaileak eta babesleak, lehiaketaren aurkezpenean, Seminarixoan. GOIENA

**BULEGOAK ALOKAGAI
GARAIA PARKE
TEKNOLOGIKOAN**

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak

60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46

**Handitu
zure aurrezkiak
urratsez urrats**

Ikusi 5. orrialdea

www.ruralkutxa.com

Lehen igaroaldi jendetsua egin du Korrikak eskualdean

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA

Eguaztenean pasa zen Antzuola, Bergara eta Elgetako lurretatik Korrika, eta herritarrek emandako erantzuna bikaina izan zen. Elosutik sartu zen eskualdera. Antzuolan kilometro batzuk egin ostean, Bergara erdialdea zeharkatu zuen, 07:50ean, San Martin plazatik, hogeitabat minutuko atzerapenarekin, Uberatik Elgetarantz egiteko, eta handik Ermura, Aixolatik. Elgetan 2015a ezker ez zen Korrika pasatzen, eta hartza ere esnatu zen, aldapan behera, tipi-tapa joateko.

Hogeitak kilometro izan ziren eguaztenean, eta beste 35 egingo ditu zapatuan, 02:00ak baino lehen hasi –Araba eta Gipuzkoako mugan– eta ia goizaldeko 06:00ak arte –Udanako mendatean–.

Goienak jarraipen berezia egingo dio Korrikari zapatuan ere, Leintz Gatzagatik Oñatira arteko ibilaldian; zuzen-zuzenean eskainiko du Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en, 01:45etik aurrera. Bestalde, domekan, Korrikaren amaiera ere zuzenean emango du, Baionatik, 11:30ean.



Korrikako irudi gehiago ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



ANTZUOLA Elay lantegikoak Herri Eskolakoek lekuko pasatzen.



ANTZUOLA Herriko mutikoak Udalaren lekukoarekin Amestin behera.



BERGARA Musikariek hartutako kilometroan, tipi-tapa.




BERGARA Xaxaukoak lekuko eroaten Oxirondora bidean.

Korrika Debagoiengan zapatuan, hilak 23


- 01:55 Landa.
- 02:25 Leintz Gatzaga.
- 03:00 Eskoriatza.
- 03:20 Aretxabaleta.
- 03:45 Arrasate.
- 04:15 Elorregi.
- 04:55 Oñati.
- 05:45 Udana.



BERGARA San Joxepe pentsiodunen elkarte eta Duintasuna elkarte.



BERGARA Miguel Altunakoak.



BERGARA Osakidetzakoak korrika.



BERGARA Soraluze kooperatibakoek ere bat egin zuten Azterketak Euskaraz ekimenarekin.



BERGARA Angiozar bailarakoak Uberan gora.



ELGETA Herritarrek, ilusioaz gainezka, Korrikaren zain.



ELGETA Hartzak ere korrika egin zuen, Goibeko elkartekoekin.

7:45 PM

Nagoo ze xaun? Erabaki don batxilergua nun egin?

Bai zea... horretan jarri be ez nauk egin. 😊 Hik bai ala?

Nik ez ñakonan dudarik, Elkar Hezin.

Joe, hain seguru? Ta hori?

Ba hasteko giruagatik: talde txikiñak dittun, irakasliekin tratua oso gertukua eta konfiantzazkua don, orduz kanpoko indargarrixak emuten xonal... Hola, gusturau lan egin eta samurrau ikasten don.

7:47 PM

Ya... ta emaitzak?

Brutalak! Batxi egitten hasten dittunan **100ak** lortzen xon bihar dauen **ikasketak egitteko notia**. Hik Fisio egitteko danan biharra eukiko don... **Apirilak 10** Batxiko aurkezpen saio bat xaun **18:00etan, Behebarruan**, fan ta dudak argittu, ez hai geratu goguz!

Elkar Hezik pagau egitten dosk propaganda egittiagatik ala?

Etorri Elkar Heziko Batxilergoak dituen berezitasunak ezagutzera

**Apirilaren 10ean,
18:00etan,
Behebarruan
(Arantzazuko Ama kalea 18,
Oñati)**

+2023ko neguan Elkar Heziko ikasle ohien artean egindako galdeketan oinarritutako informazioa.

idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72 / 688 621 195
www.elkarhezi.eus



Ikasleetako bat Aretxabaletako Lanbide Eskolako postuan betaurreko birtualekin. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

Lanbide Heziketak ere eskaintza zabala dauka

Eguaztenean eta eguenean Lanbide Heziketaren erdigunea izan da Arrasateko Kulturateko klaustroa Goiaz! azokarekin. Debagoieneko 350 ikasle izan dira han, Lanbide Heziketa zer den ezagutzen eta ikastetxeek ze eskaintzen dituzten ikusten

Iñigo Barrena ARRASATE

Goiaz! azokaren hamaseigarren edizioa egin dute, beste behin, Kulturateko klaustroan. Debagoieneko Lanbide Heziketaren azokak bide eman die ikasleei bailaran Lanbide Heziketan dauden aukerak zeintzuk diren ikusteko, aztertze eta etorkizunera begira ibilbide profesionalen izan ditzaketen aukerak zeintzuk diren jakiteko. Era berean, azokaren helburu nagusia izan da ikasleei, gurasoei eta herritarrei prestakuntzaren garrantzia helaraztea. "Azoka honekin ikastetxeek euren eskaintzak plazaratzeko aukera izaten dute, eta Lanbide Heziketa aukera bat dela erakusteko", azaldu du Amaia Irizarrek, Debagoieneko Mankomunitateko Enplegu teknikariak.

Erabakitze tokia

Egun, Debagoieneko Lanbide Heziketako zazpi ikastetxeetan 1.610 ikasle daude matriculatu, 34 ziklotan banatuta. Duela

hamarkada bateko datuekin alderatuz, %21 igo da matriculazioa Lanbide Heziketan, eskaintza ere hazten joan den heinean. Datuek goranzko joera islatzen dute, eta azoka aukera paregabea izaten da pausoa emateko. Hain zuzen, Irizarrek aitortu du etorkizuneko ikasketak erabakitze tokia aproposa izaten dela Goiaz! azoka: "Oso garrantzitsua izaten da azoka, ikasleek ikastetxeekin zuzenean hartu-eman izaten baitute. Hartu-eman horrek zalantzak argitzeko ere balio izaten du, ondoren erabakiak hartzeko".

Egitarau zabala

Aurten, 350 ikasle izan dute Lanbide Heziketa dituen aukerak

AZKEN HAMARKADAN %21 IGO DA MATRIKULAZIOA DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETAN

bertatik bertara ikusteko eta ezagutzeko, baina ez dira izan horretarako aukera izan duten bakarrak; enpresei zuzendutako hitzaldi-zikloa eta gurasoei edota Lanbide Heziketa ikasi nahi dutenei zuzendutako hitzaldia bat ere antolatu dute.

Berrikuntzak

Urtero legez, Goiaz! azokak berrikuntzak ere izan ditu. "Historian zehar ZTIM arloetan garrantzitsuak izan diren emakumeen gaineko erakusketa bat jarri dugu. Gainera, iazko Erasmus Plus txokoari ere jarraipena eman diogu, izan zuen erantzuna ikusita", adierazi du Irizarrek. Gainera, enpresei eragiten dieten gaien inguruko hitzaldi ziklo bat ere izan dute, eta, enpresek kontratazioak egiteko izaten dituzten zailtasunei erantzuteko, egoera irregularrean dauden pertsonak kontratatze aukerak eta baliabideak azaldu dizkiete, Bilzen-en eskutik.

EH Bilduk autobusak antolatu ditu Aberri Egunera joateko

Aberri Egunera arte –egun hori barne– eman ahal izango da izena, eta 10 euro ordaindu beharko dira

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Debagoieneko EH Bilduk autobusak antolatu ditu, herriz herri, martxoaren 31an Iruñean ospatuko den Aberri Egunerako. Izen ematea zabalik dago dagoeneko eta martxoaren 30ko goizera arte eman ahal da, honako leku hauetan: Antzuolan Aitz Garbi tabernan; Aretxabaletan Urbaltz tabernan; Arrasaten Irati topalekuan; Bergaran Arrano eta Pol Pol tabernetan; Elgetan Haizea tabernan; Eskoriatzan Inkernu tabernan; eta Oñatin Arrano tabernan. Hitzordu garrantzitsu horretara joateko joan-etorria 10 euro kostako da.

Koalizio subiranistak dei egin du Aberri Egunean parte hartzera, eta hau nabarmendu du: "Ezkerreko independentistok argi daukagu gurea herria dela, nazio bat garela eta gure etorkizuna erabaki nahi dugula. Anbizioa eta determinazio kolektiboa ditugu hori horrela dela frogatzeko, eta ziur gaude lehenago edo geroago Estatu izango garela".

Egun osoko egitaraua

Azken bi urteetako hitzorduen arrakastak gogoratu ditu Debagoieneko EH Bilduk, eta, hori errepikatze aldera, egun osoko egitaraua prestatu dute martxoaren 31rako. Hitzordu garrantzitsuena 12:00etan Golemetatik abiatuta Antoniutiraino egingo den manifestazioa izango da. 13:15ean, Basotxotik alde zaharrerantz abiatuko dira,

kale animazioaz giroturik. Trikitilariak, elektrotzaranga, gaiteroak, buruhandiak, txaranga eta bestelakoak batuko dira. Burgoen plazan umeen gunea izango da 16:00etatik aurrera. Ekain pailazoa eta jolasak izango dira. Gaztelu plazan kontzertuak izango dira, 16:00etatik aurrera. Arrasateko Perlata musika taldeak irekiko du kontzertuen egitaraua, eta Xiberoots eta Trikidantz taldeak ere arituko dira.

EH Bateraren deia

Euskal Herria Batera egitasmoak 2024ko Aberri Egunerako deia aurkeztu du, Euskal Herria aintzat hartzen duten askotariko erakunde eta eragileei zuzenduta. Egitasmoak batera aritzeko garaia dela azpimarratzen du: "Aberri Eguna batera aritzeko eta Nazioa garela ospatzeko eguntzat hartzen dugu, eta, beraz, etorkizunean Aberri Egun bateratua ospatzeko baldintzak sortzera dei egiten dugu". Gainera, nazioarekiko atxikimendua berritu, egokitu, gaztetu eta zabaldu egin behar dela uste dute, eta, horretarako, "konpromisoa" azaldu du haren deialdia "zabaltzen" jarraitzeko.

MARTXOAREN 30ERA ARTE EMAN EGONGO DA AUTOBUSEAN IZENA EMATEKO AUKERA



Ikurriña. GOIENA



RURAL KUTXA

1/6
Zenbaki horrek produktuaren arrisku-maila adierazten du; 1/6 adierazleak arrisku-maila txikiena adierazten du, eta 6/6k, arrisku handiena.

Kreditu Entitateetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikita dago Rural Kutxa. Funtsek 100.000 euroraino bermatzen ditu diruzko gordailuak entitate eta titular bakoitzeko.



Hemen, zure aurrezkiak gorago iristen dira.

% 3,546ko UTBa

Epea: **12 hilabete**
Interesen likidazioa hiru hilean behin

Rural Kutxa Debagoiena Gordailua

Ospa ezazu geure urteurrena 12 hilabeteko iraupena duen epe finkoko Gordailuarekin, interes-tasa nominala % 3,50 izanik.

UTB: % 3,546

ITN % 3,50

RURAL KUTXA BERGARA
Paseo Irizar 5 · 943 76 93 93
oficina.0169@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA OÑATI
Foruen Enparantza 9 · 943 71 88 67
oficina.0198@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA ARRASATE
Plaza Biteri 2 · 943 79 53 43
oficina.0253@ruralkutxa.com

www.ruralkutxa.com



Proposamenak 2024/04/30ra arte balio du, eta Rural Kutxako aurrezki garbien maila Gordailu hau kontratatuta areagotzen duten pertsonentzat soilik. Gehieneko zenbatekoa: 100.000 euro.

Adibidea: 100.000 euroko gordailua, hasiera-data 2024/02/01 izanik: interes gordinekin dagozkien 875 euro likidatuko ditu 2024/05/01ean, beste 875 euro 2024/08/01ean, beste 875 euro 2024/11/01ean eta beste 875 euro gehi printzipalaren 100.000 euroak 2025/02/01ean; beraz, guztira, 3.500 euro gordineko interesak ordainduko dira.

Aldez aurretik ezerezteagatik komisioa % 1 da.

VISUAL THINKING

Aktibatu zure Hizkuntza Bisuala

Garaia Parke Teknologikoak Visual Thinking-eko jardunaldia antolatu du, Miryam Artolaren eskutik.

VISUAL THINKING

Aktibatu zure Hizkuntza Bisuala



DATA: APIRILAK 18

ORDUA: 08:30ETIK 11:30ERA

LEKUA: GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA

PREZIOA: 90 EURO

EDUKIA:

- Visual Thinking-erako hurbilketa, hizkuntza gisa.
- Hizkuntza Bisualaren gakoak eta ahalmenak.
- Zazpi urrats zure Hizkuntza Bisuala aktibatzeke eta zabaltzeko.
- Visual Thinking metodologiaren eta tekniken praktika.

APLIKAZIOA:

- Talde eraginkorrak eta kohesionatuak.
- Narrazio komunak.
- Intuzioetatik proiektuetara igarotzea.

Parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da IZEN-EMATEA.



IZENA
EMAN
HEMEN



Debagoieneko erronkak aztergai Olaso Dorrean

Pello Otxandiano Olaso Dorrean elkartu da bailarako alkateekin, eta haren liburua aurkeztu du; Maddalen Iriartek, berriz, Oñatin antolatutako solasaldian hartu du parte

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Pello Otxandiano EH Bilduren lehendakariagaia eta Nerea Kortajarena EH Bilduren Gipuzkoako zerrendaburua bailarako alkateekin elkartu ziren Bergarako Olaso Dorrean, Debagoienean dauden erronkez jarduteko. Besteak beste, herritarren partaidetzan oinarrituriko gobernantza, etxebizitza, osasungintza eta Osakidetza indartzeke beharra eta mugikortasuna izan zituzten berbagai. Era berean, azken horri dagokionez, Debagoieneko "autobus publikoa" indartzeak duen "urgentzian" jarri zuten arreta EH Bilduko ordezkariak.

Bilera hura ez zen izan, ordea, Otxandianok Olaso Dorrean izan



Otxandiano eta Kortajarena bailarako alkateekin. JOSU BILBAO

zuen ekintza bakarra; izan ere, alkateekin bildu ostean, hark idatzitako *Begirada* saiakera politikoa aurkeztu zuen.

Hirugarren ekitaldi bat ere izan du aste honetan EH Bilduk Debagoienean, Oñatin izan zen-

eta Maddalen Iriarte, EH Bilduren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Bertan egiten ari den lanen berri emateaz gain, herri mailan egiten ari diren proiektuen berri eman zuen solasaldian.

Aretxabaletako proiektu soziosanitarioa berbagai

Imanol Pradales EAJren lehendakariagaia Aretxabaletako EAJko udal taldearekin batu da eta herriko ekosistema soziosanitarioaren proiektua ezagutu du

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Imanol Pradales -EAJren lehendakariagaia- eta Bakartxo Tejeria -Eusko Legebiltzarrerako EAJren zerrendaburua Gipuzkoatik- Aretxabaletako EAJko udal taldearekin elkartu dira, herriko ekosistema soziosanitarioaren proiektua ezagutzeko. Herrigunean kokatuta dagoen eraikinean adineko pertsonen bideratuta egongo den eta herriko gizarte eta osasun arloak bateratuko dituen zentro berritzailea euskal gizarte ereduaren "adibide argia" dela esan zuen Pradalesek. Era berean, EAJk zaintza publiko, eraldatzaile, feminista eta komunitarioaren aldeko apustu argia egiten duela berretsi zuen lehendakariagaia.

Oñatin, berriz, Debagoieneko EAJko kideek Aloña Mendi elkarteari aitortza egin diote, haren 75. urteurrenean; herrigintzaren alde egindako ibilbidearen azpimarratu zuten. Era berean, EAJren ustez, Aloña

Mendik kirol zaletasuna eta balioak uztartzeko lan eredugarria egiten du. Bestalde, EAJk astelehenerako (18:30) *Nekazaritza eta herri txikiak* hitzaldia antolatu du Eskoriatzako Ibaundi museon.



Pradales eta Tejeria Aretxabaletan. DEBAGOIENAKO EAJ

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

#LanerakoGertu

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa

mondragon.edu/lanbideheziketa

ATE IREKIAK

Martxoak 23

11:00etan

Maiatzak 4

11:00etan

Eman
izena!



MGEP: 664298683 // 664298704



ZABALIK

ANDREA GONZALEZ

Bermatzen da gazteon zaintza?

Zaintza izan da azken hilabeteotako gai nagusietako bat. Sistema zisheteropatriarkal honetan emakume, bollera edo trans bezala sozializatuta egoteak zaintzailearen papera ezarri digulako. Egoera horretan gazte izateak ere gurutzatzen gaituen zapalkuntza bat da.

Ez da gauza berria gazteon osasun mentala; hala ere, azkenaldian gertatu den gaixotasun mentalen gorakada azpimarratu beharreko zerbait da. Ez da arazo koiuntural bat soilik; gure bizitzak guztiz prekarizatuta daude eta zaila da etorkizun hobe irudikatzea, ez delako zaintza bermatzen.

Hezkuntza eredu honetan heziak izanda, gaur egun ezin dugu bermatu jasotzen dugun hezkuntza duina, feminista, euskalduna eta burujabea izango denik, sarbidea ordainpekoa izanda ere. Hezkuntzan ere ez delako zaintza bermatzen.

Jakina da berehalakotasunaren beharra duen gizarte batean bizi garela eta horrek datorkiguna zalantzan jarri gabe onartzera eta erreproduzitzera garamatzala; hau da,

EZIN DUGU BERMATU HEZKUNTZA DUINA, FEMINISTA ETA BURUJABEA JASOKO DUGUNIK

indibidualistak izatera, kontsumistak... Sare komunitarioen beharra dugu joera horiek ekiditeko eta zaintzaren ulerkera berrasmatzeko.

Etengabeko krisian bizi garen honetan, oso gutxi dira etxebizitza duin

baterako sarbidea duten pertsonak. Argi dago etxebizitza denon eskubide izaten uzten ez digutenak enpresak eta instituzioak direla. Etxebizitzaren esparruan ere ez delako zaintza bermatzen.

Gazteok gure kabuz ekonomikoki sostengatu ahal izateko lortzen ditugun enpleguak prekarioak izaten dira, gehienetan, eta horrelako enpleguek ez digute uzten bizi baldintza duinak izaten. Gainera, ez dugunez izaten lan-esperientziarik, are gehiago prekarizatzeko zein esplotaziorako bide izaten dira. Lan munduan ere ez delako zaintza bermatzen.

Guztion bizitzak erdigunera ekarri, haurrenak eta gazteonak ere bai, eta zaintza sistema publiko komunitario baten alde egin behar dugu, bizi baldintza duinak izateko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Harro, herri, krak

NEREA LOIOLA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/69RVS](https://labur.eus/69RVS)

Anaia zaharragoek diotelako dakizu goiz dela afaltzeko, bost urteko zure burutxoak denbora desberdin erabiltzen du oraindik. Txoropitokeriatan hasi zarenean, goiz oheratu behar dugula gogorarazi dizut. *Gauean Korrikara joango garelako; badakit, amatxo;* hasperen bihurria egin eta begiak txilotu dituzu, baina zure ninien hara-hona lasterrak lehen aldien urduritasuna salatzen du.

Zu esnatzea kosta zaigun arren, bizi-bizi zaude orain; *Harro herri* kantatzen hasi

zara kalea zapaldu orduko. Aurrea hartu diguzu, peto erraldoia jantzita, ibileraren eta dantzaren arteko mugan dauden salto txiki artean. Musika entzun dugu, argiak ikusi. Aurretik hasi nahi duzu korrika, ezinegonak gain hartu dizu, datorrenak adarrak izango balitu bezala kasik. Eta zugana makurtu naiz, ez nuen uste zure begi beltz handiak are ederragoak izan zitezkeenik gauez.

Eskutik helduta goaz, leloei ozen erantzunez, erritmo biziari eutsi nahian. Burua altxatu duzun unean egin dit zerbaitek krak, zure irribarre zabalari berdinean erantzuten saiatu naizenean, zure festak herrestan kezkarik ez

daramala ulertzean. Eskoletan egiten ditudan literatur solasaldiekin oroitu naiz, D ereduaren ikasita ere euskaraz esaldi oso bat esateko gai ez diren ehunka haurrekin, nire semeak lagunekin euskaraz mintzo direla entzutean begiak-talo jartzen dituztenekin, euskaraz bizitzea aukeratzat ez dutenekin.

Zeren eta zu, txiki, burbuila batean bizi zara. Uste duzu *Patrulla Canina* euskaraz ez egotea kasualitatea dela, uste duzu espainola Espainian bezala bizi dela euskalduna Euskal Herrian, ez dagoela mugarik Bidasoan; eta, uste duzu, pelikuletan, eta bizitzan, txintxoek irabazten dutela beti.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Gaiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014**ISSN:** 2174-369X**Tirada:** 18.550 ale**Inprimategia:**

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Euskara lehentasunetara ekarri beharra daukagu"

IÑAKI IURREBASO SOZIOLOGOA

Amaia Txinturreta Guridi OÑATI Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan, martitzenean Oñatiko kultura etxean izan zen Iñaki Iurrebaso soziologoa (Legazpi, 1967), Udalaren eta Uemaren eskutik. *Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?* izenburudun hitzaldia egin zuen, eta, horretarako, izenburu hau daraman doktore tesia hartu zuen oinarri: *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa.*

Zerk eraman zaitu tesi hori egitera?

Euskararen egoera hobeto ezagutu nahi izateak mugitu ninduen gehien. Lehenago egindako lanengatik banekien informazio asko zegoela, eta horretan gehiago sakonduz pista gehiago ateratzeko helburuarekin hasi nintzen. **Zein iturri izan dituzu lanerako?** Hiru: hegoaldeko zentsuak, Eustat eta Nastat; Eusko Jaurlaritzaren inkesta soziolinguistikoa; eta, azkenik, erabileraren kale neurketak, Soziolinguistika Klusterrarenak. Orain arte, iturri horiek landu izan dira gehienetan bakoitza bere



Iñaki Iurrebaso, martitzenean, Oñatiko kultura etxe kanpoan. A.T.

aldetik, eta gogoia neukan ikuspegi orokor bat eskaintzeko hiru iturrietan azaltzen den informazioarekin. **Hiru epekatze orokor zehaztu dituzu; lehenengoa ordezkapen aroa izenekoa da, 1906tik 1971ra. Zer jaso duzu bertan?**

1906an euskarak oraindik ere pisu dezente zeukan hegoaldean, eta hegoaldeko datuak bakarrik daukagu. Jaiotako haurren %41ek jaso zuten euskara etxean. Garai hartan, Bilbotik

mendebaldera dagoen Bizkai osoan, Gipuzkoan eta Nafarroako iparraldean, gutxienez, euskara sozialki oso indartsu zegoen familian eta kale giroan, behintzat, eta, handik aurrera, XX. mendean zehar joan zen euskararen pisua jaisten, nabarmen. Garai hartan gertatutako migrazio prozesuak eragin zuen, batetik; izan ere, familia euskaldunetako batzuek –ez gehienak, baina bai batzuk– erabaki zuten seme-alabei euskaraz ez

erakustea. Zertarako erakutsi sufritzeko besterik ez den hizkuntza? Hori oso arrunta da hizkuntza gutxituetan, mendeetako bazterketaren eta jazarpenaren ondorioz: ez baloratzea nork bere hizkuntza eta nahiago izatea beste hizkuntza –gaztelania, gure kasuan– erakustea gure seme-alabei. Bi faktore horiek eraginda, jaitziera nabarmena izan zuen euskararen pisuak gure gizartean.

Gero etorri zen indarberritze aroa deitu diozuna, 1971tik 2001era.

60ko hamarkada inguruan beste susperraldi bat izan zuen euskal komunitateak; garai hartakoak ditugu euskara batua, ikastolak eta helduen euskalduntzea, besteak beste. Susperraldi aro haren eskutik gertatu zen lehen esan dugun galera hura, familia batzuek erabaki zutela euskara ez transmititzea euren seme-alabei; galera hori eten egin zen, nolabait esateko, salbuespenak salbuespen. Eta garai hartako euskaldun berriak ere euskaraz transmititzen hasi ziren seme-alabei. Eta horrek eragin zuen susperraldia. Datu estatistikoak gai horri buruzkoak ditugu; pentsatzekoa da garai hartan bai erabileran, bai gaitasunean, bai beste hainbat alderditan ere gora egingo zuela euskarak, nahiz eta ez dugun datu zehatzik. **Geldotzearen aroa etorriko litzateke gero, 2001etik 2021era.** Hor daukaguna da 2001 ingurutik lehengo suspertze aro hura gelditu egin zela;

adierazle batzuetan ikusten da gorantz jarraitzen duela, baina geldoago, eta beste batzuetan atzeraka ere hasi gara. Berez, horren arrazoietan ez dut sakondu; hala ere, hipotesi bezala esango nuke XXI. mendearekin batera izan ziren aldaketa teknologikoez eta horiek gure kultur eta gizarte ohituretan izan zuten inpaktuak, seguru aski, zerikusia izango zutela. Eta, bestetik, demografia aldetik, berriro migrazio joera berriek, zalantzarik gabe, eragina dute datuetan. **Olatu berri baten beharra azpimarratzen duzu.** Bai; inpresioa daukat azkenengo urteetan euskaltzale jendea ere agian ez ote garen erlaxatuegi ibili, eta euskara lehentasunetara ekarri behar da maila pertsonalean –euskararen aldeko hautu argiak eginez gure eguneroko bizitzan–; eta maila politikoan, berriz, politika indartsuagoak behar dira euskararen alde.

"1906AN JAIOTAKO HAURREN %41K JASO ZUTEN EUSKARA ETXEAN; PISU DEZENTE ZEUKAN"

"USTE DUT GAUR EGUN POLITIKA INDARTSUAGOAK BEHAR DIRELA EUSKARAREN ALDE"

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATEAK ZABALIK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN Gipuzkoa

ARETXABALETAN:

Apirilak 10 eta 24
Maiatzak 8

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, 21g - 22 Pk. • 20560 ARETXABALETAK
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
la@aretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN:

Apirilak 13
Maiatzak 7

Miguel Altuna LHII Bergara
Agimibidea, 2 • 20570 BERGARA
☎ 943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN:

Apirilak 17
Maiatzak 15

ONATI Institutua
Lamaña auzoa, 16 • 20560 OÑATI
☎ 943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2024 - 2025 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZEAN



Alejandra Merette, Mirian Hernandez eta Desiree Ots, biharko eguna iragartzeko kartelarekin. E.A.B.

Autismoa gizarteratzeko baliatuko dute biharkoa

Autismoa gizarteratzea helburu duen MondraTEA Eguna egingo dute lehenengo aldiz bihar, zapatua, Biteri plazan; Txatxilipurdik hainbat ekintza egingo ditu eta puzgarriak ere izango dira, Atracciones Sanzen eskutik; herritar guztientzako ekimena izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Autismoaren Espektroko Nahasmendua –gasteleraz, Trastorno del Espectro Autista (TEA)– ikusarazteko eta gizarteratzeko helburua duen festa egingo dute bihar, MondraTEA taldeak antolatuta. 2023ko urtarrilean sortu zuten MondraTEA taldea, Gautena Elkartearen elkar ezagutu zuten hainbat kide elkartu

ostean. "Han gure esperientziak partekatzen ditugun arren, erabaki genuen gaia sakonago landu behar genuela Debagoiengan, eta ikusgarritasuna irabazi. Beraz, bailarako hainbat kide batu ginen; gehienak, arrasatearrak", azaldu du Marian Hernandezek, taldeko kideak. Hain zuzen, Autismoaren Espektroko Nahasmendua duten seme-alaben

amak dira, eta bizi duten errealitatea gizarteratzea da taldearen helburua, inklusioa erdigunean jarrita. "Ea gauzak aldatzen hasten diren haien alde. Izan ere, edozer gauza lortzeko, borroka egin behar izaten dugu, ikastetxean edota herri mailako edozein festatan. Oro har, ez dituzte kontuan hartzen gure seme-alaben beharrak".

Nabarmendu du, halaber, instituzioen babes handiagoa behar dutela Autismoaren Espektroko Nahasmendua duten seme-alaben familiek. "Izan ere, familia askok ezin dituzte ordaindu terapiak, eta oso salduta geratzen dira, behar-beharrezkoa baitute hurrek terapia hori. Eta, egun, terapia guztiak pribatuak dira".

Helburu hori lortzeko bidean, hain zuzen, hainbat hitzaldi egin zituzten iaz, eta aurten MondraTEA Eguna egingo dute. Atracciones Sanz enpresako Juan Pablo Sanz izan zen egun hori sortu ahal izateko hazia erein zuena. "Ibai-arterekin ekimen bat egin zuten eta ni semearekin joan nintzen puzgarrietara. Hark autismoa duenez, asko kostatzen zaio ilaretan itxarotea, eta Juan Pablok esan zidan ez itxaroteko, zuzenean sartzeko puzgarrietara. Gero, berriz etorri zen nigana eta proposatu zidan autismoa ikusarazteko eta nire semearentzako dirua batzeko egun bat antolatzeko. Ondo pentsatu ostean, aurrera egitea erabaki nuen, baina, dirua nire semearendako bakarrik izan beharrean, MondraTEA taldera bideratzea egokiago ikusi nuen", azpimarratu du Hernandezek.

Tailerrak, puzgarriak eta beste Esan moduan, Biteri plazan egingo dute festa bihar, *Bizitzeko modu bat ikusarazten* lelopean, eta guztiz irekia izango da herritar guztientzat. Batetik, 11:00etatik 14:30era, Txatxilipurdik hainbat ekintza egingo ditu: klarionekin marrazkiak, kartoietan koadroak sortzeko tailerrak, muralak margotzeko saioak eta aurpegi margotzea.

Bestetik, Atracciones Sanzek puzgarriak jarriko ditu, 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:00eta-

ra. Sarrera ordaindu egin behar da eta horietatik batutako dirua MondraTEA taldearentzako izango da. Aipatzekoa da, era berean, autismoa duten haurrek lehenetsuna izango dutela puzgarrietan sartzeko.

Azkenik, MondraTEA taldeko kideek mahai informatiboak jarriko dituzte, autismoari buruzko informazioa emateko. "Eskumuturrekoak saltzeaz gain, herritarrei azaltzen saiatuko gara zer den autismoa eta gure seme-alabek nola bizi duten euren egunerokoa. Panfletoak ere banatuko ditugu". Horrekin batera, autismoa duten 17 urteko eta 25 urteko bi herritarrek euren esperientziaren berri emango dute. "Haien bizimodua nolakoa den kontatuko dute. Azken batean, haiek dira ondoen dakitenak, eta interesgarria da euren ahotik bizipenak entzutea".

Gaur egun, lau kide ditu MondraTEA taldeak, baina batzeko eta laguntzeko interesa duen edonorentzako ateak zabalik dituztela adierazi dute.

Ezberdin eragiten dio bakoitzari Espektro autista edo Autismoaren Espektroko Nahasmendua giza burmuinaren garapenaren nahasmendua da, jarreraren, komunikazioaren eta harreman sozialaren eragiten duena. "Haien burmuinak ez du gureak bezala prozesatzen informazioa. Hala ere, modu desberdinean eragiten dio pertsona bakoitzari eta bakoitzak bere esperientzia du".

2023KO URTARRILEAN SORTU ZUTEN MONDRATEA TALDEAK LEHENENGOZ EGINGO DU EGUN OSOKO JAIA

Herriguneko ibilgailu kopurua neurtu dute aste honetan

Mugikortasun Plana berritu eta eguneratzeko neurketen ostean, apirilean prozesu parte-hartzailea abiatuko dute

E.A.B. ARRASATE

Aste honetan egin dituzten neurketen helburua da herrian dabilen ibilgailu kopurua zenbatzea. "Ibilgailu motordunetz gain, motorrik gabekoen kopuruak ere neurtu ditugu, eta

darabilten abiadura ezagutuko dugu". Neurketa horiek, Udal Gobernuaren esanetan, Mugikortasun Plana eguneratzeko balioko dute. "Planak trafikoa- ren ohiturak ezagutzeko balio- ko du, eta hartu beharreko

neurriak proposatuko ditu horien oinarrian". Horrekin batera, Udaltzaingoarekin eta Udaleko teknikariek ere hainbat elkarrizketa egingo dituzte, "beharrak identifikatu eta gaia zehar-lerroan lantzeko".

Apirilean prozesu parte-hartzailea abiatuko dute. Prozesu osoak sei hilabete iraungo du, eta, beraz, Mugikortasun Plan berria urte amaierarako prest izatea aurreikusten dute. Intra enpresak izango du plana eguneratzeko ardura.

Antoñako frontoian "urgentziak" lanak egiten ari dira

Azken asteotan ezker paretako materiala erori da, eta, ondorioz, "urgentziak" konponketa lanak egiten ari direla azaldu du Udal Gobernuak. Dena den, behin-behinekoko konponketak izango dira, eta frontoiaren eraberritze osoa Musakolako kiroldegiko eraberritzearekin batera egingo dute. Lanek iraun bitartean, ezingo da pilotan jokatu.



Udal langileak, pilotalekuan. A.U.

Alokairuen egoera salatu du IMME elkarteak

Arrasatek etxebizitza arloan arazo bat daukala uste du emakume musulmanak euskal gizartean integratzeko helburua duen IMME elkarteak, eta egungo egoera "jasanezina" dela azpimarratu du; babestutako etxeak egiteko eskatu diote Udalari



IMME elkarteak joan den astean egindako prentsaurrekoa. GONTZAL BELATEGI

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasatearren zati handi batek alokairuetarako sarbiderik ez duela salatu du IMME elkarteak, eta horrekin lotutako neurriak hartzeko eskatu diote Udal Gobernuari. Azaldu dutenez, jakitun dira etxebizitzaren gaia Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela, baina Udalari "ahal duen heinean" esku hartzeko eskatu diote, bi eskari nagusirekin: alokairuen gaia jorratuko duen bitartekaritza bulego bat irekitzea eta babestutako etxebizitza berriak egitea Arrasaten. "Nahi duguna da udal bulego bat sortzea, herritarrekiko gertukoagoa izango dena eta Arrasaten herritar guztiek, ikasle, gazte zein atzeritarrek, alokairuarekin duten arazoa azalaraziko duena", adierazi du Malika Abba Mohamed Alik, elkarteak kideak.

Badakite bulegoak ez duela alokairu bat izatea ziurtatuko, baina bitartekaritza zerbitzu bat eskaintzeko aukera eskai-

niko lukeela uste dute. "Horrela, alokairu bat eskuratu nahi duten pertsonen arazoaren zati handi bat konponduko litzateke, Alokabiderek harremanetan jartzeko hainbat arazo daude eta". Horrez gain, etxe-agentzien ere harremanetan jartzeko balio beharko luke bulegoak, haien esanetan. "Abokatuen bidez kekek ere bidali ditugu, baina ez dugu Alokabidderen erantzunik jaso inoiz".

Aipatzekoa da badirela elkarteak eskatzen duen bulegoaren antzerakoak Euskal Herriko beste zenbait herritan; adibidez, Zarautzen, Azpeitian eta Bilbon.

Babestutako etxebizitzak

Elkartearen beste eskakizuna babestutako etxebizitza berriak sortzea da, Udalak San Andresen duen lur eremu batean. "Hain zuzen ere, etxebizitzaren eskaria jaitsi egingo litzateke, eta etxebizitza baterako sarbidea erraztu", azpimarratu dute.

NIRE USTEZ



ISABEL MEDINA

Normalizatu dezagun aniztasuna

Betidanik sinistu izan dut inoiz ez dela nahikoa aniztasunarekiko inklusioaz berba egitea. Hau da, pertsona moduan ditugun ezberdintasunak aintzat hartzeko dugun gaitasunaz ari naiz, eta horretarako prest ez dagoen mundu batean bizi gara.

Hori bizi izaten dut autobusean bidaiatu behar izaten dudana bakoitzean. Izan ere, belauneko arazoekin eskailerak jaitea amesgaizto bat da, eta ni ez naiz mugikortasun urriko pertsona.

Era berean, egoera bera ikusten dut edozein izapide betetzeko jarraibide burokratikoak ulertzea lortzen ez duten lagunekin. Nire lagun gehienak aniztasun horren barruan daude, non erraztasun telematiko handiagoa eskatzen duten. Beraien eguneroko errealitatea honako honetan laburbiltzen da: gutxi batzuk egokitzen diren gizarte batean sartzen ahalegintzea. Aniztasuna normalizatu egin behar dugu, eta gizarte inklusiboagoa sortzen ahalegindu. Gutxi batzuen ahaleginarekin errazagoa izango delako guztiontzat!

BETIEREK MAITASUNA PREZIO ONENTZAT



Orga
betea

70€

baino
gutxiagoan



EROSKI

ARRASATE

Milaka produktu,
BETI PREZIO ONEAN

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

23. KORRIKA



Duela bi urte, Korrika Arrasateko erdigunetik pasatu zenekoa, Erdiko kalean gora. IMANOL SORIANO

Zazpi kilometro egingo ditu Korrikak Arrasaten

Festa giroa nagusituko da gaur Arrasaten, Korrika iritsiko dela aprobetxatuta; izan ere, Korrika batzordeak arratsalderako eta gauerako egitaraua prestatu du, motorrak berotzen joateko; hala, 460 herritar inguru elkartuko dira Uarkapeko kantu afarian

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Korrika bihar, zapatua, 03:30ean sartuko da Arrasatera, Aretxabaletatik, eta zazpi kilometro egingo ditu herrian. Elorregirantz hartu eta Oñatitik aurrera jarraitzeko. Irunen hasi zenetik 2.249 kilometro egin ostean sartuko da, hain zuzen, Arrasatera, 2254. kilometroan Oñatiko lurretan sartzeko. Kilometro horietan sartzietan, herriko 40 elkartek, eragile eta taldek hartuko dute lekukoa.

Euskararen aldeko ekimena goizaldean iritsiko denez, aurrez motorrak berotzeko egitaraua prestatu du Korrika batzordeak. Hala, arratsaldea girotzeko, askotariko ekintzak egongo dira. Lehenik eta behin, 18:00etan, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren eskutik, kalejira egingo dute. "Badakigu konpartsak nolako arrakasta duen; bereziki, txikienekin", adierazi du Itxaro Artolak, Korrika batzordeko kideak. Gero, 19:00etan hasita, Lore Gazteak eta Txiki-

txu-Arrostaitz dantza taldeek emanaldia egingo dute eta Udaxpe Txistulari Elkartearen eskutik kalejira ere izango da. Era berean, Ttakun Txalaparta Elkartek, Arrasateko Trikitixa Eskolako kideek eta albokariak alaituko dituzte herriko kaleak, kantu afarira bitartean.

Afarirako txartelak, agortuta Uarkape pilotalekuan egingo dute, hain zuzen, *Zeuk ekarri, zeuk jan* kantu afaria, 21:00etan. Izenak dioen moduan, bakoitzak bere afaria eraman beharko du. Edozelan ere, txartel guztiak agortuta daude dagoeneko. "Hasiera batean, 300 bat lagunentzako afaria aurreikusitua genuen, baina azkar batean agortu ziren

KORRIKA TXIKIA 10:00ETAN ABIATUKO DA, SAN ISIDRON, IKASTETXETIK IKASTETXE ARITZEKO

eta 460 bat txartel saldu ditugu, azkenean". Sei Pistols & Tabuko Bat taldeak girotuko du afaria. Afalostean, DJak egongo dira Iratin eta gaztetxean.

Korrika Txikia gaur goizean Era berean, txikienei zuzendutako Korrika Txikia gaur, egubakoitzan, egingo dute. 10:00etan abiatuko da, San Isidro elizatik, eta ikastetxetik ikastetxe joango da, herrigunetik pasata, Bedoñaberaino; ibilbidea Seber Altube plazan bukatuko da.

Aldapako Korrika ere bai Bestalde, Aldapako Korrika egingo dute Mondragon Goi Eskola Politeknikoak, Lagun Arok, Osartenek, Ikerlanek, Mondragon Taldeak eta Laboral Kutxak. 12:30ean Mondragon Goi Eskola Politeknikoako barneko plazan hasiko dira eta goranzko bidea hartuko dute. Laboral Kutxa eta Mondragon Taldearen eraikitara iritsi ondoren, berriz beharrezko bidea hartuko dute.

GORA ETA BEHERA



Bizkaia etorbideko igogailua, negargarri

Zera dio herritar batek: "Garbitzailea eta auzotarrak nazkatuta daude pintaketekin. Gainera, segurtasun-kamera margotuta, ezin dira irudiak ikusi. Eta bigarren solairuko botoia apurtuta dago".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Perez de Arenaza oroituko dute, 40. urteurrenean

Bihar, zapatua, 40 urte beteko dira GALEk Xabier Perez de Arenaza arrasatearra Miarrizten tiroz hil zuenetik, eta, urteurren horren baitan, hura oroitzeko ekitaldia antolatu du Egiari GALde dinamikak. Hain zuzen, 19:00etan Kulturateko klastroak memoria ekitaldia hartuko du. "1983an abiatu zuen GAL taldeak bere ibilbide bortitza, eta 1984ko martxoaren 23koa ez zen GALen lehenengo ekintza izan, ezta azkenengoa ere, gutxienez 83 lagun hil baitzituzten hark eta beste zenbait taldek", nabarmendu dute dinamikako kideek. "Bada garaia egiari galde diezaiogun, herri memoria gal ez dadin", gaineratu dute.

San Juan jaietako kartel lehiaketa martxan dago jada

Udalak dagoeneko publikatu ditu 2024ko San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketarako oinarriak. Lehiaketa irekia izango da Debagoieneko edozein udalerritan errolatuta dauden biztanleentzat. Lanak apirilaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dira, BAZen. Irabazlea epaimahai bidez aukeratu dute eta hark 750 euroko saria jasoko du.

Lanak originala izan beharko du eta kartela osatzeko teknika librea izango da, parte-hartzailerako bakoitzaren arabera. Edozelan ere, badira errespetatu beharreko oinarri batzuk. Esaterako, honako testu hau jaso beharko du kartelak: *2024 San Juan Jaiak Arrasate*.

OHARRAK

Mar Cambrolle aktibista Arrasaten gaur

Podemos Arrasatek antolatuta, hitzaldia egingo du pertsona transgeneroen aldeko ekintzaile andaluziarrak. Kulturateko Loramendi gelan izango da saioa, gaur, 18:00etan.

'Nire ongizate emozionala zaintzen' tailerra

Apirilaren 10ean hasita, zortzi asteko tailerra da, eta Arrasateko osasun zentroan egingo dute, 16:30etik 19:00etara bitartean, Paziente Bizia programa dela eta.

1970ean jaiotako kintada

Azaroan egingo dute. Ekainera arte egongo da izena emateko aukera, 600 05 56 04 telefono-zenbakira deituta (Justi).

Ahozkoatasunaren balioa, goroldio ez bilakatzeko

Eguaztena, martxoak 20, egun berezia izan zen euskal kontalariendako, Ahozkoatasunaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten. Juan Kruz Igerabidek kontatutako 'Tradiziotik' izeneko ipuin batekin hasi zuten Kulturateko ekitaldia

Xabier Urtzelai ARRASATE

Eguaztenean euskal kontalarien ekitaldia hasi baino minutu batzuk lehenago botatako lau euri tantak ez ziren nahikoa izan Arrasateko Kulturate kanpoaldean prestatuta zeukaten jaialditxo zapuzteko. Arrasateko Udal Bibliotekak antolatuta, Ahozkoatasunaren Nazioarteko Eguneko ekitaldia egin zuten, Ahoz Aho jaialdiaren baitan, eta, hain zuzen, ekitaldia aurkezteko ardura izan zuen May Gorostiagak esker oneko berbak izan zituen Udal Bibliotekako langileendako: "Euskal Herrian dozena erdi bat leku kuttun izango ditugu; etxean gaudela sentitzen dugu leku horietan, gure ekimenak beti babesten dituzte, eta hau da horietako bat".

Mezu irakurketa

Gorostiagak azaldu zuen iazko ekitaldian Itziar Zubizarretari eskatu ziotela aldarri bat idazteko eta jendaurrean irakurtzeko. "Eta mezu hark komunikabideetan oihartzun polita izan zuenez, aurtan ere beste horrenbeste egitea erabaki dugu". Hala, oraingoan ipuin kontalarien "maisua" izan du aldarria idazteko eta irakurtzeko ardura, Juan Kruz Igerabide Sarasolak,



May Gorostiaga eta Juan Kruz Igerabide, eguaztenean, kulunkarrietan. X.U.

eta, ahazkoatasuna ardatz hartuta, *Tradiziotik* izeneko testua irakurri zuen (Ondoko taulan dago testuaren zati bat; osorik irakurtzeko, jo QR kodera).

Sehaska kantak, Kanadatik

Ekitaldiko berezitasuna, baina, amaieran etorri zen. Kanadako Berceurs Du Temps konpainiako Ilya Krouglikov eta Madeleine Guastavino aurkeztu zituzten, eta eurek eman zuten esku artean duten proiektuaren berri. Instalazio poetiko-artistikoa egin zuten: egurrezko kulunkari ba-

tzuk jarri zituzten kalean bertan, mantekin bertan eserita goxo egoteko, eta kulunkari horietako bakoitzak atzealdean bozgorailu txikiak zituen. Hala, ekitaldira bertaratu zirenek, amaieran, kulunkari horietan 83 hizkuntzatan grabatutako sehaska-kantak entzun ahal izan zituzten -2.000tik gora grabatu dituzte-. Begiak itxi, eta kantez gozatu. "Eta egun hauetan ibili gara proiektu honetarako lehengoz euskarazko sehaska-kantak grabatzen", adierazi zuen Ilya Krouglikovek.

Juan Kruz Igerabide: 'Tradiziotik'

"Garai batean, animalia guztiak zekiten mintzaten, bai halaber landareek; landareek oro, goroldioak izan ezik. Arrazoiak edo Logosak ez zuten hasieran hitz egiten; Mitoa soilik zen mintzo. Bide batez esanda, Ulisesen istorioak iragartzen du jada Logosa Mitoari gailenduko zaiola; ez da kasualitatez Atenea Ulisesen babesle, Zeusen burutik jaiotako jainkosa, gogoetaren eredu; ez dira kasualitatez Ulisesen ezaugarri nagusiak buruazkarra eta hizketan trebea izatea; horien bidez menderatuko du Ajax Telamonio (Mitoaren balio heroikoaren eredu) eta Akilesen armak eskuratuko ditu. Homerorengan bertan dago, beraz, gero Sokratesek loratuko duen ernamuina.

Goroldioa triste eta burumakur zegoen, konturatzen baitzen bera bakarrik zela mintzaten ez zekiena [...]"



Testua osorik irakurtzeko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

'Larramendi' eta 'Sorbeltzak' gaur ikusgai

Bi film labur horiek eskainiko dituzte Amaian (19:30); zuzendariek aurkeztuko dituzte lanak

X.U. ARRASATE

Iban del Campo zinema-zuzendariaren *Sorbeltza* izeneko azken lana eta Peryferyka taldeko gazteek -informazio gehiago *Puntua* aldizkariako 32. orrialdean- ekoiztutako *Larramendi* -Daniel Nespereirak zuzenduta- film laburrak emango dituzte gaur, egubakoitza, Amaia antzokian (19:30).

Larramendi filmak kontatzen du arratsalde batez ilobarekin basora joan eta hura gabe itzultzen den gizonaren istorioa, zorotzat hartzen duten Martzele Larramendiren eta bere biloba Bixentaren istorioa. Egileen esanetan, kontakizun horrekin, denborari buruzko hausnarketa sakonera daramatzate ikus-entzuleak. Izan ere, egileek dioten moduan: "Denbora urrea da, berunak beste pisatzen hasten den arte".

Iban del Camporen *Sorbeltza*, lanak, berriz, hiru pertsona barruan dituela itsasoratzen den belaontzi bat du abiapuntu, eta insomnio sukartsu batez eta askatasunaren beharraz hitz egiten du. Hala, Erika Olaizola, Joseba Apaolaza eta Miren Gaztañaga dira film horretako protagonistak. Zuzendariak bertan egongo dira lanok aurkeztzen.



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



Asier Agirre Aramaio alkatea, martitzenean, Goiena telebistako platoon. I.A.A.

"Hausnarketa prozesuan gaude; ea lortzen dugun epe ertainean herria biziberritzea"

Itsaraz proiektuaz, herriko etxebizitza faltaz, zerbitzuen beherakadaz eta zirkulazio arazoaz aritu da, besteak beste, Aramaio alkate Asier Agirre 'Harira' saioan; gaur izango da ikusgai elkarrizketa, 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean, Goiena telebistan

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO Agintaldi hasieratik Aramaio Udal Gobernuan badago ere, hiru hilabete baino ez daramatza Asier Agirrek (Suña, Aramaio, 1974) alkate karguan. Agintaldi honetako balorazioa egiteko "goitzxo" dela azaldu du *Harira* saioan, baina, dena den, ontzat jo du orain artekoa, lehendik zuen esperientzia eta duen lantaldea ikusita: "Herri oso gertu dagoen jendea sartu gara, oso jarrera onarekin, animoso eta gustura. Bai neu eta baita taldea ere".

Elkarrizketa osoan zehar behin baino gehiagotan azpimarratu du herritarren parte hartzea: "Esku zabalik hartzen dugu laguntzera datorren jendea. Proiektuak edo edozer gauza aurrera ateratzeko pertsonak behar dira. Pertsona horiek ekarpenak, lan-kidetzak... guk bideratu ahal

baditugu beste administrazio batzuetara, ongietorriak izango dira gauza guztiak".

Oraindik aurrekonturik ez

Aramaio da 2024ko aurrekontuak onartu ez dituen Debagoieneko herri bakarra, eta, alkatearen esanetan, atzeratu egin da aurrekontuak lantzeko prozesua agintaldi honetan lantalde berria duelako eta aurreko alkate Iban Herrarteren kargu uztea medio: "Udalean lan-karga handia dago, eta kanpo proiektu batzuek baldintzatzen digute gure lana. Orduan, berandu hasi gara".

"ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN SINESTEN DUGU, BAINA HERRI MAILAKO PROIEKTUETAN"

Lehentasunen artean, Suña eta Barajuen auzoetan gainerako auzoetan egin diren azpiegitura-lanak egitea dute helburu, eta euren asmoa da 2024aren amaieran edo 2025aren hasieran ekitea lanei. Aramaio alkateak aurreratu duenez, gehiago inbertitu nahi dute euskararen, kulturen eta berdintasunean: "Nahi badugu herri duina izatea, esparru horietan dirua sartu behar da".

Itsaraz proiektuaz

Aramaion pil-pilean dagoen gaia da Itsaraz parke eolikoarena. Aramaio Udalak Aramaio Bizirik plataformarekin batera urtarrilaren amaieran aurkeztu zituen herritarrek proiektuaren aurka sinatutako 600 sinadura baino gehiago, eta Agirrek dio ibilbide baten azken pausoetako bat dela sinadurena. Alegazioak ere jarri dituzte proiektuaren

aurka, eta "horiekin lortu dena da bi eoliko lekuz aldatzea".

Gehitu du proiektu horrek Aramaioendako ez dakarrela "ezer onik" eta ibilbide horretan guztian ikusi dutena dela interes ekonomiko batzuen ondorioz egin duten proiektua dela: "Guk ulertzen dugu Aramaio moduan horrelako proiekturik ez dugula behar. Guk energien esparrua ulertzen dugu. Energia berriztagarrietan sinesten dugu, baina herri mailako proiektuetan, baita herriaren eta herritarren hitzean. [...] Proiektu bat heldu da, aztertu egin dugu, jendeak parte hartu du, eta, hala, jarrera argi daukagu".

Autoak gaizki aparkatuta

"Aramaion isunik ez bada jartzen, jendeak ez du ulertzen", irizten dio alkateak autoak herrian gaizki aparkatzeari dagokionez. Haren ustez, herritarren gehien-goak errespetatu egiten dituzte zirkulazio arauak, baina betetzen ez dituztenak ez dira kontzientzia sortzen dituzten arazoez: "Arriskua sortzen du autoa behar ez den lekuan aparkatzea, eta autoa gaizki uzten duena da erruduna. Kontziente izan behar du jendeak".

Konponbidea isunak diren galdetuta, nabarmendu du kontzientziazten jarraituko dutela, eta, jendeak kasurik egin ezean, egongo direla isunak. "Gure esku ez dago isunak jartzearena. Edozeinek jar dezake salaketa. Ibilgailuen jabeek kontziente izan behar dute ertzainak pasatzen badira isuna jasoko dutela". Bizilagunak eta herrikideak errespetatzea eskatu du.

Zerbitzuen beherakada

Kinttelena janari denda itxtear da, komertzioak ixten, banketxeen zerbitzuan murrizketak... Arazoa administrazioak ekarri duen bidea dela azaldu du. Medikua zerbitzuaz ere mintzatu da: "Medikua bajaran egon den bitartean eduki dugun zerbitzuak ez dauka lotsarik. Gaixotasuna ez da antolatzen Osakidetza beharren arabera. Osakidetza moldatu behar da gizartearen

"EPE MOTZ-ERTAINEN LORTUKO DUGU AURREKONTUAK IZATEA ETA INBERTSIOA BIDERATzea"

arabera". Horren guztiaren ondorioa gizarteak daukala dio, baina gaia lantzen ari direla aurreratu du: "Geroz eta zerbitzu ahulagoak daude Aramaion. Dendak ixten ari dira, tabernak ere bai... Udaletik, behintzat, bagabiltza hori landu guran komunitate bezala indartzeko sistema bilatu nahian, eta talde polita dago. Hausnarketa prozesuan gaude; ea lortzen dugun epe ertainean gure herria biziberritzea. Ez da samurra izango".

Etxebizitza falta

Buelta bat ematen ari zaio etxebizitzaren gaiari Aramaio Udal Gobernuan. Agirreraren esanetan, euren helburua da "herrian gertzen diren seme-alabek" etxebizitza bat edukitzeko eskubidea izatea, erosita edo errentan: "Horrekin batera, alde zaharretan badaude zenbait etxe berri beharrenda daudenak, eta haiekin ere hartu-emanetan bagabiltza. Ea epe ertainean aukera horiek martxan jartzen ditugun".

Auzoguneetan Eusko Jaurlaritzak zenbait oztopo jarri dizkiela gaineratu du: "Nahi genuen baserri handietan lau etxebizitza atera ahal izatea, gehienez ere, metroen arabera, ulertzen dugulako leku oso handiak direla mantentzeko. Agian, senide gehiago daude eta etxea egin nahi dute. Eusko Jaurlaritzatik atzera bota ziguten proposamen hori, eta bi etxebizitza egin daitezke, gehienez ere. Gauza bera gertatzen da Ibarran etxebizitzak egiteko orduan. Ikerketa asko egin behar dira, eta ikerketa horiek guztiak egiten ari gara, zelanbait, nora jo behar dugun eta zer egin behar dugun ikusteko".

Gazte txokoa eta adineko zentroa

Duela gutxi sortu zen gazte txokoa, eta "oso pozik" dago Aramaio alkate proiektuarekin: "Hutsunea zegoen hor. 12 eta 16 urte arteko gazteek egoteko leku bat behar zuten. Behar dugu jendearen parte hartzea gai horrekin ere. Gazteak dira, gurasoak dituzte... Eta denok inplikatu gero, gazte horiek hezi eta haziko ditugu. Herriko kulturen etorkizuneko harriak dira haiek". Halaber, adineko zentroaz galdetuta, berriro jarriko dute martxan kudeaketa esleipenerako prozesua: "Espero dugu jarraitzea orain arte bezala".



2022an Aramaion egin zuten Korrika Txikia. GOIENA

Korrika pasatu ez, baina Korrika Eguna ospatu bai

Aramaioko Korrika batzordeak Korrika Txikia, afaria eta animazioa antolatu ditu gaurko, besteak beste; herriko eragileek eta Udalak bi kilometro erosi dituzte Araba eta Gipuzkoa arteko mugan, eta martxoaren 23an 01:54an hartuko dute lekukoa aramaiorrek

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO
Aramaiotik Korrika igaroko ez bada ere, arrastoa utziko du herrian Aramaioko Korrika batzordeak gaurko antolatu duen Korrika Egunarekin. Goizean goizetik hasi eta gauerdira arte egongo da zertaz gozatu.

11:00etatik 12:00etara herria kantuz jarriko dute Alaiak erretiratuen elkarteko abesbatzak eta Aramaio Herri Eskolako ikasleek. Eskola osoa arituko da kantuan, eta euskal kulturarekin lotutako abestiak kantatuko dituzte. Urtean pare bat aldiz egiten duten ekimena da -Euskararen Egunean egin zuten azken aldiz-, eta "euskal abestien transmisioa bermatzea" du helburu.

Herriko txokoak hartuko dituen Korrika Txikia izango da. Kasu horretan ere eskolako ikasleek hartuko dute parte, eta lekukoa eskurik esku ibiliko da kaleetan zehar, 14:30ean hasita. Iturizuri kalean hasi eta herriko plaza aldera hartuko dute. Ondoren, Ibargoia, Aita Gabriel, Pedro Inazio Barrutia eta Nardeaga kaleak zeharkatuko dituzte; azkenik, eskolan amaituko dute. Korrika Txikia biribiltzeko, *Harro herri*-ren koreografia dantzatu eta txokolate-jana egingo dute.

19:00etarako poteo-kalejira antolatu dute herriko trikitilari eta dantzarekin, herriko plazan hasita; gauerako, berriz,

afaria eta animazioa frontoian. 21:30ean *Zuk ein, zuk jan* afaria egingo dute, eta ondoren, bertso-saioa, karaokea eta mikro irekia egingo dituzte.

Aramaioko kilometroak
Herriko eragileek eta Udalak bi kilometro erosi dituzte. Martxoaren 23an, 01:54an, Landako bidegurutzean hartuko dute lekukoa eta bi kilometrotan eramango dute Iturzuri Emakume Elkarateak, Guraso Elkarateak, Aramaio Herri Eskolak, Papargorri Abesbatzak, Trikitixa Elkarateak, Lagun Artean Dantza Taldeak eta Txirritola Euskara Elkarateak. 02:03an, gatzagarrei pasako diete lekukoa.



KURTZETA GAIN PLATER TIROKETA ELKARTEA

Emitza "onak" Euskadiko Kopan

Mini foso modalitateko Euskadiko Kopa jokatu zuten domekan Gallartan Kurtzeta Gain plater tiroketa taldeko sei kidek. Beteranoetan Juan Luis Nafarrate hirugarrena izan zen eta Espainiako Txapelketarako sailkatu da. Bigarren mailan, berriz, Oskar Arrizabalaga ere hirugarrena izan zen; lehen aldiz igo zen podiumera. Argazkian, Arrizabalaga, eskuinetik hasita lehen.

Hartu daiteke parte San Martin jaietako lelo lehiaketan

12 urtetik gorako edonork hartu dezake parte lelo lehiaketan, bakarka edo taldeka, eta, gehieze ere, hiru lelo aurkeztu ditzake talde edo norbanako bakoitzak. Parte-hartzaileek sanmartinen inguruko mezu bat bidali beharko dute esaldi batean, euskaraz, eta leloak urtez urte erabiltzeko aukera eman behar duela jaso dute oinarrietan. Horrekin batera, ezin izango dira aurkeztu aurretik beste lehiaketa batzuetan sarituak izan diren leloak.

Egindako lanak udaletxean edo itxasokultura@gorbeialdea.eus helbide elektronikora bidalita aurkeztu behar dira, apirilaren 16a baino lehen. Sari bakarra egongo da, 100 eurokoa.

OHARRAK

Disko berria

Idoia Asurmendik gaur kaleratu duen *De amar y desandar* lana aurkeztuko du bihar 12:30ean, Sastiñan. Elkarrizketa, *Puntua* aldizkarian.

Batzar orokorra

Alaiak jubilatuen elkarteak irteera antolatu du apirilaren 4rako Gasteizera, Las Cuatro Torres elkartearen batzar orokorrera joateko. Izena emateko azken eguna: martxoak 23.

'Entre nosotras' filma

Entre nosotras filma izango da ikusgai, 19:00etan, kultur etxean, Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ASIER AGIRRE
ARAMAIOKO ALKATEA
'HARIRA' SAIOAN
MARTXOAREN 22AN, EGUBAKOITZA,
18:15EAN, 20:15EAN ETA 22:15EAN

DESCARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

23. KORRIKA



Aretxabaletako, Arrasateko eta Aramaioko kideak joan den domekan, Murugainen, Korrikari babesa ematen. KORRIKA BATZORDEA

Korrikaldiak, musika eta afaria, lekukoari begira

Umeen Korrika Txikiak emango dio hasiera egubakoitzari, eta arratsaldean Loramendi Korrika egingo dute, elkartearen 30. urteurrena gogoan; gauean, oster, 300 bat lagun elkartuko dira mahaiaren bueltan afaldu eta kantuan egiteko

Mirari Altube ARETXABALETA

Bihar, martxoak 23, goizaldean iritsiko da 23. Korrikaren lekukoa Aretxabaletara, Eskoriatzatik bueltan. Ordura arteko itxarondia girotzeko egun bete antolatu du herriko Korrika batzordeak, eta aretxabaletarrak horietan parte hartzera gonbidatu ditu.

Korrikaldiak

Korrika Txikiarekin ekingo die eguneko ekitaldiei. 10:30ean abiatuko da, Pausoka haur eskolaren aurrealdetik, azken urteetan legez, eta parte hartuko dute bertako umeek, Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunekoek eta Kurtzebarri Eskolako Haur Hezkuntzakoek. Handik Herriko Plazaraino joango dira, eta bukaeran mezua irakurriko dute.

Ez da izango eguneko korrikaldi bakarra. Izan ere, arratsaldean, 17:00etan, Loramendi Korrika egingo dute, elkartearen 30. urteurrena gogoan. Udaletxe zaharretik abiatuko dira eta proiektuetako kideek –ludoteka,

errefortzuak, Auzoko, Loratu...–eroango dute lekukoa eskuz esku; udaletxe zaharrea bukatuko dute ibilbidea; han, Lekaixoka bertso eskolako kideek gertatutako bertsoak abestuko dituzte.

Musika eta afaria

Arratsaldeko ekitaldiek ez dute etenik izango. Aretxarte merkatariaren elkarteari esker, neska-mutikoez eskulanak egiteko aukera izango dute 18:00etatik 20:00etara bitartean Durana kalean –euria eginez gero, plazan–; txapak eta ponpoiak egingo dituzte eta makillaje saioa ere izango dela iragarri dute. Bien bitartean, gaztelekuko kideek herria apainduko dute.

Ondoren, 19:00 bueltan, musikari egingo diote lekua Mitarte kalean. Josuk eta Okinak –Oihu taldeko kideak– emanaldia egingo dute, baita Zirrara taldeak ere, eta, bukatzeko, Eider Sanchez Xander bakarlariaren hyperpop doinuen txanda izango da.

23. Korrikari itxaroteko kantu afaria antolatu dute. 300 bat lagunek eman dute izena, eta euririk ez bada, behintzat, plazan elkartuko dira haiek; bestela, Iturrigorri pilotalekuan. Norberak eroandako jatekoarekin tripa bete, eta Aretxabaletako Upeide taldeak girotuko du mahaiaren bueltako egonaldia. Ostean, *Korrik(h)arroa* egingo dute.

Lekuko eramaileak

23. Korrika 03:14 inguruan sartuko da Aretxabaletan; Araba ibilbidetik, hain zuzen ere. Bi kilometro egingo ditu herrian eta hamazazpi elkartek hartuko dute lekukoa; hona hemen horiek errenkadan: Mondragon Assembly, Aretxabaletako Lanbide Eskola, Copreci, UDA, Mugimendu Feminista, Pausoka haur eskola, Arizmendi Ikastola, Loramendi elkartea, elkarre gastronomikoak, Kurtzebarri eskola, Kurtzebarri BHI, Udala, Gazte Mugimendua, Kuartela, Aretxarte, Arteman eta Huhezi. Antolatzaileek eskatu dute segurtasuneko peto horia janzteko lekukoa hartuko den puntuetara joan-etorria egiteko, eta lekuan zain egoteko, baita linternak erabiltzeko eta beharrezko neurriak hartzeko ere.

Lekukoak Arrasateko bidea hartuko du gero, 03:27 bueltan, baina aretxabaletarrek, indarrak berreskuratzeko, txokolate beroa izango dute: gaztetxoek Gaztelekuan, eta gainerako herritarrek, Muru Alde elkartearen aurrealdean.

300 LAGUN INGURU ELKARTUKO DIRA UPEIDE TALDEAK GIROTUKO DUEN KANTU AFARIAN

Palestinako genozidioaren aurkako mozioa onartu dute

Mugimendu Feministak aurkeztu zuen osoko bilkuran eta EH Bilduren aldeko botoak jaso zituen

M.A. ARETXABALETA

Palestinako genozidioaren aurkako mozioa aurkeztu zuen Aretxabaletako Mugimendu Feministak eguazteneko ohiko osoko bilkuran, eta, besteak beste, eskatu zuten berehalako su-etena, Gazako zerrendan laguntza humanitarioa sartu eta emango dela ziurtatzea, biztanleria zibilaren aurkako eraso guztiak salatzea eta Israelgo Gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea. EH Bilduk babesa eman zion horri. EAJK, oster, adierazi zuen hainbat puntu igarri zituena

tuela faltan mozio horretan eta Jaurlaritzaren interpelatu arren Europako Gobernuak duela zeresana. Hala, beste adierazpen bat aurkeztu zuten, baina EH Bilduk aurka bozkatu zuen, "motz" geratzen zela iritzita, eta ez zen onartu.

Zerbitzuen luzapena

Bestalde, onartu egin zuten etxerik etxeko laguntza zerbitzua eta Ibarra kiroldegiko zerbitzuen, kirol jardueren eta koordinazioaren eskaintza luzatzea beste urtebetez.



YAAKAR ELKARTEA

Ikasleak Yaakar-i laguntzen

Yaakar elkarteak Senegal abian duen proiektuaren berri eman eta laguntzeko jaialdia antolatu zuten eguaztenean Kurtzebarri BHIko ikasleek, bigarren. Eskola materiala bidaltzeko diru-bilketa egitea zen helburua, eta, horretarako, pintxo-postuak jarri zituzten, eskumuturrekoak saldu eta bizikletak zozketatu. Elkarteko kideak oso eskertuta daude.

Aste Santuko elizkizunak prest dituzte parrokan

Erramu-domekako elizkizunekin emango diote hasiera Aste Santuari parrokan aste bukaeran; zapatuan, ohi legez, 19:00etan izango da meza, eta domekan, 12:30ean. Astelehenean, penitentzia egiteko aukera izango dute eliztarrek, 19:00etan. Gero, Aste Santu betearen murgilduko dira: eguenean, Jaunaren azken afaria izango dute gogoan, eta egubakoitzean, Jaunaren nekaldia; biak, 19:00etan. Egun horretan, gainera, gorespenak otoitz egingo dituzte 10:30ean eta gurutze bidea egingo dute 11:00etan, parrokan. Martxoaren 30ean, 19:00etan, Pazko gaubeila egingo dute, eta hurrengo egunean meza nagusia izango da, 12:30ean.

Literatura lehiaketa abian, urteurrena gai hartuta

Aretxabaletan bizi edo ikasten duten 8 eta 16 urte arteko neska-mutikoendako lehiaketa deitu du Loramendik, beste urte batez, eta, oraingoan, elkartearen 30. urteurrena hartu du ardatz; lanak apirilaren 26rako aurkeztu beharko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Loramendi elkartearen 30. urteurrena ospatzen dabil eta 28. Literatura Lehiaketa ere horren bueltan antolatuta dute. Aretxabaletan bizi edo ikasten duten Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasle guztiek izango dute lanak aurkezteko aukera –bakarka zein taldeka; hiru, gehienez–, eta horretarako azken eguna apirilaren 26a izango da.

Elkartera gerturatzea helburu

Umeen eta gaztetxoaren artean literatura sustatzea du helburu lehiaketak; aurten, gainera, Loramendira gerturatzea ere gura dute: "Hainbat sailetan jarri ditugun gaiak elkartearekin dute zerikusia; izena ematen dion Joakin Arana *Loramendi* poe-tarekin, esaterako. Horren gainean idazteko informatu egin beharko dute, eta pentsatu dugu Loramendira hurbiltzeko modu bat izan daitekeela".

Generoei dagokienez, arrakasta dutenak errepikatuko dituzte: ipuinak, bertsoak eta deskribapenak, besteak beste. Berrikuntzaren bat edo beste ere badago: DBHko azken ziklokoek memeak aurkezteko aukera izango dute.

Lan horiek guztiak Loramendik Durana kalean duen bulegora eroan beharko dira –gaian jarrita *Loramendiren XXVIII. Literatura Lehiaketa*–, edo helbide elektronikoa erabilita bidali: euskara@loramendielkartea.eus.

Sariak, maiatzaren 16an

Ziklo eta kategoria bakoitzean sari bakarra banatuko dute: Aretxarteko dendetan gastatutako bonuak. Epaimahaiak lan horien maila egokia ez dela iriziz gero, ez da saririk banatuko, baina aipamenezko sariak egon daitezke. Sari-banaketa ekitaldia maiatzaren 16an egingo dute.



Ikasle bat, literatura lehiaketarako lan bat idazten hasi berri. MIRARI ALTUBE

Lehiaketaren oinarriak

Adinaren arabera eskatutako kategoriak eta horietako gaiak.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak

- **Deskribapena.** Gaia: euskara animalia bat balitz, nolakoa izango litzateke? Bi orri, gehienez.
- **Bertsoa.** Gaia: Loramendi elkartearen 30. urteurrena. Bertso bat zortziko txikian edo bi koplak.
- **Ipuina.** Gaia: Joakin Arana *Loramendi*-ren istorioa. Bi orri.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak

- **Deskribapena.** Gaia: euskara animalia bat balitz, nolakoa izango litzateke? Bi orri, gehienez.
- **Bertsoa.** Gaia: Loramendiren 30. urteurrena. Bertso bat zortziko txikian edo handian.
- **Elkarrizketa.** Gaia: Joakin Arana *Loramendi*-rekin. Bi orri, gehienez.

DBHko 1. eta 2. mailak

- **Deskribapena.** Gaia: nolakoa ikusten duzu euskararen etorkizuna? Bi orri, gehienez.
- **Gogoeta.** Gaia: Zer eskatuko zenioke euskarari? Bertso bat zortziko txikian edo bi koplak.
- **Ipuina.** Gaia: Aretxabaletera heldu berria zara eta Loramendi elkartera jo duzu. Bi orri, gehienez.

DBHko 3. eta 4. mailak

- **Poesia.** Gaia: Loramendiren 30. urteurrena. Bi orri, gehienez.
- **Gogoeta.** Gaia: Zer eskatuko zenioke euskarari? Bertso bat zortziko txikian edo handian.
- **Memeak.** Gaia: Loramendi elkartearen. Bi orri, gehienez.



NIRE USTEZ

MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA

Emantzipazioa, gaztea eta emakumea

Ez da berria gazteok emantzipatzeko zailtasunak ditugula entzutea; jakina da gurasoen etxetik geroz eta beranduago eta baldintza okerragoetan ateratzen direla. Faktore ugari dute eragina gazteen emantzipazio berantiarrean. Izan ere, etxebizitza erosteko zein alokatzeko prezio garestien eta egungo lan merkatuak eskaintzen dituen aukera urrien ondorioz, emantzipatzea utopia bihurtu da.

Beste zenbait joera ere agerian utzi dituzte azken ikerketek. Oso nabaria da generoari lotutako arrakala: emakumeak lehenago emantzipatzen dira gizonezkoak baino. Hala ere, iturri ezberdinetan kontrastatutako datu bitxi batekin egin dut topo: emakumeak lehenago emantzipatzen dira, baina bikotekidearekin edota lagunekin. Gizonek ere bikotekidearekin egiten dute, gehienbat; hala ere, bakarka emantzipatzen direnen ehunekoak handiagoak dira emakumeenak baino. Azken horrek gizonen eta emakumeen emantzipazio-eredu desberdinen berri ematen du. Zeintzuk izan daitezke datu horien faktore-eragileak? Badirudi gaztea eta emakumea izateak aukerak murrizten dituela.



IMANOL SORIANO

Insausti eta Betegi txapelkunak

Master Cup txapelketako pilota mistoko promes mailako txapelkunak dira Olatz Insausti antzuolarra eta Irati Betegi aretxabaleterra, 14-18 irabazita Marta Gomez eta Alejandra Bilyak bikoteari. Oso pozik ziren bukaeran: "Urduri egon gara eta partidu parekatua izan da. Orain, baina, oso pozik, aurreko finalean lortu ez genuen txapela irabazi dugulako".

Atzeratuta txoko feminista sortzeko prozesuaren saioa

Aretxabaletak emakumeen ahaldunderako txoko feminista sortzeko prozesuaren bigarren lan-saioa egitekoak ziren bihar baina atzeratu egin dute datorren hilabetera: apirilaren 13an, 09:00etatik 13:00etara, elkartuko dira, Arkupen. *Txokoa nolakoa eta zertarako behar dugu?* galderaren gainean jardungo dute Elhuyarrek gidatuta.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Nota onena ateratzeak ateak irekiko dizkit"

LOREA ARMENDARIZ MARTINEZ IKERLARIA

Londresen dago ikertzaile eskoriatzarra, Oxfordeko Unibertsitatean, hidrogenoa garraiatzeko eta gordetzeko material berrietan oinarrituta dagoen ikerketa egiten

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Lorea Armendariz (Eskoriatza, 1998) Fisikako gradua ikasi du Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean, eta Material Aurreraturen Ingeniaritza Masterra Euskal Herriko Unibertsitatean, Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Ikasketa horietan emaitza paregabeak lortu ditu eta orain fruituak batzen hasi da.

Ikasketa prozesua luzea izan duzu, eta ikasten jarraitzen duzu, ezta?

Luis Ezeiza herri eskolan egin nituen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; Bigarren Hezkuntza, berriz, Kurtzebarri eskolan, eta, ondoren, Zientzia eta Teknologia batxilergoa, Arizmendi Ikastolan. Gero, Leioara joan nintzen, Fisikako gradua ikastera lau urtez. Gradua amaitutakoan, urtebetez egon nintzen Ceit zentro teknologikoan praktikak egiten. Horren ostean, Material Aurreraturen Ingeniaritza masterra egin nuen EHU-n, Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Aldi berean, praktikak egin nituen ITP Aero enpresako ikerkuntza departamentuan; hegazkinen motorretan erabiltzen diren materialak ikertu nituen. Ondoren, master amaierako lana EHUko eMERG taldean egin dut (Materials Engineering Research

Group, Materialen Ingeniaritza Ikerketa Taldea). 2023ko apirila ezkerreko talde berean lanean nabil, ikertzaile, eta, masterra amaitu ostean, Oxfordeko Unibertsitatean ikerketa-egonaldia bat egiteko aukera suertatu zitzaidan. Nire ikerketa hidrogenoa garraiatzeko eta gordetzeko material berrietan dago zentratuta, eta hidrogenoaren eta materialen arteko elkarrekintza ikertzen duen Oxfordeko talde batean nago orain. Urtarriletik nago hemen, eta abuztura arte ibiliko naiz ikertzen.

Martxo amaite aurretik sari bat ere jasoko duzu graduazioan, Material Aurreraturen Ingeniaritza masterreko nota onenak zureak direlako, ezta?

Material Aurreraturen Ingeniaritza masterra egin dut; material berriak garatzeko zientzia eta teknologia berriak ikasi ditut. Master amaierako lanean, energia berriztagarriak inplementatzeko erronkan, hidrogenoa modu seguruan gorde eta garraiatzeko

"PROMOZIOKO NOTA ONENAREN SARIA EUSKALDUNA JAUREGIAN JASOKO DUT, HILAREN 26AN"

gai diren material berriak aztertzen aritu naiz. Eta bai, orain dela gutxi esan zidaten promozioko nota altuena lortu nuela; beraz, sari bat emango didate horregatik. Ekitaldia Ingeniaritza Eskolako graduazioan izango da, Bilboko Euskalduna jauregian, martxoaren 26an.

Zer da saria zuretzako? Espero zenuen?

Asko pozten nau saria jasotzeko, egindako lan guztiaren ispilu delako, eta esfortzu guztia zoriontzeko modu bat ere bada. Bilatu ez dudana zerbait da; hortaz, pozik nago, ez dudalako saria lortzeko presio hori izan. Egia esan, ez nekien saria existitzen zenik ere. Masterra egiten ibili nintzen urtean, egunero goizetan praktikak egiten nituen eta arratsaldeetan, berriz, bost orduz eskolak izaten nituen. Nire moduan klaseko beste ikaskide batzuk zeuden eta ahal genuena egiten genuen; gure helburua ikasgaiak gaintzea zen, ez genuelako denborarik egunean zehar ikasteko. Hala ere, nota onak atera nituen masterran, ikasten nabilena gustatzen ari zitzaidalako. Dokortzarako hautaketa prozesuan, espediente akademikoa eskatu behar izan nuen; rankinga agertzen zen, eta bertan ikusi nuen lehena izan nintzela. Geroago



Lorea Armendariz ikerlari eskoriatzarra Londresen, Oxforden. LOREA ARMENDARIZ

deitu zidaten esanez sari bat emango zidatela.

Ateak irekiko dizkizute aurrez egingandako lanak eta lorpenek?

Ba, egia esan, ikerketa munduan asko baloratzen den gauza bat da; lehiakortasuna handia da, eta curriculumak pisu handia du: notei, sariei, rankingei... asko begiratzen diete; horrenbestez, orain nagoen lekuan egoteko laguntza handia izan da. Ikerketa munduan bekak eta finantzaketa lortzea ezinbestekoa da lan egin ahal izateko eta ikerkuntza lanean aukera hobeak lortzeko.

Oxfordeko ikerketa-laborategian zer duzu esku artean?

Ingeniaritza Zientzien sailean, hidrogenoaren eta materialen arteko interakzioa aztertzen duten laborategi batean nago. Nire lana esperimental da; beraz, esperimentuak diseinatu, laborategian testatu, neurtu, eta gero, hartutako datuak aztertu eta ondorioak ateratzen ditut, zientzia-artikuluak idatzi eta argitaratzeko ondoren. Gaur

egun, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako H2MAT proiektu batean nabil lanean, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin eta beste enpresa eta zentro batzuekin kolaborazioan. Proiektuaren helburua hidrogenoa gorde eta garraiatzeko material berri bat garatu eta frogatzea da. Material konbinatu hori Arrasateko MUn fabrikatu dugu eta Oxforden testatzen ari naiz.

Epe labur edo luzean zein plan duzu?

Ikerlari izateko doktoretza egin behar da; hortaz, Oxforden doktoretza egiteko hautaketa prozesuan nago. Prozesua abenduan hasi zen, eta luzea da; hainbat fase pasatu behar dira eta finantzaketa lortzeko bekaren bat lortu behar duzu; hortaz, horretan nabil gaur egun. Ongi irtezen bada, Oxforden egingo dut doktoretza. Nire asmoa bide beretik jarraitzea eta hidrogenoarekiko erresistenteak diren materialak garatzea da, energia krisi honen alde nire ekarpena egin ahal izateko.

23. KORRIKA

Itzartukoak, Irunberrin

Itzartu Gazte Asanbladako kideek kilometroa erosi zuten Irunberrin –Iso gainetik Domeñura bideko kilometroa–. Hara joan, eta, iluntzean eta gau partean Iruñean ibili ostean, kilometrora joan eta testigua hartu zuten. Korrika egin ostean, Eskoriatzara egunez iritsi eta batutako guztiek batera gosalduta zuten.



ITZARTU GAZTE ASANBLADA

Leire Ratok borrokaldia izango du Combat Sambon

Atama Eskoriatza taldeko Leire Rato borrokalaria Combat Sambon Txapelketa Nazionalen izango da asteburuan, Madrilen, Tres Cantosko kiroldegian, senior kategorian lehiatzen. "Aste batzuk daramatzat Espainiako txapelketa hau prestatzen entrenamendu espezifikoeekin, eta postu ona lortzeko itxaropen handiarekin noa", dio borroka-

lariak. Honako hau gaineratu du: "Borroka-modalitate bete da, eta lurtean ere borrokatu daiteke. 59 kilo baino gutxiagoko kategorian borrokatzen naiz ni, eta gogoz eta motibatuta %100 emateko".

Horren ostean, apirilaren 20an, Donostian, MMA diziplinako borroka izango du kaiolan. AFL ligako lehia horretan, 60 kilo baino gutxiagoko borrokalarien arteko borroka hitzartua izango da, eta Jess Castroren aurka izango du Ratok borroka.

Lehen sorospenak egiten ikasi dute gurasoek

Amaia Sanchez eta Marina Madariaga erizainen eskutik, haurrengan lehen sorospenak nola egin ikasi zuten kultur etxean batu ziren gurasoek. Elkarrekin urtariletik hona antolatzen duen bigarren saioa da, eta, "gustura" daude erantzunarekin

Iñigo Barrena ESKORIATZA

Tipi Tapa Guraso Elkartek antolatuta, *Lehen sorospenak haurretan* saioa izan zuten astelehenean kultur etxean. Bi ordu iraun zuen saioan, haurrak egoera larrietan daudenean nola jokatu behar den irakatsi zuten Amaia Sanchez eta Marina Madariaga erizainek. Hitzaldi teorikoaz gain, panpina bat erabili zuten egoera praktikoak irudikatuz; esaterako, ezta-ri-trabatzea gertatzen bada zer egin behar den azaldu zieten, eta bihotz-biriketako geldialdia gertatzen denean RCP mugimendua behar bezala egiten ere irakatsi zieten. Era berean, intoxikazioen, alergiaren eta odol-jarioen harira nola jokatu ere azaldu zieten. "Oso sentsazio onarekin irten ginen saiotik. Egunerokotasunean gertatu daitezkeen arazoak ekarri zituzten eta oso modu sinplean azaldu zizkiguten", azaldu du Maite Santamariak, Tipi Tapa Guraso Elkarteko kideak.

Interes orokorreko saioa

Aurten sortu berri da Tipi Tapa elkarteak, eta, bide labur honetan, asteleheneko ez da izan antolatuta duten hitzaldi bakarra. Urtarrilerako solido bidezko elikadura osagarriari buruzko



Astelehenean kultur etxean egindako saioa. TIPI TAPA GURASO ELKARTEA

hitzaldia antolatu zuten, Ainitze Ondarrak dinamizatu zuena; biak ala biak arrakastatsuak izan dira. "Interes orokorreko bi gai dira; hau da, gurasoek gehien eskatzen dituztenak izaten dira, normalean. Beste hitzaldi batzuek ez dute hainbesteko arrakastarik izan, eta horiek ordaintzen direnean jendea etortzea nahi izaten dugu. Etorri edo ez, haurrekin aritzen garenez, beharrezkoa ikusi genuen horiek egitea, eta, zorionez, arrakastatsuak izan dira", dio Maite Santamariak.

Gustura erantzunarekin

Astelehenean egindako saioa eta urtariletako jendetsuak izan dira; adibidez, sorospentako saioan 30 lagun baino gehiago izan ziren kultur etxean. Tipi Tapa Gurasoen Elkartek ontzat eman du, herritarrengan piztu duen interesa ikusita. "Erantzuna oso ona izan da. Duela gutxi sortu berri den elkarteak gara, eta, bi hitzaldietara etorri den jende kopurua ikusita, oso sentsazio onarekin gelditu gara", adierazi du Santamariak.

Herriko energia egoera aztergai

Energia Bulegoaren baitan Debagoienean egiten ari diren hitzaldietan, Eskoriatzaren txanda izan zen. Trantsizio energetikoaren harira, Eskoriatzako herriaren egoera azaldu zuten eta etorkizunean izan daitezkeen aukerak errepasatu zituzten, eta, haien artean, energia-komunitateek izan dezaketen rola, besteak beste.



IMANOL BELOKI

Hurrengo 'Harira' saioan izango da Dorleta Elkorobarrutia

Debagoieneko alkateak protagonista izaten ari dira egubakoitzetako *Harira* saioan. Goiaz Arana kazetariak aurkeztuta, 2023-2027ko agintaldiko lehen elkarrizketak egiten ari dira Goiena telebistan. Hain zuzen, Dorleta Elkorobarrutia Leintz Gatzagako alkatea izango da hurrengo ataleko protagonista, datorren egubakoitzean, hilak

25-18:30, 20:30 eta 22:30-. Herriko kontuen gaineko galderak erantzunatu dituzte alkateak, eta herritarrek ere euren tartea izango dute galderak egiteko. Elkorobarrutiarendako galderak bidaltzeko azken eguna martxoaren 25 izango da, eta arratsaldeko hirurak baino lehen bidalita egon beharko dute. Hiru aukera daude galderak bidaltzeko: berriak@goiena.eus posta elektronikoko helbidera idatzita eta Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

LEINTZ GATZAGA | 19



Leintz Gatzagako gaztetxoak Korrika Txikian. JOSU BILBAO

Korrikaren lekukoa iristeko prest daude Leintz Gatzagan

Korrika iritsi bitartean, Korrika Txikiarekin eta solasaldiarekin berotu dituzte motorrak gatzagarrek

Iñigo Barrena LEINTZ GATZAGA

Bi aldiz igaroko da aurturteko Korrika Debagoienetik: lehenengoan Bergara eta Elgeta gurtzatu ditu, eta bihar, berriz, Leintz Gatzagatik sartuko da bailarara. Lekukoa noiz iritsiko zain, gatzagarrek hasi dira jada motorrak berotzen, unea iristean prest egoteko. Hala, joan den egubakoitzean Korrika Kulturalaren barruan bi ekintza izan zituzten: solasaldia eta Korrika Txikia.

Lehenik, testigantzak eta bizipenak partekatzen hasi zuten arratsaldean. Belaunaldi askotariko gatzagarrek elkarrekin ziren ludotekan, eta haurrek nagusiei haien bizipenen inguruko galderak egin zituzten; batez ere, euskararekin eta hizkuntzarekin loturikoak. Baina baita herriko bizitza buruzkoak ere. Nagusiek gerra ondorengo garaia ekarri zi-

tuzen gogora; nagusiki, euskara debekatuta zegoen garaia.

Berriketaldia ostean, Gatz Museotik herrigunera Korrika Txikia egin zuten gatzagar gaztetxoek. Lekukoa eskurik esku eraman zuten haurrek, eta ez zen girorik falta izan musikari esker. Behin Korrika Txikia herriko plazara heldu zenean, indarrak berreskuratzeko txokolatea eta bizkotxoak dastatzeko aukera izan zuten guztiek.

Lekukoa goizaldean iritsiko da Prestaketa lanak amaituta, Korrikaren lekukoa iristeko zain daude herritarrek, eta, hain zuzen ere, 02:10ean iristea aurreikusten da. Hiru kilometro egingo ditu lekukoak Leintz Gatzagako lurretan, eta bide horretan hamasei eragilek eramango dute eskurik esku lekukoa.

Julen Murua Mesonero BERGARA

Egutegian gorritz margotutako eguna da Erramu-zapatua bergararentzat, eta, urteroko legez, goizean goizetik hasi eta gauera arteko egitaraua izango dute herrian.

Goizeko izarra, feria

Feria izango da Erramu-zapatu goizeko protagonista nagusia, beste urte batez. Goizeko bederatzietan irekiko dituzte ateak, eta aurrean ere hainbat tokitan banatuta egongo dira feria osatuko duten postuak. Alde batetik, Ibargarai kalean jarriko dute abelburuen erakusketa, eta, gainera, Ibargarain bertan eta Simon Arrieta plazan ere egongo dira elikagai postuak. Artisautzari dagokionez, San Martin plazan egongo dira postuak; horrez gain, Eusko Labelako masail-pintxoaren postuaz gozatzeko aukera ere egongo da han. Seminarixoko patioa izango da feriaren hirugarren kokalekua, eta bertan makineria, burdindegia, landare erakusketa eta talo postuak egongo dira. Artisautzari, elikagai eta bestelako postuei dagokionez, 79 egongo dira: 40 artisau postu, 33 elikagai postu eta bestelako sei –Bergarako Aspace, Bergarako Odol Emaileak eta Mariaren Lagundia Ikastola, besteak beste–.

Ibilgailuen joan-etorria

Erramu-zapatuak eragina izango du trafikoa. Feria egin ahal izateko, Ibargarai hiribidea itxita izango da eta Boluko eta Elosuko trafikoa Zubieta kaletik bideratuko dute. Fraiskoizuri plaza ingurua ere itxita egongo da bi noranzkoetan.

Bestetik, gunehorietako aparkalekuak libratu egin beharko dira eta zapatu goizean San



Herritarrak iazko Erramu-zapatuko azokan. GOIENA

Bete-betea dator Erramu-zapatua

Abere- eta makineria-erakusketez gain, artisau postuak ere egongo dira ferian. Gainera, musikak eta dantzek girotuko dituzte herriko kaleak, eta, ohiturari jarraituz, herri bazkaria, txorimalo erakusketa eta gaztetxoentzako ekintzak ere egongo dira

Martin eskolako eta Ipintza Institutuko patioak aparkaleku moduan zabalduko dituzte.

Herri bazkaria, "arrakastatsua"

Iaz berreskuratu zuten 2019az geroztik pandemia dela-eta antolatatu ez zen Erramu-zapatuko

herri bazkaria. Txapa Irratiak eta Xaxau Konpartsak, Bergarako Udalarekin elkarlanean, antolatzen dute herri bazkaria Udal Pilotalekuan, eta aurrean ere "arrakasta handia" izan dela aitortu dute antolatzaileek: "Hamar-hamabost minutuan

saldu ziren sarrera guztiak. Jende askok nahi izaten du bazkarrira joan, eta ezin izaten ditugu guztiak gonbidatu". 450 sarrerako muga jarri zuten antolatzaileek, eta guztiak erosi ziren minutu gutxiren buruan. Hori dela eta, "pozik" daudela aitortu

dute antolatzaileek. "Nahiz eta jende askok kanpoan gelditu beharko duen", haientzat "oso aukera polita" da "hori guztia antolatu ahal izatea".

Menua aurreko urteetako antzerakoa izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Sarre moduan Bergarako azokako txorizo egosia eta humusa eskainiko dituzte, eta, horren ostean, oilaskoa patatekin izango dute plater nagusi gisa. Amaitzeko, postrerako, Bergarako gozotegietako pastelak dastatzeko aukera izango dute bertaratuek. Zeliakoentzat, berriz, ogia eta azkenburua egokituko dituzte eta arroznea izango dute azken plater gisa. Begetarianoei dagokionez, haien menua ere egokitu egingo dute, eta plater nagusi gisa fideua izango dute. Postreari dagokionez, haiek ere arroznea izango dute; kasu horretan, esne begetalarekin eginikoa. Edateko ura izango dute bertaratuek, eta nahi duenak eskuragarri izango du ohiko sagardo txotxa ere –Gipuzkoako Sagardoaren bi kupel jarriko dituzte–. Azkenik, ohiturarekin jarraituz, bazkalostea eta frontoiko irteera girotzeaz arduratuko dira Erramu txarangako kideak.

Txorimaloen erakusketa

Erramu-zapatuan urte luzez egitarauko klasiko izan den ekintzetako bat berreskuratzeko ahalegin berezia egin du Jardun euskara elkarteak. Txorimaloen lehiaketa da urtetik urtera ikusmin handia piztu duen egitarauko ekintzetako bat, eta horren aldeko hautua egin du elkarteak. Iaz, sormen-txokoa izan zen berrikuntza nagusia –6 eta 12 urte bitarteko gazteendako sortutako txokoa izan zen, sormena lan-

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com





Iazko Erramu-zapatuko herri bazkaria. GOIENA

tzeko helburuarekin-, baina aurtent txorimaloak izango dira berriro ere protagonista.

Alabaina, urteetan izan duen lehiaketa kutsua galdu egingo du aurtent, eta 27. edizioak, txorimalo lehiaketa beharrean, erakusketa eran izango du tokia Erramu-zapatuan. Martxoaren 15era arte izan zuen irekita ize-na emateko epea Jardunek, eta, guztira, zortzi taldek hartuko dute parte erakusketan. Erakusketa Ibargarai kalean jarriko dute, Miguel Altuna zaharraren aldera, animalien ondoan –orain arte, txorimaloak Ibargarai beste aldean egoten ziren-. Jardunetik gogora ekarri dute txorimaloak euskararen aldeko esaldi edo lelo bat izan beharko duela eta aurreratu dute partaideei eskerrak emango dizkiela aurrerago Seminarixoko sarrera batzuekin, merienda batekin eta zozketa batekin.

Kaleak girotzeko, musika

Abereak, elikagai postuak edota baserriko makineriak garrantzi handia izango dute Erramu-zapatuan, baina, era berean, musikak eta euskal kulturak ere izango dute euren tokia bergararren jaiegunean. Gaur, Erramu-zapatu bezpera eguna, bertso-saioa eskainiko dute Andoni Egaña, Jone Uria, Miren Artetxe, Amets Arzallus eta Saioa Alkaiza bertsolariek Seminarixoan; gai-jartzailea Ibon Leibar *Txinbo* izango da; hari laguntzen arituko dira Kopla Barik Bergarako bertso-eskolako kideak.

HAMAR-HAMABOST MINUTUAN SALDU ZITUZTEN HERRI BAZKARIKO SARRERA GUZTIAK: 450

Erramu-zapatu egunean bertan ere musikaz girotuta egongo dira herriko kaleak. Eguna has-teko, Bergarako Musika Eskolako trikitilariak kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Jarraian, 12:00etan, Aurtizko joaldunek girotuko dituzte Bergarako kaleak. 12:30ean, Bergarako Musika Eskolako dantzariak eta fanfarreek euskal dantzen emanaldia egingo dute Munibe plazan; euria egingo balu, Seminarixoa egingo litzateke emanaldia. Zapatu arratsaldean, 19:00etan, dantzaldi-erromeria ibiltaria egingo du Eingo taldeak; euria egingo balu, Munibe plazan izango litzateke. Eguna amaitzeko, Bad Souns System reggae taldeak emanaldia egingo du Munibe plazan.

Bestelako ekintzak

Feriako postuez eta musika ekitaldiez gain, beste zenbait

Erramu-zapatuko egitaraua

Feria, musika, tailerrak eta askoz gehiago izango dituzte bergararrek aurtengo Erramu-zapatu egunean. Goizean goizetik hasi eta gauera arteko ekintzak izango dituzte herritarrek, eta, beraz, jai giroa izango da nagusi herrian. Hauxe da martxoaren 22rako eta 23rako antolatutako egitaraua:

MARTXOAK 22, ERRAMU-ZAPATU BEZPERA

- **22:00** Bertso-saioa Seminarixoan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Jone Uria, Miren Artetxe, Amets Arzallus eta Saioa Alkaiza. Gai-jartzailea: Ibon Leibar *Txinbo*.

MARTXOAK 23, ERRAMU-ZAPATUA

- **09:00** Feriaren irekiera. Ibargarain, Simon Arrietan, San Martin plazan eta Seminarioko patioan banatuko da feria.
- **11:00**. Kalejira Bergarako Musika Eskolako trikitilariekin.
- **11:00**. Sendabelarrek egindako ukendu solidoa. Ekoudalatz mintegi ekologikoaren eskutik, San Martin plazan.
- **12:00**. Aurtizko joaldunak Bergarako kaleetan.
- **12:00**. Kandela tailerra eta erleen bizitzaren azalpenak panel didaktikoen bidez, Erlantz Olabarriaren eskutik. San Martin plazan.
- **12:30**. Euskal dantzen emanaldia Bergarako Musika Eskolako dantzari eta fanfarreekin, Munibe plazan –euria bada, Seminarixoan–.
- **15:00** Herri bazkaria udal pilotalekuan.
- **17:30-20:00** Realeko puzgarriak San Martin plazan –euria bada, Boluko frontoian–.
- **17:30** Zezentxoak Seminarixoko patioan.
- **19:00** Dantzaldi-erromeria ibiltaria Eingo taldearekin –euria bada, Munibe plazan–.
- **22:00** Bad Sound System taldearen emanaldia Munibe plazan.

ekintzak osatuko dute aurtengo Erramu-zapatuko egitaraua. Goizean hasita, 11:00etan, sendabelarrekin egindako ukendu solidoa nola egiten den erakutsiko dute Ekoudalatz mintegi ekologikoko Idurre Arangurennek eta Nerea Altunak; San Martin plazan izango da mintegia. Horren ostean, San Martin plazan bertan kandelak egiteko tailerra eta erleen bizitzaren azalpenak eskainiko

ditu Erlantz Olabarria erlezain bergararrak, panel didaktikoen bidez. Arratsaldea iritsi ahala, gaztetxoek Real Sociedad Fundazioko puzgarriez gozatu ahalko dute plaza berean; 17:30ean hasi eta 20:00ak bitartean egongo dira puzgarriak plazan, eta, euria egingo balu, Boluko frontoira eramango liriteke puzgarri horiek. Ordu berean, Seminarixoko patioan zezentxoak egongo dira.



BERGARA
izan, bizi, ekin



Begarako
Udala

Erramu Zapatua 2024



Erramu-zapatua, lau ahotsetara

Erramu-zapatuko lau protagonistak egun horri buruzko pertzepzioak izan dituzte hizpide: Ibon Leibar, Haritz Kortabarria, Carmen Etxeberria eta Erlantz Olabarria

"Bertso saioan denek ondo pasatzea da helburua"

IBON LEIBAR 'TXINBO' GAI-JARTZAILEA

Erramu-zapatuko egitaraua hasteko, bezperan, Kopla Barik bertso eskolak urteroko bertso saioa egongo du. Ibon Leibar bergararra izango da gai-jartzailea.

Esan liteke bertso saioa klasiko bilakatu dela?

Bai; urte pila bat goaz jarraian bertso saioa antolatzen. Egia da duela hamar bat urte geldialdia izan zuela bertso saioak. Hala ere, orain urtero egiten dugu, eta, gainera, beti edo ia beti bete egiten da.

Orduan, publikoak harrera beroa egiten dio saioari?

Bai, beti egiten digute harrera beroa. Sarrerak atera eta segituan erdia baino gehiago saldu ziren. Momentu honetan ez dakit zela doan salmenta, baina esango nuke ia guztiak salduta daudela. Ikusleen zati bat urtero etortzen den horietakoa da. Hala ere, beti dago norbait berria, lehen aldiz animatzen dena. Kanean esan izan didate zenbait pertsonak aurten joateko asmoa dutela. Horrek poza ematen du, jendeari

gustatzen zaio eta gauzak galdetzeraz etortzen dira. **Aurten, gainera, luxuzko kartela osatu duzue.**

Normalean, urtero egoten da luxuzko kartela. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzalluz... Horietako bat urtero egon ohi da. Aurten, adibidez, Saioa Alkaiza dator, duela hiru urte Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen bertsolaria. Bertsolariak aukeratzeko, bertso eskolako kideek hamar bertsolari aukeratzeko



IBON LEIBAR

dituzte, eta Udala arduratzen da hori kontuan hartuta saioa lotzeaz.

Urteko saio handiena da?

Bai, hau da handiena. Horrez gain, urtero gaztetxean Bergarako Txapelketa egiten da. Bestelako saioak ere badaude, auzoetako bertso bazkariak, solte antolatzen diren saioak, baina ez dute beste saio honen tamainarik.

Gai-jartzaile esperientziaduna zara jadanik, ezta?

Ez dakit noiz izan zen lehen urtea. Bertso eskolako kideek egin zidaten proposamena. Lehen urtean errespetua eman zidan, baina, azkenean, oso gustura ibili nintzen eta bertso eskolakoak ere gustura egon ziren. Handik aurrera, beti egon naiz hor. Urtean beste hiru bat saio egiten ditut, izan Arranon edo gaztetxean.

Nolako saioa izango da?

Urterokoaren antzerakoa izango da. Umoretsua izatea nahi dugu. Gaurkotasuneko gai batzuk egongo dira, baita umorea puntu hori bilatzen duten jokoak. Denek ondo pasatzea izango da helburua.

"Ganadua hobetuz joan da"

HARITZ KORTABARRIA ABELTZAINA

Ganadu feria da Erramu-zapatuko elementu garrantzitsuenetako bat. Torrena ganadutegiko Haritz Kortabarria aretxabaletarrak zenbait abelburu eramango ditu hara aurtengo edizioan.

Aretxabaletatik Bergarara abelburuekin; pozik horrelako plaza batean egoteko aukerarekin?

Bi, oso gustura joaten gara halako plazetara. Izan Erramu-zapatua, Arrasateko santamasak edo aurkezten garen beste edozein txapelketa, gu gustura ibiltzen gara. Pozik gaude aukerarekin.

Horrelako lekuetan abelburuak erakusteko aukera izatea garrantzitsua izan ohi da?

Bai; azkenean, lanean ze motatako animaliekin gabiltzan erakusteko aukera polita izaten dira horrelako plazak. Gustatu egiten zaizkigu animalia horiek, eta, egia esan, esango nuke horietako batzuk erakusteko modukoak direla.

Ez da zuen lehen aldia, ezta?

Ez da gure lehen urtea, ez. Ez dut gogoan zein urtetan izan zen Erramu-zapatura joan ginen lehen aldia, baina esango nuke gutxi gorabehera 10-15 urte pasako zirela jadanik.

Denbora tarte horretan zelako garapena izan da?

Egia esan, ganadua hobetzen joan da urte hauetan guztietan. Lehengoak baino handiagoak dira, kilo gehiago dituzte, hanka hobeagoak eta itxura politagoak dira. Alde horretatik, asko nabaritzen da baserritarren eta arraza elkarteen artean egin den lan guztia. Denon artean egindako lanaren emaitza dira, finean, hobekuntza horiek.



HARITZ KORTABARRIA

Jendeak harrera ona egiten dio ganadu ferari?

Bai, jendeari asko gustatzen zaio animaliak ikustea, baserritarrei zein kalean bizi direnei. Haurrei ere asko gustatzen zaie eta jende asko ibiltzen da. Eguraldiak laguntzen badu, askoz hobeto.

Zelan aukeratzeko duzue zein abelburu eraman?

Lehenik eta behin, txahala egiteko zein prozesutan dauden begiratzen dugu. Txahala edukitzeaz daudenak baztertu egiten ditugu, arriskutsua izan litekeelako. Orduan, txahala edukitzeaz ez dauden horien artean gustukoena aukeratzeko ditugu, handienak edo egoera onenean daudenak. Batzuetan, txahalak ere eramaten ditugu.

Aurten eramango dituzue txahalak hara?

Aurten ez ditugu eramango. Errazagoa izaten da txahalik gabe joatea. Behiak ohituta daude kamioitik igo eta jaistera, baina txahalei kostatu egiten zaie.

Manso Optika

Ondo ibili Erramu-zapatuan!

WWW.OPTICAMANSO.COM • 943 76 27 86

IRIZAR PASEALEKUA 2, BERGARA

RPS: 88/23

ESTELLA

FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Disruitatu Erramu-zapatuan!

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

"Gu ere kalera ateratzeko eguna da"

CARMEN ETXEBERRIA NEKAZARIA

Ganaduz gain, lehen sektoreko beste ofizioek ere presentzia izaten dute egunean zehar. Salmenta postuetan ikusten da hori. Carmen Etxebarria bergararrak aurten ere postua jarriko du.

Gogotsu zaude Erramu-zapaturako?

Bai, gogotsu nago eguna iristeko. Egun oso polita izaten da Erramu-zapatua, gustura ibiltzen gara.

Halako azokak garrantzitsuak izaten dira zuentzat?

Esango nuke halako azokak garrantzitsuak direla lehen sektorean jarduten dugun guztiontzat. Historikoki ganaduak izan du garrantzi handiena Erramu-zapatuan. Ganadua izaten zen egun horretako izarra, eta indar handien zuena. Hala ere, denborarekin galtzen joan da hori, oraindik ere presentzia nabarmena izaten duen arren.

Ganaduak pisua izan arren, zuek ere hor zaudete.

Bai; azkenean, gu ere lehen sektorearen parte gara. Ganadurik ez daramagun arren, ortuan eta baserrian dagoena eramateko aukera izaten dugu. Orduan, esango nuke gu ere kalera irteteko eguna dela Erramu-zapatua. Lehen sektoreko produktuak darabiltzagu eta hor egotea garrantzitsua da.

Ze produktu eramango dituzue aurten?

Baserrian ekoizten duguna. Barazkiak eramango ditugu, baita baserrian egiten dugun ogia ere. Barazkiak, batez ere, hosto berdekoak izango dira: letxugak, azken eskarolak, espinakak eta porruak. Denboraldiaren amaiera honetan gelditzen diren barazkiak han izango ditugu.



CARMEN ETXEBERRIA

Ze aurreikuspen dituzu?

Daukaguna eramaten saiatuko gara, baina eguraldia da gehien arduratzen nauena. Ez dakit zein iragarpen dagoen eginda, baina horrek markatuko du jende gehiago edo gutxiago egotea. Horri begira gaude gu. Bestela, pozik gaude, eguna iristeko zain. Esperantzarik ezin da galdu.

"Gauza didaktikoak egiten eta erakusten ahalegintzen naiz"

ERLANTZ OLABARRIA ERLEZAINA

Lehen sektorea zabala da, eta askotariko kontuak aurkitu daitezke Erramu-zapatuan. Aurten, Erlantz Olabarria erlezainak kandela tailerra eta erleen bizitzaren inguruko azalpenak eskainiko ditu.

Ez da zure lehen aldian Erramu-zapatuko egitarauan.

Ez; hara joateko ohitura daukat. Badirudi apartatu bat dagoela hor niretzat gordeta. Gauza didaktikoak egiten eta erakusten ahalegintzen naiz. Erleek zenbat produktu ahalbideratzen dizkiguten erakustea gustatzen zait, ez dutelako soilik ezta ematen. Ezta, argizaria eta propolia ematen digute; ziztaden pozoia ere erabiltzen da. Modu didaktikoan jendeari gauza horiek erakustea gustatzen zait.

Aurten, gauza baten faltan bi egingo dituzu, ezta?

Bai; kandelen tailerra eta erleen bizitzaren inguruko azalpenak emango ditut, panelen bidez. Erlezainok naturalki egiten dugu hori. Norbait galdezka datorrenean

erleen bizitza azaltzen diogu, eta jendea interesgarria egiten zaio. Guretzat oso sinplea den zerbait da, egunerokotasunean bizi dugu, baina jendearentzat ez da horrela, eta gustura entzuten dituzte.

Polita da horrelako egun batean azalpen horiek emateko aukera izatea?

Oso polita da. Landu egiten duzu hori, zure ingurua lantzen duzu. Horrelako gauzei esker ezta edo argizaria saltzeko orduan jendeak ezagutu egiten zaitu. Esango



ERLANTZ OLABARRIA

genuke zirkularra dela: nik haiei azalpenak ematen dizkiet eta gero haiek dira nigana jotzen dutenak.

Harrera ona izaten duzu?

Bai; orokorrean, postu bisitatuenetako bat izaten da. **Liztor asiarraren aurkako kanpainan murgilduta ibili zara; zelan doa hori?** Hasita gaude. Aurten, astebete geroago hasi gara, baimen kontuengatik. Atzo eskuratu nituen datuak, ostegunetan eskuratu ditut aurten datuak. Modu horretan, datuak azokara eramateko aukera izango dut, erlezainok dugun arazoaz azaldu ahal izateko. Kanpaina gogor doa; esango nuke egun gutxian 100 erreginatik gora akabatu ditudala. Erlezainok ez dugu batere erraza azkenaldian. Gainera, ez da soilik liztor asiarraren kontua. Bada beste akaro bat, barroa izenekoa, guretzat kaparra izango litzatekeena dena erleentzat. Erleak xurgatu eta ahuldu egiten ditu. Aurten, erlauntzen %70 galdu dut barroaren erruz.


LOREA ALBENIZ
 ESTETIKA ZENTROA
 aholkularitza eta tratamendu estetikokoak
 665 02 13 52
 Toki Eder plaza 5, behea, Bergara
Ondo ibili ferian!


ALMACENES LASCAR
 GASOIL BANAKETA • OLIOAK (REPSOL) • AD BLUE •
 OLIO ALDAKETAK • PNEUMATIKOAK ETA GARBIKETAK
Disfrutatatu Erramu-zapatua!
 a.laskar@laskar.es • www.laskar.es
 Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11


laskurain
 ITURGINTZA_FONTANERIA
 Erreformak - Zoru erradiatzaileak
 Elbarritasun egokitzapenak - Galdara aldaketak
 Iturgintza lanak orokorrean
Gora Erramu-zapatua!
 Barrenkalea 44 • 20570 BERGARA Gipuzkoa
 ☎ 943 76 24 89 - 610 20 54 99


itesa
Ondo ibili ferian!
 BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Palestinako "genozidioa" salatu dute, ñabardurekin

Palestinak bizi duen "genozidioa" irmoki salatu eta "Israelen inpunitatea" amaitzeko Martxanterak talde feministak aurkeztutako mozioa babestu zuen EH Bilduk; EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren eta beste mozio bat proposatu zuten

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Palestinak bizi duen egoera salatu zuen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Bi mozio landu zituzten: batetik, Martxanterak talde feministak aurkeztutakoa; eta, bestetik, EAJk eta PSE-EEK aurkeztutakoa. Palestinaren "genozidioa eta Israelen inpunitatea" amaitzea eskatzen zuen Martxanteren mozioak egin zuen aurrera, EH Bilduren aldeko botoekin eta oposizioaren abstentzioarekin.

"Argi" hitz egin "bharra"

Martxanteren mozioa bere egin zuen EH Bilduk, Palestinako herria bizitzen ari den "genozidioa" lehenbailehen geratu eta Israelen "inpunitatea" amaitzeko: "Uste dugu Martxanteren mozioan argi eta garbi hitz egiten dela, gauzei bere izenarekin deitzen zaiela. Hori da gizartea eskatzen ari dena; horren adierazle da atzoko [domeka] Donostiako protesta", dio EH Bilduko eledun Maite Usabiagak.

Europar Batasunak Israelekin duen harreman oro etetea ezinbestekoa dela uste du EH Bilduk: "Giza eskubideak etengabe ari dira urratzen, eta hori oinarriko arrazoi bat da Europar Batasunak Israelekin harremanak eten ditzan; harreman mota guztiak, komertzialak eta, bereziki, armekin zerikusia dutenak".

EAJ eta PSE-EE, abstenitu

EAJ, bestalde, abstenitu egin zen Martxanteren mozioaren aurrean eta nahiago izan zuten jeltzaleek beste testu bat aurkezte, sozialistekin batera adostutakoa. Honako hau adierazi zuen EAJko Mikel Letek: "Erabateko gaitzespena agertu nahi dugu talde bezala Israelek Gazaren aurka erakutsitako indarkeria krudel eta masiboaren aurrean. Baita ere erabat gaitzesten dugu Hamasek urriaren 7an Israelen aurka burututako



Martxantereak Palestinaren gainean aurkeztutako mozioaren eztabaida. J.B.L.

AHO BATEZ ONARTU ZEN AGORROSINGO FITNESS ETA PISU LIBREEN GELAN HOBKUNTZAK EGITEA

atentatua. Nazioarteko komunitateari exijitzen diogu Israelen eta Palestinaren arteko gatazkan esku hartu dezala, Gazako biztanleria jasaten ari den indarkeria geldiaraziko duen su-etena bultzatuz".

PSE-EEko Alberto Alonsok adierazi zuen PSOE "argi eta garbi" ari dela berba egiten auziaz: "Guk ez duguna egin behar da oztopatu edo kontra bozkatu elkartasuna aldarrikatzen duen edozein testu edo mozioaren kontra. Egia da herriko elkarte batek aurkeztu izanagatik ez dugula izan denborarik edo aukerarik denok eroso egongo ginatkeen testu bat adosteko. Hala ere, ez genuen uste bidezkoa zenik kontra bozkatzeko, eta horregatik abstenitu egin gara [...]. Espainiako Gobernuak eskatu du Israelekin indarrean dauden akordioak berrikusi edo

Israelekin harremanak apurto beharra dagoela, nahiz eta hori Europar Batasunaren esku dagoen. Bestalde, gaur bertan nazioarteko politikarako maila goreneko ordezkari sozialista espainiarrak, Josep Borrell, Israeli leporatu dio gosea ere gerrarako arma moduan erabiltzea. Eta, gainera, Pedro Sanchezek aurreratu du ekimena jarriko duela martxan diputatuen kongresuan Palestina estatu moduan errekonozitu dadin".

EH Bilduk EAJren eta PSE-EEren mozioaren kontra bozkatu zuen, gizarteak agintariei testu horretan jasotzen diren konpromisoak baino harago joatea eskatzen dietela argudiatuta.

Hobekuntzak Agorrosinen

Bilkura berean aho batez onartu zuten Agorrosingo kiroldegiko fitness gunean eta pisu libreen gelan "hainbat hobekuntza" egitea. Guztira, 230.000 euro kostako dira, eta bi guneetarako ekipamenduaren erosketara eta mantentzera bideratuko dute inbertsioa: "Erabilera handia duten bi gune dira, eta apustu ekonomiko garrantzitsua egin dugu, zerbitzua hobetzeko asmoz".



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Igamo, Beasaindik Pontevedrera

Lokatza Ziklismo Eskolako Igamo Packaging taldea denboraldi betean dabil. Espainiako Kopako bi probatan lehiatu dira dagoeneko, Nojan eta Beasainen. Hurrengo zita domeka honetan izango da, Pontevedran (Galizia); sei ziklista lehiatuko dira: kadeteetan, Ziortza Heredia, Aroa Saez, Maddi Oleaga eta Izar Ezkibel; gazte mailan, Itxaso Askasibar; eta 23 urtez azpikoetan, Itxaso Plaza.

Lau ekitaldi Sorturen Udaberri Feminista ekimenaren barruan

Bergarako Sortuk lau ekintza antolatu ditu Udaberri Feminista ekimenaren barruan; hitzaldiak, bakarrizketak eta bertsolariak izango dira protagonista. Martxoaren 25ean *Zaintza hirukoitza* izeneko hitzaldia egingo du Naia Kortaberria Garetxana adituak Irizar jauregian, 18:30ean. Hurrengo ekintza bakarrizketa musikatu izango da,

Euskara, gazteak eta beste piztia mitologiko batzuk izenburuarekin; apirilaren 12an izango da, kartzela zaharrean (22:30).

Maiatzaren 3an, umorezko bakarrizketa saioa eskainiko du Ane Lindanek Arrano tabernan (22:30). Eta, ekimena amaitzeko, bertso saioa antolatu dute Arrano tabernan, 22:30ean hasita: Nerea Ibarzabal eta Eli Pagola bertsolariak gonbidatu dituzte antolatzaileek, eta Jone Igartua arituko da gai-jartzaile lanetan.

OHARRAK

Bergarako euskara lantzeko ikastaroa

Euskalkiaren gaineko ikastaroa apirilaren 9tik maiatzaren 2ra izango da, eta eskolak martitzenetan eta eguenetan izango dira; hamasei ordu dira, eta prezioa, 15 euro. Gaur da izena emateko azken eguna: 943-76 44 53 edo euskaltegia@bergara.eus.

Lan-poltsa: kultura eta jaietako laguntzailea

Udalak kultura eta jaietako laguntzaile izateko lan-poltsa ireki du, eta eskaerak martxoaren 25era arte aurkeztu ahalko dira, modu telematikoan. Informazio gehiago: www.bergara.eus.

Hauteskundeak: posta bidezko botoa

EH Bilduk ireki du botoa posta bidez emateko aukera apirilaren 21eko hauteskundeetarako: Irala kaleko Bilgunean egongo dira apirilaren 16ra arte; martitzenetan 11:00etatik 13:00etara eta eguenetan 17:30etik 19:30era. EAJk ere zabalik dauka aukera: batzokian eman daiteke posta bidezko botoa, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 19:30era.

Ndank Ndank: Senegal ezagutzeko aukera

Azaroaren 7tik 16ra joango dira, eta, plazak mugatuak direnez, lehenbailehen izena ematea eskatu dute: 636 16 30 10.

23. KORRIKA

Ezkontzetako komunetan arreta jarri, eta oholtzara

Korrika Kulturalaren barruan, Kokoxa taldeak atzo iluntzean estreinatu zuen '150' obra, Seminarixoan. Ezkontza bateko komuneko askotariko egoeretan arreta jarri eta agertokira eraman dituzte; batez ere, umoretik. Antzerki talde amateurren laugarren antzezlana da

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Kokoxa antzerki taldeak 150 antzezlana estreinatu zuen atzo iluntzean Seminarixoan, Korrika Kulturalaren barruan. Kokoxa antzerki taldearen laugarren obra da atzo estreinatu zutena, inprobisaziotik abiatutakoa eta oso-osorik komun batean dagoena kokatuta. "Duela bi ikasturte hasi zen 150 proiektua, *Azala* sorkuntza espazioan. Inprobisazio batzuk egin genituen eta handik eratorri ziren komunean bizi izaten ditugun askotariko egoerak. Hari horiei tiraka erabaki genuen testuinguru zehatz batean kokatzea, eta hortik dator ezkontza bateko komunean kokatzearena", adierazi du obrako zuzendari Ana Abajok.

Inprobisaziotik, erabat

Obra oso modu inprobisatuan sortu zutela azpimarratu du Abajok: "Inprobisazioak graba-

tzen eta transkribatzen hasi ginen, eta, ondoren, josi egin genituen. Ideia interesgarrienak garatu genituen eta horren interesgarriak ez zirenak garbitu".

Pertsonaiak tartekatzen

Obrako antzezleetako bat da Garazi Olabarria: "Berria izan da niretzat, halako esperientziarik bizi barik nengoen. Obra berean pertsonaia bat baino gehiago interpretatzea berezia da; obra berean hainbat alditan itxura aldatzea, adibidez, oso kuriozoso da". Eta honako hau gaineratu du 150 antzezlanean *Arkaitz*-en eta *Gotzon*-en papeira egiten duen Unai Barrutiabengoak: "Beti geratzen zaizu zalantza hori, ea publikoak hasieratik ulertuko duen eszena batetik besterako pertsonaiaren aldaketa, eta horregatik sortu ditugu elkarren artean ezberdinak diren rolak. Baina

hori bai izan dela entseguetako buruhausteetako bat".

Eszenografia "oso minimalista"

Eszenografia "oso minimalista" da, obrako zuzendari Ana Abajoren arabera: "Maite Aristegik obra egin zuen etxean, eta hark jarri dizkigu konketa eta komuna; eta, gainera, egitura nagusia ere egin digu. Balia-bide gutxirekin asko egin dezakegula sinistu izan dugu aspalditik; horrez gain, bada denbora bat espazio mugatuetan antzezten dugula, antzezteko eremua zinta batekin mugatuz".

GAUR EGUN, ZORTZI KIDE DIRA KOKOXA ANTZERKI TALDEAN; '150' EGIN DUTEN LAUGARREN OBRA DA



Kokoxa antzerki taldearen azken entsegua, Zabalotegi aretoan. TXOMIN MADINA

Barrutiabengoak "nahiko ohituta" dago atrezzo minimalistetan antzezttera: "Beti izan ditugu baliabide gutxi, eta guri dago kigu agertokia janztea [Barre]". Olabariaren esanetan, irakasleak askotan proposatu izan die espazio txikietan antzezteak: "Askotan inprobisatu izan dugu karratu batekin; natural irteten zaigu dagoeneko".

Obra espazio horren txikian eta baliabide gutxirekin egitea "arriskutsua" ere badela onartu du Abajok: "Erritmo bizia behar du, kontu interesgarriez berba egin behar da. Baina lehengai izan diren inprobisazioak oso aberatsak izatera, erraza izan da gidoia egitea; hori bai, bidean

izan ditugu oztopoak eta denboran luzatu egin da estreinaldia... Baina listo, heldu da; desiratzen gaude jendeari erakusteko".

Ondo pasatzea helburu

Kokoxa antzerki taldekoak amateurrek dira, eta, hamabost kiderekin sortu bazen ere, gaur egun zortzi kidek osatzen dute. Hain zuzen, taldea egonkortuta dago eta euren arteko harremana "oso estua" da. Hori bai, argi dute ondo pasatzea dela euren helburua: "Herrikideei espektatibak jaisten aritu gara azken egunotan... Badakite zertarako igotzen garen oholtzara. Ez dugu uste teknikoki epaituko gaituztenik; edo bai... eta zer?".



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Euskaraz harro

Iritsi da 23. Korrika. Iritsi da ilusioz, emozioz eta motibazioz betetzen gaituen lasterketa erraldoia! Badakigu edozein ordutan lekukoak aurrera jarraituko duela AEK-k antolatutako ibilbidean zehar. Heldu da, bi urtetik behin gertatu bezala, euskararekin lotutako frustrazio guztiak gure motxilatik kendu eta motxila hori motibazioz eta indarrez betetzeko momentua! Heldu da herri bat garela berresteko momentua! Hala, herria harro dago eta, laster, harrotasunez gehiago bustiko gara.

Aurtengo Korrika etorri da eta laster amaituko da, Baionan, baina euskararen komunitatea ez da geldirik geldituko. Apirilaren 22tik 28ra *Harrotze astea* iritsiko da Euskal Herria, eta euskaldunon harrotasuna kalera aterako dugu. Kalean euskara gehiago ikusiko dugu eta euskaldunok Euskal Herrian euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea dugula ikusiko eta aldarrikatuko dugu.

Korrikak motibazioz eta indarrez bete digun motxila are gehiago beteko da eta gure herriaz harroago egongo gara. Harro dago herria eta Euskal Herria Euskaraz izango da!



J.B.L.

Kantuan adierazi dute esker ona

Mendeurrena ospatu ostean, Bergarako Orfeoik berriro heldu dio ohiko martxari; horren adierazle da martxoaren 16an Mariaren Lagundiko elizan eman zuten kontzertua. Herritar orori irekia, Orfeoiko bazkideei eskerrak emateko kontzertua izan zen, abesti elizkoiekin. Orfeoi Gazteak bi

pieza abestu zituen, eta, ondoren, helduen txanda izan zen, Aitor Biainen zuzendaritzapean eta Eli Mendiaraz piano-jolearekin. Ekainaren 1ean Bergarako Musika Eskolako jai nagusian abestuko dute eta ekainaren 29an kontzertu sinfonikoa emango dute San Pedro elizan.

KONTU KONTARI

"Herria maitatu dezatela esango nieke gazteei"

JEXUX ETXEBERRIA GANTXEGI

Herriko aguazila izan da 35 urtean 2014an erretiratu zen arte. Hainbat funtzio bete ditu; adibidez, uraren kontrola. Afiziotzat, berriz, bideokamerarekin aritzea izan du

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarría ANTZUOLA

Oroitzapenak, bizipenak, kame-
ra aurrean baino gehiago ha-
marretako edo bazkari on baten
ostean etortzen direla dio Jexux
Etxeberria Gantxegi (Antzuola,
1951) antzuolarrak, baina ondo
baino hobeto gogoratu ditu ho-
riek guztiak Iñigo Ramirez de
Okariz herritarrek Goiena tele-
bistan eginiko elkarrizketan,
hautzarotik gaur egunera arte.

Bizkalatza baserrian jaio zen
Etxeberria, eta argindarraren
potentzia etxetik nola kontrola-
tzen zuten izan du hizpide: "Erro-
ta eta depositua genituen gure
sailean, eta burdinazko bolante
bat sukaldian: harria igotzeko
esaten zigutenean, eskuinera
ematen genion bolanteari". Di-
rudienez, bolanteari ematean
harri bat jasotzen zen errotan
eta horrek urari ematen zion
paso, eta argindarra sortu.
"Iluntzerako ja argindarrarekin
egoten ginen irratia entzuten.
Eta labadora ere jartzen zen!".

Herriko eskolan ere ibili zen,
eta, ondoren, Bergarako Semi-
nariora jo zuen; eta Elementalean
bukatu zuen. "Eskolan ibili egi-
ten nintzen, ikasi asko ez. Dena
den, Seminarioko irakasle ba-

tekin egin nuen topo Elementa-
lean, eta hark erakutsi zidan
liman eta. Ondo portatu zen
nirekin". Azaldu zuenez, asko
erakutsi zion hark, eta egun ere
baliagarri zaio orduan ikasitakoa.
"Gerora, Goizperren egon nintzen
lanean, baina Gasteizko lantegi
batera joan behar izan nuen".

Herriko aguazila

Langabezian izan zen ostean, eta
lagun batzuek jakinarazi zioten
Antzuolako aguazil postua irte-
teko zela. "Azterketa egin, eta
hartu egin ninduten. 1979ko irai-
laren 2an hasi nintzen." Haren
arabera, "beldurgarria" zen or-
duko udaletxearen barrua, eta,
batik bat, ganbarako oroitzapena
du gogoan. "Armairu handi bat
zegoen botatzeko liburuekin eta.
Kuxkuxeatzen hasi nintzen, eta
ohartu nintzen herriko artxiboa
zela". Are gehiago, horiek bota-
tzekoak zirela ohartzean, berres-
kuratu egin zituen. "Eskapada
latza izan zen hura!".

35 urteko ibilbidea egin zuen
aguazil, 2014an erretiratu zen
arte. Urte haietan guztietan,
ordea, hainbat funtzio izan zituen;
esaterako, ura kontrolatzea:
"Akiñabeiko iturburuko ura
hartzten zen Antzuolarentzat.

Farmazia alboko iturrian hartzen
nuen ura egunero pote batean,
ea kloro gehiago behar zuen edo
ez ikusteko". Hala bazen, Aitza-
ko depositura joaten zen kloroa
botatzera. "Ura zoragarria zen,
edateko gozoa".

Horrez gain, Etxeberriaren
arduretako bat zen herriko er-
lojua mantentzea ere -Errukiz-
ko Amaren parrokiaren dagoena-,
Udalarena baita. "Korda hartu
eta karrakarekin-eta han dauden
hiru harri jasotzen ziren kable
batekin; astero egiten nuen,
kargatuta utzi behar zelako au-
rretik"; alegia, erlojuko orduak
eguneratzen zituen astebetarako,
eskuzkoa baitzen orduan, alda-
tu zen arte.

Herriko jaietako hontzaren
jaitsierako sortzaileetako bat
ere izan zen. "Andoni Rodriguez
antzuolarra hontz-zalea zen, eta
txantxetan aritzen ginen ea zer-
gatik ez genuen egiten hontzaren
jaitsiera". Bada, esan eta egin,

"ZAHARTU EGITEN GARA DENBORAREKIN; BIDEOAN JASOTA, NOLABAIT, EUTSI EGITEN ZAIO HORRI"



Jexux Etxeberria Gantxegi antzuolarra. MARKEL ARRAYAGO

1991n izan baitzen lehen aldia.
"Donostiara joan ziren zurez
eginiko aterki-ontzi bat eroste-
ra, eta linternen bonbillak jarri
genizkion, hontza eman zezan".
Egungo hontzaren jaitsiera for-
malki, ordea, 2006an iritsi zen.

Bideokamera gainean

Bideokamera ere badu afizio
Etxeberriak: "1990ean erosi nuen,
eta grabazio asko egin ditut;
digitalizatuta ere badaude libu-
rutegian". Orain, filmatuta di-
tuenak erreparatzen dabil: "Den-
bora pasatu egiten da, eta nor-
bera ere zahartu egiten da;
halere, bideoan jasota, nolabait,
eutsi egiten zaio horri, noizbait
ikusteko. Urtetik urtera balio
handiagoa du".

Herriko aldaketak ere filmatu
ditu, eta Antzuolan urte gutxian
"gauza asko aldatu" direla dio:
"Herria oso polita gelditu da:

lantegi zaharrak bota dira etxeak
egiteko, errekan obra egin zen,
eta baita Torresoroa eraiki ere".
Eta "onerako" ez ezik "txarrerako"
aldaketak ere gogoan ditu:
"Esate baterako, GI-632 saihes-
bideko errotonda".

Aholku bat

73 urte ditu Etxeberriak, eta
herritarrei aholku bat emateko-
tan, "lehenengo gauzak gogoan
hartzeko" gomendatu die herri-
ko gazteenei: "Jende askok egin
du lan herri hau maite zuelako.
Bada, hori esan nahiko nieke:
herriaren inguruan pentsatu
dezatela eta maitatu. Hala eginez
gero, haien erara, baina aurre-
ra egingo dute".



Elkarrizketa bideoan
ikusteko, eskaneatu QR
kode hau poltsikoko
telefonoarekin.



Korrika Txikia eta 'Bizkarsoro' pelikula Korrikaren amaieran

Bukatzean da 23. Korrika, do-
mekan amaituko baita Baionan;
hala ere, Antzuolan izango da
zer egina oraindik ere, bi ekin-
tza antolatuta baitituzte datozen
egunetarako.

Korrika Txikia egingo du, alde
batetik, Antzuola Herri Eskolak.
Gaur arratsaldean izango da,

eta Errekalde auzotik aterako
dira lehen lasterkariak -seigarren
mailako ikasleak-, 15:30 aldera;
herrian beherantz egingo dute
ikasgelaz ikasgela lekukoa eskuz
esku pasatuz.

Beste alde batetik, Korrika
batzordeak antolatuta, Josu
Martinez zuzendariaren *Bizkar-
soro* filmaren emanaldia izango
da bihar, Torresoroa aretoan,
arratsaldeko zazpitan. Doakoa
izango da sarrera.

Jada salgai daude Aiherra-Antzuola bazkarirako txartelak

Apirilaren 13an, zapatua, ospa-
tuko da Aiherra-Antzuola seni-
detzearen 40. urteurrena, eta
dagoeneko salgai daude bazka-
rirako txartelak. Ohiko menuak
eta beganoak 22 euroko prezioa
du eta umeenak, berriz, 11 eu-
rokoa; ikasleek 18 eurotan es-
kuratu dezakete. Bibe platafor-
man daude salgai, eta apirilaren
8ra arte egongo da eskuratzeko

aukera. Bazkariari dagokionez,
Udal pilotalekuan izango da.

Ekintza gehiago

Ez da eguneko ekintza bakarra
izango, ordea. Eguerdian, esate
baterako, *Oiogorri* filmaren aur-
kezpena izango da Torresoroan,
eta, ondoren, berrogei urteotako
argazkien emanaldia egingo da.
Bazkal ondoren, berriz, Joxe
Mendizabal arituko da giroa
musikaz alaitzen, eta, amaitze-
ko, Itzal erromeria taldea, Zu-
rtegi plazan.

Insausti garaile izan da Master Cupeko promes mailan

Olatz Insausti pilotari antzuo-
larrak Master Cup Txapelketako
pilota mistoko promes mailako
finalean izan zen hilaren 17an,
Uarkapen pilotalekuan (Arra-
sate), eta, partida 14-18 irabazi-
ta, txapela eskuratu zuen. Irati
Betegi aretxabaletarra izan zuen
bikotekide eta Marta Gomez eta
Alejandra Bily izan zituzten
aurkari.

Urteko lehenengo irteera, Anboto eta Orixol aldera

Kantsatzeke mendi taldeak domekan egingo du urteko lehen irteera. Ohikoa dutenez sagardotegirako plana ere egin dute; Arrasateko Zabolainen hartu dute mahaia. Beste zortzi mendi irteera aurreikusten dituzte 2024rako

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Hemen da udaberria, eta Elgetako mendi taldeak aurkeztu du 2024ko irteeren egutegia. Domekan, hilak 24, egingo dute lehenengo. Sagardotegirako plana ere egin dute. "Anboto-Orixol aldera egingo dugu. Arrazolatik irten eta Anbotopetik Zabalaundira joko dugu. Zabalaundin Anbotorako bidea hartuko dugu, baina berehala eskuin aldera egin eta erdi ezkutuan dagoen Azkilarko begira iritsiko gara -Interneten bilatzeko, *Ezkilar* agertzen da gehiagotan-. Koba-tunel moduko bat da, zeharkatu eta Mariren etxepean utziko gaituena. Hura ikusita, Zabalaundira jaitsiko gara berriz, eta handik Orixolera. Behin tontorrera iritsita, dena behera Kruzetaraino". Lauzpabost orduko mendi buelta izango delakoan daude. Taldea 08:00etan abiatuko da, autobusean, Elgetatik.

Mendi buelta amaitutakoan, prest izango dute mahaia Arrasateko Zabolain sagardotegian. Aurreko urtean ere sagardotegiko bazkariarekin estreinatu zuten egutegia Kantsatzekekoek. Orduko hartan, Tolosako Uzturre sagardotegian izan ziren bazkaltzen. Harrera ona izan ohi du mendi irteeraren osteko mahaia bueltakoak ere. Mendi taldekoek zera esan dute: "Handik aurrerakoa beste kontu bat izango da".

Hiru irteera udaberrian

Domekako irteeraz gain, beste hiru antolatuko ditu Kantsatzeke mendi taldeak udaberrirako: maiatzaren 19an Aloñari itzulia egitea da asmoa; apirilko mendi irteera, berriz, Aste Santu ostean izango da. Hain zuzen ere, apirilaren 21ean, Arabako ipar-mendebaldean dagoen Ungino tontor ingurura egingo dute. Azkenik, eta udaberriko irteerei amaiera emateko, Legutio aldera egingo dute ekainaren 16an. Arlaban mendile-



laz urte sasoi honetan Uzturre aldera egindako mendi irteera.

DOMEKAN AUTOBUSEAN EGINGO DUTE JOAN-ETORRIA, PLAZATIK 08:00ETAN ABIATUTA

rroan dagoen tontorrik garaiana da Jarindo (895 metro).

Uztailean Debatik Zumaiara

Udarako irteera bakarra aurreikusitako Kantsatzekekoek. Uztailearen 21erako iragarri dute eta asmoa da Deba eta Zumaiara arteko bidea egitea. Gipuzkoari bira ematen dion GR-121 ibilbidearen laugarren etapa da. Kostaldeko zati hori balio geologiko eta biologiko handiko eremua da, eta paisaiaren ikuspegitik ere garrantzi nabarmena du. Biotopo babestua izendatua, Euskal Kostaldeko Geoparkearen barruan dago.

Udazkenean beste hiru irteera

Abuztuko etenaldiaren ostean, San Migel egunerako, irailak 29, iragarri dute urteko seigarren mendi irteera Kantsatzekekoek: Urdaibaiko itsasadarraren ez-

kerraldean dagoen Maiagara (403 metro) egingo dute.

Urriko irteera hilaren 27an izango da. Etxarri Aranatz aldera egitea da asmoa; Fagamen-dira (814 metro). Azarorako, aldiz, Gaintxipia (626 metro) eta Otaerre (663 metro) dituzte begiz jota. Izarraitz mendilerroko bi gailur dira.

Eguberri egunarekin, Intxortara

Azkenik, aurten ere Eguberri egunean Intxortara igotzeko dei egingo du Kantsatzeke. Hamarretakoak prestatuko dute puntan. 2016an eman zioten hasiera ekimen horri eta gero eta harrera hobea du elgetarren artean. Gabonetako egutegian bere lekua egin duen hitzorduetako bat da, zalantzarik gabe.

Egutegia prest da; hala ere, mendi taldekoek ohartarazi dutenez, baliteke urtean zehar aldatetako egotea egunetan zein ibilbideetan.

Interesatuak Kantsatzekearen Facebook profilean jarrai dezakete taldearen egunerokoa. Kantsatzeke@gmail.com helbide elektronikoa eta 690 74 00 56 Whatsapp zenbakia ere erabilgarri dituzte.

23. KORRIKA



IMANOL SORIANO

Korrikak harrera beroa izan du

2015a ezkerko Elgetatik pasa gabe zegoen Korrikak emozio handia eragin du herrian. Eguazten goiza berezia izan zen, inondik ere (Ikus 2, 3 eta 4 orriak). Aurreko barikuan Korrika batzordetik antolatutako ekintzek ere erantzun polita izan zuten. Korrika Txikiak sortutako giroak jarraipena izan zuten, ipuinekin, herri argazkiarekin eta Ad Libitum txarangarekin.

Ahuntzen mendi lasterketatik, Piñu Koku martxara

Arrakastatsua izan da Ahuntzen III. mendi lasterketa. 340 lasterkari inguruk hartu zuten parte, eta Oier Elorza azkoitiarra eta Oihana Kortazar elgetarra izan ziren irabazleak. Aurrez, Antxumeen lasterketa egin zen eta Unax Agirre eta Alazne Lozano elgetarrak izan ziren garaile. Mendi lasterketak emandakoa jaso dute Goiena.eus atarian ikusgai dagoen 21 minutuko bideoan.

Elgetako hurrengo kirol hitzordu garrantzitsua apirilaren 6ko Piñu Koku IV. enduro martxa izango da. Izen-ematea zabalik da, kirolprobak.com-en. 28 kilometroko ibilbidea izango du, eta 1.300 metroko desnibela.

Gaske Asanbladak Gaske Eguna iragarri du apirilaren 27rako

Egun osoko egitaraua aurkeztu dute. Areto futbol txapelketa antolatu dute 10:00etarako eta poteo girotua egingo dute 12:30ean. 14:30ean bazkaria egingo dute antzokian eta 16:30ean kontzertu akustikoa egongo da Espaloian. Gauak luze joko du; izan ere, lau talde eta DJ Kadirra izango dira antzokian, 22:00etan hasita. Taldeak dira Babesgabe, Fito Skins, Kaparrak eta Kordarota. Bazkarirako zein kontzertuetarako sarrerak salgai daude Haizea tabernan (Elgeta), Arranon (Bergara), Irati tabernan (Arrasate) eta Portalekuan (Elorrio). Prezioa 5 euro da -kontzertuak-; bazkariarekin, berriz, 20 euro.

OHARRAK

Artista-liburuen tailerra gaur liburutegian

Esulan-sormen saio bi izango dira: 16:30ean HH2-LH1 adineko umeendako eta 18:15ean LH2-LH6 adinekoendako. Aurrez eman behar da izena, liburutegian.

Behoko kaleko jaien aldeko udaberriko bingoa

Gaur, 19:00etan, udaberriko bingoa Ozkarbi elkartearen aurretik, txistor-jana egongo da.

Baserri inguruko plastiko bilketa

Mankomunitateak hilean behin eskaintzen duen zerbitzua da. Arratsaldean utzi behar da plastikoa, 943-76 25 47 telefonora deitu ostean finkatutako lekuan.



Turista bat informazioa eskatzen Oñatiko Turismo Bulegoan. O.E.G.

Eskaintza osatuta eta ostatuak betetzen hasita

Ostatuetako gelen erreserba kopurua igotzen ari da Aste Santuko egunak heldu ahala. Jatetxeetan ere lekua hartuta dute askok; batez ere, jaiegunetarako. Herri barruko zein naturako turismo eskaintzak, berriz, prest daude bisitariak goza ditzaten

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eguraldiaren iragarpenaren menpe, normalean azken orduan egin ohi dituzte turistek erreserbak Oñatiko osatuetan. Beste batzuek, aldiz, ohitura dute urtero etorri eta familia giroan bazkaria egiteko herriko jate-txeren batean. Aurten ere errepikatu egin dira bi joera horiek.

Erreserbak, eginda

Zumeltzei dorrean, esaterako, hartuta daude logela asko, baina ez denak. "Urtero gertatzen den egoera da hau. Uda-ko erreserbak askoz lehenago egiten ditu jendeak, baina Aste Santukoak azken ordurako uzten dituzte askok, eguraldiaren iragarpenaren menpe. Logela batzuk oraindik libre ditugu, baina ia ziur gaude egunak gerturatu ahala horiek ere bete egingo direla; urtero pasatzen zaigu gauza bera opor hauetan. Aldiz, jatetxea bete-ta dugu ia egun guztietan. Egundak Oñatira etorriko

diren askok hartu dute tokia dagoeneko bazkaltzeko", dio Edurne Gorostidik.

Txopekua jatetxean ere dei bat baino gehiago jaso dute bazkariak erreserbatzeko. Batez ere, jaiegunetarako egin dituzte erreserbak, eta urtero etortzen diren familiak dira horietako asko; ohituraz, Aste Santuko egunetan Oñatin bazkaltzeko plana egiten dutenak, alegia.

Arregi landetxean, bestalde, beteta dituzte logela guztiak martxoaren 27tik apirilaren 1era bitartean. "Espainia aldekoak izan ohi dira data hauetan etortzen diren gehienak, eta aurten ere horrela izango dela pentsatzen dugu", dio bertako nagusi Inaki Arkauzek.

**ARREGI LANDETXEAN
BETETA DITUZTE
LOGELA GUZTIAK
MARTXOAREN 27TIK
APIRILAREN 1ERA**

Bisitak, prestatuta

Eta bisitariak Oñati erakusteko eskaintza prest du Udaleko Turismo Sailak. Egin ohi duen moduan, bisita gidatu bereziak egingo dituzte herri barruan Oñati monumentala erakusteko, eta, bestetik, irteerak egiteko eta Arrikruz kobak ezagutzeko txandak ere antolatuta dituzte. 53. galeria ikusteko bisitak egunero egingo dituzte Arrikruzten, adibidez, baina martxoaren 30ean, Espele Txiki irteera egingo dute: 6 urtetik gorako umeekin batera kobaren sekretuak ikusteko bisita berezia. Turismo Bulegotik abiatuta ere egunero egingo dituzte bisitak, unibertsitatea zein parrokia erakusteko; baita Arantzazun ere, hango basilika ikusteko eta haren historia ezagutzeko. Gomiztegi baserrira joateko aukera ere egongo da, hilaren 30ean, eta Pottokaleku ere egunero egongo da zabalik. Bestalde, Txokolateixia goiz eta arratsalde egongo da zabalik.

Apirilaren 17tik 19ra izango dira hurrengo Arkeotopaketak

Udalaren eta EHUko Historiaurre taldearen hitzarmena beste lau urtez luzatzea onartu du udalbatzak

O.E.G. OÑATI

Beste lau urtez luzatu dute Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurre taldearen arteko hitzarmena. Horrela, Arrikruz kobetan eta Oñatiko lurretan dauden historiaurreko gune interesgarrietan ikertzen eta han jasotako informazioaren zabalkundea egiten jarraituko dute. Arkeotopaketa jardunaldiak izaten dira lankidetzaren bitartez, eta hurrengoak apirilaren 17tik 19ra bitartean egingo direla aurreratu dute.

Bestalde, lehen jardunaldietan jasotako ikerketa-liburua kale-ratu dute dagoeneko.

Lankidetzan jarraitzeko hitzarmena sinatu dute, batetik, Udaleko Turismo batzordeburu Xabier Igartuak eta teknikari Ikerne Altubek, eta, bestetik, EHUko historiaaurreko ikerlari Alvaro Arrizabalaga oñatiarrak eta Oñatin lanean ari diren az-tarnategietako zuzendari Naroa Garciak eta Ekaitz Arrietak. Ikerketa, aholkularitza eta dibulgazio lan horiek 12.000 euroko aurrekontua dute.

Plaza gutxi gelditzen dira libre hikako ikastaro mistoan

Toka eta noka ikasteko aukera eskainiko duen hika ikastaro mistoa antolatu dute Ingo Xonau! egitasmoaren barruan. Udal Euskaltegian izango da, Beatriz Irizar irakaslearekin. Apirilaren 8tik ekainaren 10era izango da, hogei ordu, astelehenean, 18:00etatik 20:00etara. Plaza gehienak beteta daude eta hilaren 25ean bukatzen da izen-ematea.

Eskatu daitezke Landa Garapena Sailaren dirulaguntzak

Udaleko Landa Garapena Sailak 67.000 euroko dirulaguntzak emango ditu eta dagoeneko zabalik dago epea laguntza horiek eskatzeko. Zehazki, zazpi multzotan banatuko du diru kopuru hori: nekazaritza-ustiategiak modernizatzeko, bertako produktuak merkaturatzeko, nekazaritza erabilerako ura ordaintzeko, putzu septikoak garbitu eta instalatzeko, landa-auzoetako ermiten argindar kostua ordaintzeko, baso-bide pribatuak eraiki eta hobetzeko eta landa-auzoetako baserrietan argi-puntuak jartzeko kostua. Urtea amaitu bitartean egin ditzakete eskaerak interesatuek, udal bulegoetan.

Basoko lanak lehen zelan egiten zituzten ikusiko dute domekan

Txondorraren bueltako lantaldeak antolatuta, irteera egingo dute domekan Arantzazuko basoetara, makinari ez zegoen garaietan basoko lanak zelan egiten zituzten ikasteko. Bide batez, txondorraren aldamenean egongo den ikazkin-etxola egiteko materialak bilduko dituzte. 09:00etatik 13:00etara izango da irteera hori.

OHARRAK

Begirale izateko

Uda kanpainen begirale izateko izena emateko azken eguna martxoaren 27a da.

Irteerak gaztelekuak

Gaztelekuko erabiltzaileendako irteerak egingo dituzte Aste Santuko oporretan, eta 27a aurretik eman behar da izena.

'Oñati Vizirik'

Apirilaren 6an aurkeztuko dute *Oñati Vizirik* diskoa, Antixena gaztetxean.

Plastiko bilketa

Martitzenean egingo dute baserri inguruko plastiko bilketa.

Txistularien alardea, hamarkada baten ostean

Alardea egingo dute herriko Aita Madina txistulari taldeko kideek zapatu iluntzean Santa Ana antzokian, beste txistulari eta musikari batzuk ondoan dituztela. Hamar bat urte pasa dira horrelako azken kontzertua egin zenetik

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Alardea egingo du Aita Madina txistulari taldeak zapatuan. Propio prestatutako ezohiko kontzertua, ohikoa baino osatuagoa, beste txistulari eta musikari batzuk ondoan dituztela eskainiko dute.

Oholtza gainean

Duela hamar edo hamaika urte egin zuten azkena, eta gogoz izan dira gehiagotan egiteko ere, baina prestatuta handia eskatzen duen ekitaldia da, eta, bateko zein besteko, hamarkada bat pasa da azkenengotik. "Aita Madina txistulari elkarte-kooz gain, Aretxabaletako, Arrasateko eta Soralezeko txistulariek ere hartuko dute parte; hamazazpi bat izango gara, guztira", aurreratu du Lander Diaz de Gereñu oñatiarrak.

Baina, txistulariez gain, Josu Igartua bertsolaria, Aiert Alberdi musikaria eta herriko Musika Bandako metaleko boskote batek ere hartuko dute parte

zapatuan 19:00etan Santan Anan egingo duten txistularien alardean. Baita Oñati abesbatzak ere. "Aspaldiko harremana dugu Aita Madina txistulari elkarte-kook Oñati abesbatzarekin. Gabonetan eurekin batera kontzertua egiteko eskaintza egin ziguten eta oraingoa geuk gonbidatu ditugu".

Hamahiru pieza

Joan den mendeko erdi inguruan autobusetan etortzen ziren beste herrietako txistulariak Oñatiko alardean jotzeko. "Urteekin, baina, galdu egin da kontzertu hori. Hiriburuetan eta beste hainbat herritan, Urretxun eta Zumarragan, esaterako, mantentzen dute oraindik, baina

HAMAHIRU PIEZA JOKO DITUZTE, GUZTIRA; TARTEAN, HERRIKOIAK DIREN HAINBAT

hemen ez. Lana eta koordinazioa eskatzen du, eta zaila da".

Hamahiru pieza joko dituzte biharko alardean. Tartean dira, esaterako, Jose Ignazio Ansorena, Demetrio Iriarte, Peio Ospital eta Pantxo Carrere, Anje Duhalde, Pablo Sorozabal edo Leonard Cohen egile dituzten hainbat kantu ezagun, eta, noski, baita herrikoiak ere.

Apirilean datoz domeketakoak

Oñatz dantza taldekoen ondoan zein jaietako goiz ereserkietan euren tokia dute herriko txistulariek. Baita udaberriko domeka eguerdietako emanaldietan ere. Arratsaldeetan egin dituzte makina bat urtez dantzaldiak, baina, entzule edo dantzari kopurua jaisten joan dela ikusita, domeka eguerdietara pasa dituzte plazako saioak. Aste Santuko oporren ostean, apirilean, hasiko dira txistuekin eta atabalarekin domeka eguerdietako emanaldiak egiten berriz, ohikoa den tokian, kontzejupean.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Oñati, turistiko

Herritar asko joan den urtean harritu egin ziren jakin zutenean Nazio Batuen Turismoaren Mundu Erakundeak Oñati izendatu zuela munduko herri turistiko hobereen artean. Milaka herri daude munduan buru-belarri turismora murgilduta bizi direnak. Eta agintarien aldetik hasita herritarren lanbide bakarra turismoa izanik, beren zerbitzu hobereenak helburu horretara bideratuta dituztenak. Baina denok dakigu ez dela hori Oñatiren kasua. Alderantziz, herri turistiko ordez, herri industrialak dela esan beharko genuke. Izan ere, biztanleak eta dituen enpresak kontuan hartuz, herri industrialen artean sartu daiteke, zalantzarik gabe. Baina, beste aldetik, ez da zentzugabekeria ere horrelako albistea komunikabideetan agertzea, Oñatik dauzkan baliabide naturalak eta bere historia bereziari lotuta dituen monumentu oroigarriak kontuan hartzen badira. Erdigune paregabeari hedadura zabalean dauzkan toki zoragarriak gehituta, herri turistiko izateko baldintza guztiak dauzka. Baina, herri turistikoa izan edo ez izan, astindu estetiko batek asko hobetuko lituzke dauzkan edertasunak.



Arratsaldean hasita, ekitaldiak gaur kalean, Korrika hartzeko

Korrika Txikia 15:00etan izango da, ohiko ibilbidearekin, eta musikarik ez da faltako Korrika heldu bitartean

Goiena komunitatea

Oñatiko Korrika Batzordea / OÑATI

Gaurtik, egubakoitza, bihar bitarterako goizaldean, 04:30 aldera, iritsiko da Korrika Oñatira. Elorregitik helduko da eta Udanan gora joango da gero, domekan Baionara iristeko. Eta Oñati prest dago Korrikari harrerara egiteko. Orain arte ere egin dira ekitaldiak, Korrika Kulturalaren barruan, baina ez dira oraindik bukatu Korrikari harrerara egiteko herriko eragile

ezberdinekin antolatatu diren ekitaldiak.

Herriko ikastetxeetako 770 ikasle inguruk Korrika Txikia egingo dute, 15:00etan, ohiko ibilbidearekin. 17:00etan Gauargi taldeak joko du plazan eta segidan Oñatz dantza taldeak sorgin dantza egingo du herriko kaleetan zehar. Elektrotzaranga ere egongo da; baita kantu afaria gaztelekuan eta DJ emanaldiak gaztetxean. Korrika heldu bitartean, Trikitzarangak alaituko du giroa.



Oñatiko txistulariak joan den urteko Herri Eguneko goizeko kalejiran. O.E.G.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Iñigo Santa Cruz, Maddi Arlanzon, Ander Igartua, Unai Izura eta Anje Maiztegi dira Malko taldeko kideak. MALKO

Nolakoa den erakutsiko du bihar Malko taldeak

Rock doinu gogorrak zein bigunak dituen hamar kantuko 'Esan ezin direnak' diskoa atera du Oñatiko taldeak, eta zapatu gauean aurkeztuko du, gaztelekuan, Korrika Kulturalaren barruan. Aurkezpeneko gogotsu daude bost kideak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urtebeteko lanketa izan du Malko taldearen lehen diskoak. Abenduan sartu ziren estudioa, eta Malko taldea nolakoa den jakin gura duenari erakusteko gertu daude. Bihar, zapatua, egingo dute aurkezten hori, 22:00etan, gaztelekuan, Korrika Kulturalaren barruan.

Hamar kantu

Esan ezin direnak du izena diskoak eta hamar kantu jasotzen ditu. Taldekideen esanetan, estudioko emaitza entzun ondoren gelditu zaie eurei ere definituta taldearen estiloa. "Euskaraz abesten duen rock talde bat egin gura genuela bagenekien, baina zehaztasun gehiagorik gabe. Bost gara taldean, eta, bakoitzak bere estiloa izan arren, erreferente asko partekatzen ditugu, eta horien melodia batzuk oinarri hartuta eta Iñigo Santa Cruz eta Anje Maiztegi taldekideek egindakoekin osatu ditugu kantuak, metalera gerturatzen diren

piezak bi horienak, haraino heldu gabe", diote Maddi Arlanzon eta Unai Izura kideek.

Trantsizioaren isla

Rock estiloko diskoa, beraz, baina indar ezberdina duten kantuak jasotzen dituen: "Gitarra doinuak gogorrak dira pieza batzuetan beste batzuetan baino, baina, era berean, indar hori erakutsi gura dugu. Horixe erakutsi gura genuen irudiz ere, eta horregatik aukeratu ditugu bi kanta gogor bideoklipak egiteko, diskoaren aurrerapen moduan. Ingurukoek lagundu digute sormen-irudi horiekin".

Indar horrekin batera, taldeak hasieratik hona izan duen trantsizioa, aldaketa, ere erakutsi

URTEBETEZ ARITU DIRA DISKOA PRESTATZEN ETA ABENDUAN SARTU ZIREN ESTUDIORA

gura du Malko taldeak lehen disko horretan. "Maddi Arlanzonek eginda zituen letra batzuei musika jartzen hasi zen proiektu guztia. Maketak etorri ziren gero eta diskoa orain, eta sekulako alde da. Oso pozik gaude emaitzarekin; urduri sartu ginen estudioa, eta gogorra izan da, baina oso aberasgarria izan da esperientzia eta ondo ikusten da taldeak izandako trantsizioa".

Sarrerak salgai daude

Eta trantsizio hori erakutsi eta Malkok zein musika egiten duen erakusteko bihar egingo duten kontzertua egiteko gogotsu daude taldekideak. Aurretik badute esperientzia oholta gainera igo eta jendaurrean jotzen, baina badakite berezia izango dela biharko kontzertua, eta "presio txiki bat" ere sentitzen dutela diote, kantuak ezagutzen dituen jendea egongo delako aurrean. Sarrera hiru euro da, eta aurrez online edo gaztelekuan bertan eros ahal izango da.

Pilota egokituko buruz buruko finala bihar Zubikoako frontoian

Mikel Jurado oñatiarra txapelketan parte hartzen ari da eta binakakoan jokatzeko jarraituko du apirilatik aurrera

O.E.G. OÑATI

Gipuzkoako XIV. euskal pilota egokituko txapelketa jokoan da, eta, buruz buruko jardunaldiak egin ostean, finaleko partiduak jokatu dituzte bihar, zapatua, 10:00etan, Zubikoa kiroldegiko frontoian. Hain zuzen ere, bi kategoriatako finalak izango dira: batetik, urritasun fisikoa duten pilotariek aulki gurgildu-nean gomazko paletan; eta, bestetik, adimen urritasuna duten pilotariek zutik teniseko paletan. Bi finalez gain, aulki gurgildu-neko jokalariek dagoeneko ha-

sita duten binakako txapelketa-jardunaldia jokatu dute, eta teniseko paletan beste hiru partidu gehiago, maila askotariko buruz buruko txapelketen barruan.

Jardunaldia 10:00etan hasiko da, eta, amaitutakoan, bikoteak osatu dira teniseko paleta kategorian, apirilaren 13tik aurrera binakako txapelketa hasiteko. Hor, hain zuzen ere, Mikel Jurado oñatiarrak hartuko du parte. Buruz buruko finalerako ez da sailkatu, baina binakakoan jarraituko du.



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

75. urteurreneko oroigarria

Azkoagain futbol zelaiak 75 urte bete ditu, eta urteurren horren plaka jarri zuten joan den domekan Aloña Mendik eta Urkik jokatu zuten partiduaren hasieran. Oñatz dantza taldekoen ohorezko aurrekuaren ostean, Izaro Elorza alkateak eta Javier Azpiazu lehendakariak futbol zelaiaren jarritako plaka bistaratu zuten, Aloña Mendiko kamiseta batekin tapatuta zegoena.

Erabilgarri dago San Martin jarri duten kalistenia parkea

San Martingo zuhaitziaren eta autokarabanentzako gunearen artean jarri dute kalistenia parkea. Altura askotariko barrak eta bestelako elementuak ditu, norberak norberaren gorputzarekin indarra lantzeko ariketak egiteko. Partaidetzazko aurrekontuen prozesu barruan herri-tarrek egindako proposamena da proiektua.



Kalistenia parkea San Martinen. E.G.

Aiiii... ze ondo... azkenian!
Bueno, eta oin,
zeiñek lagunduko dosta
hau dana txukun
eta polit jarten?



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okmgidaren
eskaintza osoa.



Iaz, David Delgadok irabazi zuen lasterketa; irudian, aurreko postuetan sailkatzeko egon zen esprintetako bat. GOIENA

Domekako Gorlako Igoeraz egin dute berba irabazle ospetsuek

ZIKLISMOA Etzi jokatuko dute 49. edizioa, eta Lokatzako lagunek euren sare sozialak –Instagram– estreinatuzko puntako ziklistak batu dituzte. 'Purito'-k, Juanma Garatek, Mikel Landak eta Alberto Contadorrek Gorlan irabazi zuteneko gogoratu dute

Xabier Urtzelai BERGARA

Gorlako Igoerak mende erdi bete bezan urtebete geratzen da oraindik, baina Lokatzako lagunak aurtengo edizioari ere bultzada eman nahi izan diote, eta, horretarako, Instagramen estreinatu-

tako profilean ziklista handiak batu dituzte lasterketari buruz berba egiteko. Denek dute zer bait komunean, badakitela Gorlako gainean besoak altxatzea zer den. Eta ez hori bakarrik: domekako lasterketari beste oihartzun bat


eman nahi izan diote, eta domekako proba *streaming*-ez eskainiko dute, Youtuben. "Aurten, Gorlako Igoerak ez du Espainiako Kopa barruko lasterketekin bat egingo; horrek esan nahi du maila oso oneko txirrindulariak

Uzarragako Igoera zapatuan

Peña Ayastuik antolatuta, zapatuan (15:15, Antzuolako plaza) egingo dute Uzarragako Igoeraren 50. edizioa. Edizio berezia izango da, lasterketak mende erdia beteko duelako, eta, aurrekoetan moduan, gazte mailako ziklistak batuko ditu – tartean egongo dira Ulmako ordezkari debagoiendarrak –.

Iazkoa lasterketa berezia izan zen, herrikide batek etxean besoak altxatu ahal izan zituelako: Unax Errasti (Ulma)

izan zen azkarrena helmugan. Zapatuko lasterketak, ohi moduan, 75 kilometro izango ditu; lehenengo 35 kilometroak Antzuola, Osintxu eta Elorregi artean egingo dituzte. 16:15 inguruan ziklistek Deskarga igoko dute, Antzuolatik, eta Udanatik bueltan Oñatira jaitsi eta handik Antzuolarako bidea hartuko dute; Uzarragako maldak izango dituzte han zain (17:15).



Unax Errasti, iaz, helmugan. GOIENA

izango ditugula irteera-puntuak. Eta, horrekin batera, ahalegina egin dugu sare sozialetara begira. Hala, Alberto Contador, Joaquim Purito Rodriguez, Juanma Garate, Mikel Landa eta beste ziklista batzuei eskatu diegu Gorlan irabazi zuteneko oroitzapenez berba egiteko", adierazi du Lokatzako presidente Ion Unamunok.

09:30ean hasiko da, plazan

Domekako lasterketari dagokionez, ziklistak 09:30ean hasiko dira lanean, eta, ohi moduan, txirrindulariek 128 kilometroko lasterketa izango dute aurretik. Lehenengo 70 kilometroak bailararen barrenean egingo dituzte, Bergara, Osintxu eta Zubillaga artean. 73. kilometroan igoko dute lehenengoz Gorla –11:33an lehen igoera–, eta, Aizpuruxora jaitzita, 12:20 inguruan

pasako dute Deskarga; gero, Antzuolatik (12:24) Bergararako bidea hartuko dute. Azkarrenak 12:42 inguruan zeharkatuko du Gorlako helmuga.

Erostarbe, hirugarren

Aurreratu moduan, eliteko eta 23 urtez azpiko talde indartsuenak izango dira Gorlan, eta tartean egongo dira zenbait debagoiendar. Orain arte jokatutako bost lasterketetan puntuak batu dituztenen artean daude Unax Errasti (Eibar) antzuolar gaztea –iaz gazte mailako Uzarragako Igoera irabazi zuen– eta Aimar Erostarbe oñatiarra, bereziki nabarmendu dena; Caja Rural taldeko mutila erregulartasun handiz dabil Euskalduna torneoan, eta sailkapenean hirugarren postuan dago, Zumaian, Ereñon eta Berriatuan puntuak batu eta gero.




JOAQUIM 'PURITO' RODRIGUEZ
ZIKLISTA OHIA

"2000. urtean lasterketa irabazi ahal izan nuen; denboraldiko lehen garaipena izan zen, eta profesioletara salto egiten lagundu zidan garaipen hark".




ALBERTO CONTADOR
ZIKLISTA OHIA

"Nire garaipena igoera bakarra egiten zeneko garaikoa da (2001). Nire kirol bizitzako garaipen garrantzitsuenetako bat izan zen; pentsa..."




JUANMA GARATE
ZIKLISTA OHIA

"Domekan 25 urte beteko dira Gorlan eskuratu nuen bigarren garaipenetik (1999). Amateur mailan erreferentziazko lasterketa da niretako".



MIKEL LANDA SOUDAL QUICK STEP-EKO ZIKLISTA

"Egutegiko lasterketa nagusietakoa, eta nire kuttunena. Eguraldi txarra izaten genuen, euria, elurra... Birritan igota, indarrak neurtu behar ziren".



ANDREY AMADOR EDUCATION FIRST-EKO ZIKLISTA

"Egun bateko lasterketa garrantzitsuena zen; birritan egin nuen: lehenengoan ez nintzen batere ondo ibili, baina bigarrean irabazi egin nuen".



Agorrosinen egindako futbol inklusiboko saioan batutakoak. GOIENA

Mojategin egingo dute 25. ekitaldia, zapatuan

FUTBOL EGOKITUA Zapatuan egingo dute, Mojategin, Gipuzkoako Futbol Federazioaren 25. futbol inklusiboko topaketa. Antolatzaileek espero dute guztira 50-60 lagun batzea. "Proiektua egonkortu egin da; hori da positiboa", dio Josu Zubiak

Xabier Urtzelai ARRASATE

Kirol egokitua geroago eta hedatuago dago, eta futbola ez da atzean geratzen. Gipuzkoako Federazioak Mondrako eta Leintz Eskola Kiroleko lagunaren laguntzarekin futbol inklusiboko 25. topaketa egingo du bihar (11:30, Mojategi). "Duela bizpahiru urte jarri genuen abian egitasmo hau, eta dagoeneko egonkortu egin dela esan genezake. Pentsa, biharkoa 25. saioa izango da. Hala, pozgarriena da datorren urtean hiruzpalau klubek hartuko dutela topaketa hauek euren kabuz antolatzeko ardura, eta horietako bat izango da UDA. Hala, asmoa da eskualde horretako gazteek topaketa horietan

esku hartzea. San Martzial, Euskalduna eta Oiartzun izango dira gainontzeko klubak", adierazi dio GOIENARI Josu Zubiak.

Lan-saio emankorrak

Gipuzkoako Federazioko kirol zuzendariak aurreikusten du bihar 50-60 lagun inguru batu direla Mojategin. "Desgaitasuna duten gazteak bi taldetan banatzen ditugu, talde bakoitzeko ordezkariekin lan ezberdina egiten dugulako, beharren arabera. Eta Mondrako infantil mailako gazteek eta LEKeoek bi talde horietako batekin egingo dute entrenamendu-saioa. Desgaitasuna duten gazteendako oso emankorrak dira ekital-

di horiek, beste gazte batzuekin lan-saioak parteka ditzaketelako. Baina klubetako gazteendako ere baliagarria da; eta ez euren bakarririk, baita entrenatzaileendako ere. Pentsa, klubetako ordezkariak euren buruan asteroko partida eta entrenamenduak izaten dituzte. Eta horiek une batez alboratu eta halako saioetan gizarteko beste arlo batean ekarpena egin dezaketela ikusten dute, desgaitasuna duten gazte horiekin tarte bat partekatuz. Euren dako ere oso saio aberasgarriak direla uste dugu, eta oraingoan Leintz Eskola Kiroleko gazteekin eta Mondrakoekin egingo dugu lan".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIO. GIZ.

Zumaiako-Bergara

Zap. 16:00. Zumaia.

Zarautz-Aretxabaleta

Dom. 12:45. Zarautz.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Debagoiena B.-Mutriku

Dom. 17:30. Ibarra.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

A.Vitoria-Bergara

Dom. 11:30. Olanabe.

EMAK. GOREN. IGOERA

Goierri-Bergara

Zap. 09:30. Altamira.

GORENGO MAILA

Bergara-Anaitasuna

Zap. 12:00. Agorrosin.

Aretxabaleta-Billabona

Zap. 15:30. Ipintza.

Antzuola-Zumaiako

Zap. 16:30. Eztala.

Urki-Mondra

Zap. 18:00. Unbe.

ARETO FUTBOLA

GIPIZKOAKO 1. MAILA

Coinb. Aloña-Afantxo

Zap. 19:30. Zubikoa.

GIPIZKOAKO 2. MAILA

Mondrate-Getariako

Zap. 16:30. Musakola.

Eskoriatza-Ausa

Zap. 18:30. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Fagor Prof.-Tolosa

Zap. 17:45. Zubikoa.

GIZ. GIPIZ. SENIOR.

Mugarri Ingou-Laubide

Dom. 13:00. Iturripe.

Soraluce BKE-Ordizia

Zap. 12:30. Labegarieta.

EMAK. GIPIZ. SENIOR.

Aloña Mendi-Zuhegan

Zap. 16:00. Zubikoa.

GIZO. BIGARREN SENI.

Egia kata-Erreka Berg.

Zap. 11:30. Donostia.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Ulacia

Dom. 18:30. Iturripe.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

Afilados Gasteiz-MU

Zap. 16:00. Gasteiz

EUSKAD. LEHEN GIZON.

Valle de Egues-MU

Dom. 16:00. Sarriguren

EUSKAD. BIG. GIZON

Biotz Aloña-Easo

Dom. 12:00. Zubikoa.

Soraluce BKE-Axa A.

Dom. 18:00.

Labegarieta.

GIZ. SENIORRAK A

Ama Guadalupe-MU A

Zap. 17:45. Hondarrib.

GIZ. SENIORRAK B

MU B-Zast Zarautz

Zap. 18:00. Musakola.

EMAKUM. SENIORRAK

MU-Digitarte

Dom. 16:15. Iturripe.

TXIRRINDULARITZA

UZARRAGAKO 50. IGOERA

Zapatua.

15:15 Antzuolako plazan.

75 kilometrotako

lasterketa. Helmuga

17:15 inguruan,

Uzarragako gainean.

TXIRRINDULARITZA

GORLAKO 49. IGOERA

Domeka.

09:30 Bergaran. 128

kilometrotako lasterketa.

Helmuga 12:40 inguruan,

Gorlako gainean.

PILOTA Goñi memorialeko finalean da jada Ander Murua

Arrasateko pilotariak ondo hartu dio neurria txapelketa horri, aurtengo edizioko finalerako sailkatu da-eta ostera; oraingoan, Bernaolarekin batera bikotea osatuta. Hala, martxoaren 27an Arrasatekoak eta Mañarikoak Igoaren eta Garmendiaren aurka jokatu dute elite mailako binakako finala. Finalurrekoan 22-18 irabazi zuten.



Ander Murua. KIROLZALE



Realaren eta Almeriaren arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean!

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Almeria norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida apirilaren 14an, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 7a.

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
Goienakide
eta Reala
ikusteko aukera
izango duzue!

goiena"
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Algaraka Bakarrizketa Lehiaketa aurkeztu dute

Jardun Euskara Elkarteak Goiena Komunikazio Taldearekin elkarlanean antolatu du, Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, eta Urretxuko eta Zumarragako eta Zumaiako udalek lagunduta; maiatzeko egubakoitzetan izango dira

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Euskal Herria bakarrizketagintzaren loraldian dagoela ikusita, Goiena Komunikazio Taldera jo zuten Bergarako Jardun Euskara Elkartekoek ekimen bat abiatzeko gogoz, eta hala jaio da *Algaraka*. "Erakunde publikoen babesa ezinbesteko genuen, eta halaxe izan dugu; eskerririk asko, bada, Bergarako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari proiektuan sinistu eta hura babesteagatik, eta baita Zumarraga eta Urretxuko eta Zumaiako udalei ere, laguntzeagatik", azaldu zuen Jarduneko Nerea Mendizabalek eguaztenean egin zuten aurkezpen-ekitaldian.

Ekitaldian ziren erakundeetako ordezkariak ekimena "atsegin handiz" babestu dutela berretsi zuten. "Sortzaile euskaldunak garatzeko aukerak eskaini behar ditugu, etorkizuneko euskal erreferente berriak sortu daitezten, hain beharrezkoak ditugunak", esan zuen Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Maite Usabiagak, eta zera gaineratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Mari Jose Telleriak: "Euskarazko talentua eta kultura sustatzea helburu du ekimenak. Gainera, tokiko sortzaileek beren talentua

ezagutarazteko eta gure lurraldearen kultura-aberastasunari laguntzeko plataforma bat da".

Publikoaren aurrean lau saio

Maiatzeko egubakoitzetan egin-gotzute, jendaurrean, lau saio. "Launa bakarrizketari izango dira saio bakoitzean eta sei eta zortzi minutu bitartean izango

APIRILAREN 19RA ARTE EMAN DAITEKE IZENA EUSKARAZKO BAKARRIZKETA LEHIAKETAN

ditu bakoitzak. Lehenengoa Bergarako Seminarixoan izango da, maiatzaren 10ean; hurrengoak, hurrez hurren, Urretxuko Labeaga aretoan eta Zumaiako Aita Mari aretoan; eta maiatzaren 31n jokatu da finala, Bergaran. Saio guztiak 20:00etan hasiko dira eta publikoarentzako zabalik egongo dira".

Miren Nogales eta Jon Olivares aktoreek izango dute *Algaraka* aurkezteko ardura, eta Idoia Torregarai kazetari eta umoristak, Josu Zubia kultur-gileak –eta Potx pailazoak– eta Aner Peritz bertsolari eta sortzaileak jardungo dute epai-mahaikide.



Algaraka Bakarrizketa Lehiaketaren antolatzaileak eta babesleak. JOKIN LARRAÑAGA

'Algaraka.eus' ataria

Apirilaren 19ra bitartean dago euskarazko bakarrizketa lehiaketan izena emateko aukera. "Parte hartu gura dutenek bizpahiru minutuko bideo bat aurkeztu beharko dute, *komunikazioa@algaraka.eus* helbidera idatzita edo *Algaraka.eus* atarian, bestela. Guztira, hamabi lehiakide izango dira; epaimahaikideek hamaika aukeratuko dituzte eta publikoak erabakiko du zein den hamabigarrena. Ikus-entzuleek apirilaren 22an hasita izango dute *Algaraka.eus* atarian botoa emateko aukera, eta apirilaren 29an jakinaraziko da aukeratuen zerrenda", azaldu dute antolatzaileek.

Lau sari

1.000 euroko saria eta Bergarako tostoiak eta erreilenoak jasoko ditu irabazleak; eta 600 euro eta Bergarako gozoak bigarrenak; herrian erabiltzeko 250 euroko bonua bergarar onenak; eta Bergarako Zumelaga jatetxean afaria eta Lamaino Etxeberrri nekazari-etxean gaua eta gosaria publikoaren saria eskuratzen duenak.

Primeran plataforman ere bai

EITB ere ekimenera batu da, eta lau saio horien koprodukzioaz arduratuko da Goienarekin batera. Hala, saio guztiak Goienako medioetan eta Primeran streaming plataforman ere ikusgai egongo dira. Goiena Komunikazio Taldeko presidente Monika Belastegik "eskertu egin du" proiektuan sinistu eta laguntzera batu diren erakunde guztiak, eta nabarmendu du "pozik eta gogotsu" daudela, EITBekin elkarlanean ekoiztea "erronka berria eta oso polita delako Goienarendako".

Agortuta daude Neomak-en Arrasaterako sarrerak

Apirilaren 14an Amaia antzokian izango dira, 'Kontu zaharrak berri' biraren barruan

A. Aranburuzabala ARRASATE

Sekulako harrera du Arrasateko hiru musikari kide dituen Neomak taldeak Euskal Herrian zein nazioartean. Horren erakusle da martxoaren 2an Donostiako Victoria Eugenia antzokian abiatu zuten *Kontu zaharrak berri* izeneko bira. Harrezkero, Donibane Lohizuko Tanka antzokian eta Bilboko Arriagan izan dira, eta bihar, zapatua, Iruñeko Gayarren dute hitzordua. "Oso gustura ari gara. Emanaldi bakoitzean artista-gonbidatu bat izaten dugu. Olatz Salvador, Sara Zozaya eta Sua taldeko Ane eta Janire izan dira orain artekoetan, eta Olaia Inziarte, Idoia Asurmendi, Fillas de Cassandra eta Pello Reparaz izango dira datozenetan", azaldu dute taldekideek.

Herri Urrats-erako kantua

Biran buru-belarri ari dira, baina bestelako proiektuetan ere parte hartzen, aldi berean; aurreko astean aurkeztu zuten Herri Urrats jaialdiaren *Horgaude* kantua eta Mikel Cubillo aretxabaletarrarekin eta Asier Elgezua arrasatearrarekin egin duten bideoklipa. "Oso pozik gaude emaitzarekin eta feedbacka ere itzela da".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

**KORRIKA
ZUZENEAN**

MARTXOAREN 23AN, ZAPATUA,
01:45EAN ETA 23:30EAN
LEINTZ GATZAGA ETA OÑATI ARTEKO IBILBIDEA
GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



"Eroso eta indartsu sentitu nintzen kantuan"

MANEX AGIRRE BERTSOLARIA

Aroa Arrizubieta gasteiztarrarekin buruz burukoa jokatu, bigarren postuan geratu zen Agirre. "Pozik" dago egindako lanarekin, txapelketetatik erretiroa hartu badu ere

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARAMAIO

Birritan irabazi du aramaioarrak Arabako Bertsolaritza Txapelketa, 2011n eta 2015ean; hirugarrena gertu izan duen arren, "lasai eta gustura" dago.

Finaletik egun batzuk pasatuta, ze sentsazio dituzu?

Gauza batzuk lasaitu egin dira eta beste gauza batzuk lasaitzeko oraindik denbora beharko da, baina, orokorrean, pozik nago; lasai eta harro ere bai txapelketan egindako guztiarekin.

Zer esaten dizute kalean?

Mezu nagusia zorionak emateko da. Oso eskertuta eta hunkituta nago horrekin. Oso maitatua sentitu naiz, gertuko zein ez hain gertukoekin ere, eta hori oso ederra da.

Ze baloraz egiten duzu txapelketako zure lanari dagokionez?

Bi planotan baloratzen dugu txapelketa: pertsonalean eta kolektiboan. Plano kolektibotik hasita, txapelketa potentia izan da, hasieratik oso indartsu hasi dena. Garai batean finalista finkotzat edo erdi-finkotzat ginenok tentsioz bizitakoa ere bai, eta horrek esan gura du finalera pasatzeko uste baino zailagoa izan dugula, eta hori ona da, noski, gero eta hautagai gehiago dauden seinale. Arlo pertsonalari dagokionez, pozik nago, tentsio hori kudeatzen ondo jakin dudalako. Finalerdien aurretik ez nuen ondo pasatu, kanpoan geratzeko arrisku handia ikusten nuen, baina finalerdietan saio txukuna egin ondoren lasaitu egin nintzen. Eta finalarekin oso gustura, zauri txiki horrekin bada ere.

Egin zenuen potoarengatik ari zara?

Hori da, bai. Oso gustura eta eroso kantatu nuen hasieratik, oso indartsu sentitu nintzen, eta azkeneko erremate hori falta izan zen. Ez diot buelta askorik eman. Orain dela bi urte ere gauza bera gertatu zitzaidan;



Manex Agirre, zapatuan, Gasteizko Principal antzokian kantuan. IMANOL SORIANO

"ASPALDI ERABAKI NUEN TXAPELKETAK UZTEA; PLAZETAN ETA BERTSO-ESKOLAN JARRAITUKO DUT"

ematen du marka pertsonala dela, min ematen badu ere [Barre]. Orduan ez nuen ondo pasatu, baina oraingoan, berriz, ez diot horrenbesteko garrantzirik eman; beste guztiari garrantzia ematen ikasi dut, beste guztia asko da eta!

Txapelketan zehar letra larriz eta bihotzetik aipatzen zenuen Aroa Arrizubieta; pozik zaude txapela eskuratu duelako?

Arabako bertso mugimendua jarraitzen dutenak ez ziren harrituko Aroa finalean ikustea-gatik. Bertsolari sendoa da, oso txukuna, oso originala, oso intentsua eta indartsua. Plano kolektiboan baloratuta, lekukoa pasatzeak harrotasuna ematen du. Ni baino kasik 20 urte baino gazteagoa den neska batek irabazteak poza ematen du.

Zer diozu Paula Amilburuk eta Peru Abarrategik egindakoaz?

Loreak besterik ez Amilbururentzako; terriblea izan zen egin zuen finala, eta, hura ezagututa, terribleago. Pribilegioa da ohol-tzaren ganean harekin bertso-tan egitea. Saioa amaitutakoan, Peruk zioen "korrekto" egin zuela bertso-tan, eta hori zen haren mina. Peruk ez du akatsik egiten bertso-tan, bete-lanetan oso ona da, baina, akaso, berezkoa duen txispatoxa falta izan zitzaion egun hartan.

Finaletik kanpo geratu zen Xabi Igoarekin gogoratu zinen agurrean. Min eman zuen finalera ez pasatzeak, eta hari keinu bat egitea derrigorrezkoa zen niretzako, oso gertuko dudalako; aurrera begira ibilbide luzea duela aurreikusten diot.

Txapelketetatik erretiratuko zarela ere agurrean esan zenuen.

Erabakia aspaldi hartuta nuen arren, ez nuen aurtengoa bukatu aurretik ezer esan gura, ez nuelako neure burua ezta ingurukoak ere baldintzatu gura. Ez nuen amestuko halako erretiro on bat. Oso elegantea izan zela esan dit jendeak, eta asko hunkitzen nau horrek. Bertso-eskolan jarraituko dut eta deitzen didaten plaze-tara gustura joango naiz.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK

Tableta

InnJoo Superb Plus tableta



Parte hartzeko sariaren izena: tablet



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATZOR DAK

www.harnemandenda.org
Ondu! Murreratu! Produktuak!

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelekin artean egingo da zozketa. Inkarne degeñ 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu: sare-datu pertsonalik Goiena komunikazio Zibikoaren Itzultzailearen bitartez bideratzen direla. Datu-bilaketaren helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gerturatzeko. Eskubide onargarriak dituzten sariak, haiek zuzentzeko edo ezarritako helburu berridatitzeko: goienakide@goiena.eus

Realaren eta Almeriaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Almeria norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturiko beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.

Partida apirilaren 14-an izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 7a.



Irabazi bi pertsonarendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu partel!

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 7a

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jotetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Bergara erdigunean etxebizitza erosiko nuke. Hiru logela, igogailua eta garajeduna. Telefonoa: 653 29 37 04

Bergara. Artzamendi kalean edo inguruan etxebizitza erosiko nuke. Hiru logela, balkoia eta igogailua (ahal bada). Deitu telefono zenbaki honetara: 678 93 44 46

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasate etxea errentan hartuko genuke. Ume bakarreko familia gara. Biok lanean gaude. 680 87 38 66

Oñati. Alokairurako Oñatin etxe bila dabilen alaba bakarreko familia gara. Biok lanean. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 69 62 33

3. LOKALAK

305. BESTELAKOAK

Arrasateko denda eskualdatzen da. Arrasaten dagoen Centro Cien bazarra eskualdatzen da, erretiroagatik. Saitokia Olarte kaleko 23. zenbakian dago, Arrasateko erdigunean. Xehetasun gehiago nahiz izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: 635 71 60 44

Aretxabaleta. Erosteko aukera duen Tinta Beltza saltokia eskualdatzen da Aretxabaletan. Jostailuak, eskola-materiala eta bestelakoak saltzen dituen eta papergintza zerbitzua duen denda da. Interesatuok deitu 943 77 07 92 telefono zenbakira.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Bergara. Umeak zainduko nituzke Bergaran, goizez zein arratsaldez. 669 63 93 29

Bergara. Emakumea prest goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 642 37 01 92 zenbakira.

Bergara. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera laguntzeko prest. Telefonoa: 611 24 18 98

Bergara. Mutil gaztea eraikuntza lanetan laguntzaile gisa, pertsonen zaintza, lorezaintza-lanak eta taberna eta pisuetako garbiketarako gertu. Deitu 671 64 11 25

Bergara. Neska pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan egiteko prest. 671 64 11 25

Debagoiena. 38 urteko emakumezkoa lan egiteko gertu. Asteazken zehar 15:00etatik aurrera eta asteburuetan etxetik kanpo edo orduka lan egingo nuke. Deitu 612 22 86 07

Debagoiena. Arratsaldetan edo orduka etxeak edo atariak garbitzen lan egingo nuke. Telefonoa: 613 21 78 61

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako lan egiteko gertu. Deitu 612 27 67 87 zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera laguntzeko gertu. Deitu 642 79 62 62

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, baita orduka edo asteburuetan ere. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edo pasiatzera laguntzeko eta garbiketarako lan egiteko gertu. Deitu 672 96 46 49 zenbakira.

Debagoiena. Etxean lan egiteko, garbiketarako lane-tarako edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Orduka, asteburuetan edo gabez lan egiteko prest nago. 691 28 53 25

Debagoiena. Garbiketarako lan egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Deitu 612 22 86 07

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zaindu edo garbiketarako lan egiteko prest. Esperientzia handikoa. Soziosanitario ikasketak ditut, baita garbiketarako lan egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. 643 47 39 37

Debagoiena. Haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketarako lan egiteko edo bestelako edozein lanetarako prest. 611 24 18 98

Debagoiena. Mutil arduratsua asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu edo tabernan lan egingo nuke. Telefonoa: 651 73 31 75

Debagoiena. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten,

etxetik kanpo edo asteburuetan lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Deitu zenbaki honetara: 613 13 51 88

Debagoiena. Neska eskualduna pertsona nagusiak zaindu, tabernetan lan egin edo bestelako lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Asteburuetan edo jai-egunetan lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko prest dagoen emakumea. Garbiketarako lan egiteko ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela, malgutasun osoa dut. Deitu zenbaki honetara: 602 44 48 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera ateratzeko gertu dagoen mutila. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 604 28 78 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago etxe, baserri eta egoiztan. Autoa daukat.

Soziosanitario eta eskor-gak maneiatzeko tituluak ditut. Malgutasun osoa dut. Deitu zenbaki honetara: 631 98 15 50

7. ANIMALIAK

702. EROSI

Yorkshire txakurra erosiko nuke. Yorkshire txakurra erosiko nuke. Baldin baduzu edo laster izango baduzu, deitu telefono zenbaki honetara. 679 24 91 36

703. EMAN

Txakurkumerak oparitzen dira. Txakurkumerak oparitzen dira. Aita Border Collie. Interesa baldin baduzu, deitu 624 79 52 56 telefono zenbakietara.

8. DENETARIK

805. TRUKATU

Txilax ezitia trukean. Txilax ezitia ematen da arrautzen, sagarren edo bestelako produktuen truke. Aretxabaletan jasotzeko prest. Trukean interesa baduzu, deitu 656 75 76 98 telefono zenbakira.

809. ERRENTAN EMAN

Lursaila alokairuan Bergaran. Aisialdirako lursaila alokairuan Bergaran. Deitu telefono zenbaki honetara: 606 53 53 52

ESKER ONA



M. Carmen Billar Beloki

Carlos Beltran de Gebara Azkarragaren alarguna

2024ko martxoaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Zure aitza izan garenok ez zaitugu sekula ahaztuko. Eskerrik asko, ama. Eskerrik asko, amama.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

ESKER ONA



Javier Murguzur Iraeta

2024ko martxoaren 16an hil zen, 62 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 22 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

Zapatua, 23 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Domeka, 24 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 25 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Martitzena, 26 ETXEBERRIA: Zaruvalde 38 / 943 77 16 30

Eguaztena, 27 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Eguena, 28 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 22 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 23 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 24 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 25 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Martitzena, 26 ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63

Eguaztena, 27 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 28 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 22 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 23 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 24 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 25 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Martitzena, 26 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguaztena, 27 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguena, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK BEHAR DU DEBAGOIENERAKO

KOMERTZIALA

ESKATZEN DA:

- Euskaraz jakitea eta ondo idaztea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna izatea.
- Saltzaile lana gustuko izatea.
- Salmentan esperientzia izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Gradua edo goi mailako heziketa zikloa izatea.
- Taldean lan egiten jakitea.

Curriculumak aurkezteko epea: **2024ko martxoaren 25a**

Nora bidali: personalia@goiena.eus

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti
Inmobiliaria

Bergara: Ibarra,
87m² erabilgarri,
3 logela, ganbara eta trastelekua. Erabat kanpoaldekoa.
140.000€


Bergara: Ernai,
60m² erabilgarri, logela 1, terraza ederra eta trastelekua. Bizitzera sartzeko prest.
166.000€

Bergara: San Pedro,
67m² erabilgarri,
2 logela eta etxebizitza sarbidea duen ganbara ederra.
125.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:

ESKER ONA


Kontxi Ruiz de Zarate Berriotxo 

2024ko martxoaren 17an hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Kontxi Ruiz de Zarate Berriotxo 

2024ko martxoaren 17an hil zen, 67 urte zituela.

Arantzie zuri txorixek kantari bizitzaren atari, eta lagune joan behar guri.

Maite zaitugu, Kontxi.

Zure lagunak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Kontxi Ruiz de Zarate Berriotxo 

2024ko martxoaren 17an hil zen, 67 urte zituela.

Lurrak goxo har zaitzala.

Beti egongo zara gure bihotzean.

Txabolako zure lagunak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Kontxi Ruiz de Zarate Berriotxo 

2024ko martxoaren 17an hil zen, 67 urte zituela.

Senegal, Euskal Herria elkartasuna eta poza bidaia batean islatua. Ereindako irribarreak eta zurekin partekatutakoak gurekin geratzen dira.

Bidaia on, Kontxi eta lainoetan ikusiko zaitugu. Bidaia on, Kontxi, eta lurrak goxo har zaitzala. Maite zaitugu.

Senegalgo bidaiako lagunak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Kontxi Ruiz de Zarate Berriotxo 


2024ko martxoaren 17an hil zen, 67 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri BHIko langile, guraso eta ikasleak.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Jaxinta Aranburu Esnaola 

2024ko martxoaren 20an hil zen, 94 urte zituela.

Zure altzoan izan garenok ez zaitugu sekula ahaztuko. Eskerrik asko amama.

Bilobak: Gorane eta Mikel, Aitor, Ariane eta Iñigo, Andoni eta Ainize, Aitziber, Erik eta Susi; Birbilobak: Aiert, Eneko eta Aiora.


Bergaran, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Jose Antonio Ugarte Elorza

2024ko martxoaren 18an hil zen, 74 urte zituela.

ULMA Taldeko langileen eta bazkideen izenean, eskerrik asko zure konpromisoagatik.




Oñatin, 2024ko martxoaren 22an

OROIGARRIA

Jose Antonio Ugarte Elorza

2024ko martxoaren 18an hil zen, 74 urte zituela.

ULMA Eraikuntzako langile eta bazkideen izenean, eskerrik asko zure konpromisoagatik.



Oñatin, 2024ko martxoaren 22an

OROIGARRIA

 **Iban Martinez Uriarte** 

Nahiz joan zaren agurtu gabe Zu beti jator bizitzan Umiltasuna, alaitasuna beti josita aurpegian Lana ala juerga, kontzertu, frontoi Irriarra aldamenian Zugandik asko geratu zaigu ikasteko oraindikan Gudan betiko biziko zara gure bihotzeko Iban

Xaguxarrak. 
Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Joxan Olabarria Zangitu 

2024ko martxoaren 15ean hil zen, 67 urte zituela.

Atzo, gaur eta bihar; beti gure bihotzean.

Ane, Maite, Ion, Marian, Joserra, Nerea eta Blas.
Bergaran, 2024ko martxoaren 22an.

URTEURRENA

Margarita Busto Zabaleta 

—Goian bego—

2023ko martxoaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.

Gure ondotik joan zinen, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 24ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2024ko martxoaren 22an.

Oroilore BABESLEA
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agarnitako guztiei esan bidea azaritzen laganduz diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gudan izan dituzten konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



ZORION AGURRAK



ARRASATE
Danel Eta Illart Abad Casares
Martxoaren 24an, 6 urte. Zorionak, maitiak!
Egun zoragarria izan eta segi zareten modukoak izaten! Askok maite zaituztegu!



ARRASATE
Telmo Axpe Pacios
Martxoaren 22an, 4 urte. Zorionak, bitxito! Oso Ondo ospatu zure eguna! Patxo potoloak!



BERGARA
Izar Unamuno
Martxoaren 22an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran pasau zure urtebetetzea eta mila muxu familixa danan partetik.



OÑATI
Oihane Orueta Diez
Martxoaren 20an, 2 urte. Etxeko printzesak 2 urte bete ditut! Zorionak, maitia! Segi irribarre polit horrekin! Patxo potolo bat etxeko guztion partetik!




ARRASATE
Izaro Luengo Gallardo
Martxoaren 20an, 3 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasau eguna! Muxu erraldoia itxekoen partetik! Izugarri maite zaitugu!



BERGARA
Iker Zabala Pozo
Martxoaren 18an, 6 urte. Zorionak, politxoi! Oso ondo pasatu dugu urtebetzean! Askok maite zaitugu! Mila muxu.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**ASIER AGIRRERI ELKARRIZKETA**

Aramaioko alkatea elkarrizketatuko du Goiatz Aranek; agintaldia hasi zenetik zortzi hilabete pasa dira.

'Harira' Egubakoitza, 18:15, 20:15 eta 22:15

**KORRIKA ZUZENEAN**

Leintz Gatzagatik Oñatiraino lekukoak egingo dituen kilometroak zuzenean ikusteko aukera, bailarara egingo duen bigarren bisitan.

'Bereziak' Zapatua, 01:45



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 22**BERGARA '24 emakume zientzia, arte eta letretan' solasaldia**

DBHko ikasleendako zein publiko ororendako.

Seminarixoa, 10:00etan.

ARRASATE Korrika Eguna

Informazio osoa 12. orrian.

Arrasaten.

ARETXABALETA Korrika Eguna

Informazio osoa 16. orrian

Aretxabaletan.

ESKORIATZA Korrika Eguna

Informazio osoa 18. orrian.

Eskoriatzan.

ARAMAIO Korrika Eguna

Informazio osoa 15. orrian.

Aramaiotan.

BERGARA 'Musikarekin gozaten' ikastaroa

Orf eta Willemsen metodoak erabiliz, gorputza eta ahotsa erabiliko dituzte.

San Joxepe elkartearen, 11:15ean.

ARRASATE Aldapako Korrika

Olandixoko aldapan kokaturik dauden sei kooperatibetako kideek egingo dute.

Olandixoko aldapan, 12:30ean.

OÑATI Korrika Eguna

Informazio osoa 29. orrian.

Oñatin.

ARRASATE 'Hitzak josten' ipuin kontaketa

Mireia Delgadoren eskutik, 2 eta 4 urte arteko umeendako. Aurrez eman behar da izena.

Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE Bigarren hiru hileko emanaldia

Arrasate Musikaleko ikasleak.

Arrasate Musikalen, 18:30ean.

OÑATI 'Arantzazu: 36 zm, 5 mende, herri 1' dokumentala

Pello Sarasuaren lana. Eñaut Elorrietak musikatuko du ekitaldia, eta, ostean, solasaldia.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ELGETA Bingo-jokoa

Beheko kaleko jaien alde. Aurretik, txistor-jana.

Ozkarbi elkartearen, 19:00etan.

ARRASATE 'Larramendi' eta 'Sorbeltza' film laburrak

Iban del Campok zuzendu du lehena, eta Peryferyka taldeko gazteek ekoiztu dute bigarrena. Egileak egongo dira ekitaldian.

Amaia antzokian, 19:30ean.

BERGARA Bertso-saioa

Erramu-zapatu bezperako saioa. Andoni Egaña, Jone Uria, Miren Artetxe, Amets Arzallus eta Saioa Alkaiza bertsoetan. Sarrerak, zortzi euro.

Seminarixoa, 22:00etan.

ZAPATUA 23**ARRASATE Zuzeneko elkarrizketa Jordi Pigemi**

Askatasuna eta Giza Eskubideen Aldeko Plataformaren eskutik.

Kulturaten, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduetgia: 11:30-13:30.

San Andresko gazte txokoan, 11:30ean.

ARRASATE Autismoa ikusarazteko eguna

Tailerrak, puzgarriak, ikastaroak eta beste hainbat, MondraTEA taldearen eskutik. Orduetgia: 11:30-14:00.

Biteri plazan.

BERGARA Kalejira eta euskal dantzen emanaldia

Korrikaren amaiera aste bukaera girotzeko.

Munibe plazan, 11:30ean.

ARAMAIO 'De amar y desandar' diskoaren aurkezpena

Disko berriari buruz hitz egingo du Idoia Asurmendik, eta kantu batzuk ere joko ditu.

Sastiñan, 12:30ean.

ARRASATE Korrikaraokea

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

OÑATI Txistularien alardea

Aita Madina txistulari taldea, Debagoieneko txistulariak eta Oñati Abesbatza.

Santa Anan, 19:00etan.

ANTZUOLA 'Bizkarsoro' filmaren emanaldia

Korrika Kulturalaren baitan.

Torresoroan, 19:00etan.

ARRASATE Memoria ekitaldia

Xabier Perez de Arenaza tiroz hil zuteneko 40. urteurrenean, hura oroitu dute, Egiari GALde dinamikaren baitan.

Kulturateko klaustroan, 19:00etan.

OÑATI Kantu eskola kantari

Ganbara Txiki, Txikitxo, Hasiberriak eta ikastetxeak. Sarrerak bost eurotan salgai.

Agustindarren elizan, 20:00etan.

OÑATI Malko taldea

Disko berria aurkezteko kontzertua. Sarrerak, hiru euro.

Gaztelekuan, 22:00etan.

DOMEKA 24**ELGETA Anboto eta Orixol mendi ibilaldia**

Denboraldiko lehena. Sagardotegian bazkalduko dute.

Mendizaleen plazan, 08:00etan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena emateko:

infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Arantzazun.

ARRASATE Familian Jolasean ekimena

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARAMAIO 'Entre nosotras' filma

Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik.

Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE Ramadanaren gaineko mahai-ingurua

Irekiak.

Biteri plazan, 19:20an.

ASTELEHENA 25

ESKORIATZA Ekintza bereziak ludotekan

3-12 urte artekoendako.
Tortolis ludotekan, 10:00etan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
Arantzazun.

ARETXABAETA Udaberriko eskaintza gaztelekuan

11:00etan, txapelketak; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, bingo musikatua; 17:00etan, kontzertu akustikoa; eta 18:30ean, bukaera.
Gaztelekuan.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:30etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzeak

Antzuolan, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran.
Herri horietan, 12:00etan.

BERGARA 'Nola egin umorezko bakarriketa bat' ikastaroa

Asier K bakarriketariarekin, 16 urtetik gorakoendako. Debalde da, baina izena eman behar da Jardunen: 943-76 36 61 edo 605 71 24 69.
Zabalotegin, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Nekazaritza eta herri txikiak' hitzaldia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko kideek parte hartuko dute, Debagoieneko EAJK gonbidatuta.
Ibarraundi museoa, 18:30ean.

BERGARA 'Zaintza hirukoitza' hitzaldia

Naia Kortaberria Garetxanak egingo du berba, Udaberri Feminista ekimenaren baitan.
Irizar jauregian, 18:30ean.



TXOMIN MADINA

ARAMAIO Diskoa aurkeztuko du Idoiak

Aramaioarraren lan berriak *De amar y desandar* du izena. Idoia Asurmendik berak egingo du berba diskoari buruz, eta kantu batzuk joko ditu herrikideen aurrean. Debalde, edukiera bete arte.
Bihar, zapateria, Sastiñan, 12:30ean.

MARTITZENA 26

ESKORIATZA Ekintza bereziak ludotekan

3-12 urte artekoendako.
Ludotekan, 10:00etan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Arantzazun.

ESKORIATZA Udaberriko eskaintzak gaztelekuan

11:00etan, ginkana; 11:45ean, *Gaztetxef* lehiaketa; 14:00etan, bazkaria; 18:30ean, amaiera.
Gaztelekuan, 11:00etan.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:30etan.

BERGARA Kontratu irakurtzen ikasteko tailerra

Alokairuen inguruko jardunaldien baitan.
Zubitxako eskolan, 18:00etan.

ESKORIATZA Duo Imperial taldea

Pasodobleen, rantxeren eta kantu dantzagarrien errepertorio zabala eskainiko dute.
Zaldibar antzokian, 18:30ean.

OÑATI Komiki solasaldia

Amaia Arrazolaren *El meteorito* komikiaren gainekoa, Kike Infamek gidatuta.
Kultura etxean, 18:30ean.

BERGARA 'Oihaletxea' dokumentala eta solasaldia

Lander Garrok AEKrentzat eta Korrikarentzat egindako lana, askotariko testigantzekin.
Seminarixoa, 19:00etan.

EGUAZTENA 27

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
Arantzazun.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara monumentala, Lorategi historikoak eta Laboratorium museoa aukeran. Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:30etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Baserritarren garaiako produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Hotel Royal' filma

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpiztituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Secretos de un escándalo
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.

Corre, Tiger, corre

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

La tierra prometida

Domeka eta astelehena: 19:30.

Corre, Tiger, corre

Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Tratamos demasiado bien a las mujeres

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Kung Fu Panda 4
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABAETA

ARKUPE

Politicamente incorrectos

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Museoaren zaindariak

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Robot dreams

Zapatua eta domeka: 12:00.

Migrazioa (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Club Zero

Egubakoitza: 16:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:00.

How to have sex

Egubakoitza: 22:15.
Zapatua eta domeka: 20:15.
Astelehena eta martitzena: 19:00.

La familia

Beneton

Egubakoitza: 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:15, 18:15, 20:15.
Astelehena eta martitzena: 19:15.

Nuestro ultimo baile

Egubakoitzetik domekara: 16:00.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Radical

Egubakoitzetik domekara: 19:15, 21:45.
Astelehena eta martitzena: 19:15.

Dune parte dos

Egubakoitza: 16:15, 21:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:15, 21:45.
Astelehena eta martitzena: 19:00.

Los pequeños amores

Egubakoitza: 16:15, 20:30.
Zapatua eta domeka: 20:25, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Cazafantasmas

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 16:45, 19:30.
Martitzena: 16:45.

Los niños de Winton

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 19:15.
Astelehena: 16:30, 18:45.
Martitzena: 16:30, 19:30.

Luca

Egubakoitza: 18:15, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 18:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30.

La abadesa

Egubakoitzetik domekara: 18:00, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 19:00.

El chico y la garza

Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

Los pequeños amores

★★★★★

Zuz.: Celia Rico Clavellino. **Herr.:** Espainia (2024). **Aktoreak:** Maria Vazquez, Adriana Ozores, **Iraupena:** 95 minutu.

Bizitzaren norabidea birplanteatzen

ANTONIO ZABALA

Cecilia Ricok gustuko du ama-alaben arteko istorioak kontatzea. Duela sei bat urte, *Viaje al cuarto de una madre*-n, ama eta alaba senarraren/aitaren heriotzarengatik dolua ari ziren pasatzen. Alaba, momentu batean, kanpora bizitzera joango da. Filma bien arteko harremanen eta pertsonaia bakoitzaren sentimenduen deskribapena zen. Bizi zuten azaldura eta nahaste emozionala ederki islatua zegoen. Ama etxean gordeta bizi zen, kanpoko jendearekin ia kontakturik izan gabe. Biak elkar babesten zuten egoera goibel hartan.

Oraingo honetan, ama-alaben arteko harremanetara itzuli da. Kasu honetan, amak etxean istripua izan du, eta

alaba ama zaintzera bueltatzen da. Bi lanetan pertsonaien sentimenduak naturaltasunez azaltzen ditu Ricok. Ematen du pertsonaien aurrean gaudela euren eguneroko bizitza ikusten. Filma tonua dramatismotik urruntzen da, nahiz eta alabak bere bizitzaren norabidea birplanteatzerakoan ukitu dramatiko duen. Amarekin eta inguruko beste pertsonaiekin dituen topaketei bidez hausnarketa egingo du. Begiradak, esaten dena eta esaten ez dena, isiluneak, solasaldi askatzaileak, pertsonaien arteko hurbiltze prozesua, ingurunearen deskribapena, aktoreen interpretazioak... Denak laguntzen du film argitsu eta maitagarria sortzeko.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Debate sanoa

Esaten dute (batzuek) milaka eta milaka etorkin behar ditugula lanpostu batzuk betetzeko. Langabezia badago ere, hainbat kasutan, hemen jaiotako herritarrentzat ez dira erakargarriak zenbait ogibide. Ondorioz, planteatzen den irtenbidea kanpoko eskulana ekartzea da. Behin eta berriz agertzen dira komunikabideetan gabezia hori kuantifikatzen dituzten zenbakiak. Oso hedatuta dago pentsamendu hori. Etorkinen beharraz bat datoz enpresariak eta ezkerre ere.

Esaten dute (beste batzuek) etorkin oldeak soldatak jaisten dituela. Gero eta sektore gehiagotan bertako herritarrek ez dituzte nahi lanpostu batzuk. Iruditzen zaie gutxiegi ordaintzen dela, eta behar larrian dauden etorkinek onartzen dute lana. Ondorioz, eskaintza eta eskariaren ereduagatik, lansariak beherantz doaz.

Etorkinek maitasun guztia merezi dute. Immigrazioak, fenomeno bezala, behar du debate sanoa gizartean alderdi ekonomiko, linguistiko zein etxebizitzari dagokionez. Ez da erraza garaiotan. Bitartean, eskuin muturra gorantz doa Europan, besteak beste, Portugalen, eta gazteei esker, joan den asteko hauteskundeek erakutsi dutenez.

BUKATZEKO

Lehenengo Korrikaren zerogarren kilometroa

1980ko azaroaren 29an irten zen Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatetik lehen Korrika. Orduko hura ez zen lehen kilometroarekin hasi: zerogarren kilometroarekin hasi zen, Jesus Mari Satrustegi euskaltzain nafarraren eskutik

Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Gaur egun, Korrika erabat egonkortuta dago. Hala ere, guztia-rekin gertatu bezala, horrek ere izan zuen hasiera bat. Hasiera hori Debagoienean izan zen; zehazki, Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean.

Jende ugari batu zen 1980ko azaroaren 29 hartan. Tartean, Santi Mendiola argazkilaria. "Jendea adi-adi zegoen, ea hura zer izango zen galdezka. Lehen aldia zen eta aurretik ez zen entrenamendurik izan", azaldu du Mendiola. Konbentzimenduz edo kuriositatez joan, han izan zirenak Euskal Herriaren pasarte garrantzitsu baten parte izan ziren, nahiz eta momentuan ez jakin. "Momentuan ez nekien horrek gerora izango zuen garrantzia", adierazi du argazkilaria oñatiarrak.

Bitxia dirudien arren, Korrika ez zen lehen kilometroarekin hasi, zerogarren kilometroarekin baizik. Jesus Mari Satrustegi euskaltzain nafarra izan zen zerogarren kilometro hura abiatu zuena. Hasi aurretik, Julen Kaltzada AEK-ko burukidea izan zuen alboan. "Ondoren, Ikastolako lau hurrek hartu zuten lekukoa. Plaza alderantz joan



Jose Mari Satrustegi, lekukoarekin, eta Julen Kaltzada; behean, Santi Mendiola argazkilaria. SANTI MENDIOLA

ziren eta udal ordezkariak eman zieten lekukoa, Eli Galdos alkatua buru zutela", dio Mendiola. Dirudienez, Galdos gaixorik zegoen egun hartan, eta ohetik atera behar izan zuten lekukoa har zezan. Lehen kilometroa Pikupe txarangaren eta Aloña Mendiren esku gelditu zen.

Korrika gorabeheratsua

Sarri esan izan da hasierak ez direla errazak. Korrikarentzat ere lehen edizio hura ez zen erraza izan. Azaroaren 29an Oñatitik irten eta abenduaren 7an Bilbon amaitu zen, 1.820 kilometro egin ostean. Ustekabeak lehen momentuan heldu ziren, Rikardo Arregik idatzitako mezua ez zenean Oñatira heldu.

Egoera ikusita, Urdainen (Nafarroa Garaia) geldialdia egitea adostu zuten, mezua lekukoan sartzeko. Hala egin zuten, baina Bilbora heltzean ezusteko galanta hartu zuten, lekukoan ez zegoelako Arregiren mezua. Kopia bat heltzen zen bitartean, AEKren diskurtsoa irakurri zuen Kaltzadak.

Diskurtsoa amaitutakoan, Bilbon egon ezin zirenez gogoratu zen Kaltzada, kartzelatu, torturatuz eta torturak jasateko beldur zirenez. "Gora Euskadi askatuta! Gora Euskadi euskalduna! Gora langileria! Gora langileri euskalduna!" oihuekin amaitu zuen haren hitzartzea.

Kaltzadaren diskurtsoak eta Arregiren mezuaren desagerpenak oihartzun handia izan zuten. Ondorioak gogorrak izan ziren: AEK Euskaltzainditik kanporatu zuten eta Jaurlaritzak Korrika diruz ez laguntzea erabaki zuen, gertatutakoa AEKren trikimailu bat zela argudiatuta.



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

ATEAK ZABALIK
Jardunaldia

Apirilak 13
Maiatzak 7

Izena eman
www.maltuna.eus
943 89 92 70

